**(TESTU HAU EMAKUNDEK EGIN DU, EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO LEGEAREN BIGARREN ALDAKETA EGITEKO LEGE-PROIEKTUAK PLANTEATZEN DITUEN ALDAKETAK HOBETO ULERTZEKO)**

# EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO ETA EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA MATXISTA DESAGERRARAZTEKO LEGEA

## ZIOEN AZALPENA

### I

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren printzipioa betetzea eta sexu-diskriminazio mota oro espresuki debekatzea jasota dago zenbait arau juridikotan.

Nazio Batuen Erakundearen Biltzar Nagusiak, 1979ko abenduan, Emakumearen aurkako Diskriminazio-era guztiak Ezabatzeari buruzko Konbentzioa onartu zuen, eta konbentzio horretan, emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioa aldarrikatu zen. Eta konbentzioaren 2. artikuluan, kideek konpromisoa hartzen dute printzipio hori legeen bidez edo beste bitarteko egoki batzuen bidez benetan gauzatzen dela bermatzeko.

Gero, 1999ko maiatzaren 1ean Amsterdamgo Ituna indarrean jarri zenetik, emakumeen eta gizonen berdintasuna Europar Batasunaren funtsezko printzipio bilakatu da formalki. Europar Batasunaren Ituneko 3.2 artikuluaren arabera, Batasuneko eta kide diren estatuetako politika eta ekintza guztietan jaso behar da gure helburua: emakumeen eta gizonen arteko desberdinkeriak ezabatzea eta horien berdintasuna sustatzea.

Euskadiko Autonomia Estatutuaren 9.1 artikuluan, Espainiako Konstituzioan xedatutakoari aipamen bat eginez, berdintasunerako eskubidea eta sexu-diskriminaziorik eza aldarrikatzen da. Horrez gainera, Estatutuaren 9.2.d artikuluan adierazten denez, botere publikoek pertsonen eta taldeen berdintasunerako baldintzak sustatzeko eta hori lortzeko oztopoak ezabatzeko betebeharra dute, berdintasun hori benetakoa eta eraginkorra izan dadin.

Eusko Legebiltzarrak ere, Emakumearen Euskal Erakundea sortzeari buruzko otsailaren 5eko 2/1988 Legea onartuta, lege horren zioen adierazpenean jasotzen den bezala, lehen mailako gaitzat jo zuen emakumeen kontrako diskriminazio-modu guztiak benetan ezabatzea eta behar beste neurri hartzea emakumeek gure erkidegoko alor guztietan esku har dezaten sustatzeko; halaber, bere gain hartu zuen arlo horretan koordinatuta jardun beharra sustatzea ere.

2/1988 Legea garatze aldera, Eusko Jaurlaritzak emakumeentzako ekintza positiboko hiru plan onetsi ditu Euskal Autonomia Erkidegoan. Plan horietan euskal administrazio publikoen esku-hartzearen oinarrizko gidalerroak jasotzen

dira, emakumeen eta gizonen berdintasuna bizitzako eremu guztietan bultzatzeari dagokionez.

II

Emakumeek eta gizonek bete izan ohi dituzten roletan aldaketa handiak ari dira gertatzen: emakumeek lan-merkatuan partaidetza handiagoa dute, hezkuntzako maila guztietan egoteko aukera gehiago, eta sarbide handiagoa prestakuntza eta kulturara, eta, hein txikiago batean, erabakiak hartzen diren eremuetara. Eta horren ondorioz gertatu diren aldaketei esker, aurrera egiten ari gara emakumeen eta gizonen berdintasunerako bidean. Esan beharra dago aldaketa horiek ezinezkoak izango zirela mugimendu feministek egindako funtsezko ekarpenik gabe, eta anonimatuan emakumeen eskubideen alde lan egin duten emakume horien guztien ahaleginik gabe.

Haatik, lan-merkatuari, parte-hartze soziopolitikoari, etxeko lanak egiteari, emakumeen kontrako indarkeriari, pobreziari eta abarri buruzko datuek oraindik ere erakusten dute hierarkizazioa dagoela gizonek eta emakumeek gizartean dituzten harremanetan eta gizarte horretan betetzen duten lekuan. Hierarkizazio horren jatorria, hain zuzen, sexuaren araberako jokaera-estereotipo eta -eredu soziokultural batzuk dira, emakumeei etxeko eremuaren ardura eta gizonei eremu publikoaren ardura izendatzen baitiete, eta hori, gainera, balorazio eta aitorpen ekonomiko eta sozial oso ezberdina eginez. Bestalde, emakume askok diskriminazio anizkoitza jasaten du; izan ere, sexu-diskriminazioaz gainera, beste diskriminazio-mota batzuk ere pairatzen dituzte, arraza, jatorri etnikoa, hizkuntza, adina, desgaitasuna, ondarea, sexu-orientazioa eta beste hainbat faktore direla eta. Kasu askotan, horrek guztiak baldintzatu egiten du emakumeek herritar gisa berez dituzten eskubideak baliatzea.

Berdintasunerako eskubide hori lege-testuetan formalki aitortua ez ezik, praktikan benetan aplikatua ere izan dadin bermatzea; erronka hori daukagu orain. Horretarako, lege honek mekanismo eta neurri zehatz batzuk planteatzen ditu, euskal administrazio publikoek eragin handiagoko politikak eta jarduketak abiaraz ditzaten lortzeko, emakumeen eta gizonen arteko desberdinkeriaren fenomeno estrukturala eta unibertsala gizartetik desagerrarazteko.

Beste alde batetik, gero eta herritar gehiagok onartzen du emakumeek berdintasunerako eskubidea dutela enplegurako, parte-hartze soziopolitikorako, autonomia ekonomikorako, astialdiaz gozatzeko eta abarretarako; halaber, gure gizarteak gero eta hobeto ikusten du gizonek etxeko eginbeharretan gehiago parte hartu behar dutela eta erantzukizunak banatu behar direla; areago, hori guztia beharrezkotzat, komenigarritzat eta zuzentzat jotzen du. Gaur egun bada eredu bat teoriak eta emakumeen eta gizonen benetako berdintasuna lortzearen alde diharduten talde feministek eta erakundeek desiragarritzat planteatzen dutena eta norbanakoen nahiz kolektiboen diskurtsoan agertzen ari dena: eredu horretan, emakumeek eta gizonek berdintasunez parte hartuko lukete parte eremu publikoan eta etxean, hierarkiarik gabeko harremanak eratuko lirateke

emakumeen eta gizonen artean eta produkzio eta erreprodukzioaren artean, lanari balioa ematerakoan ez litzateke kontuan hartuko lan hori emakumeek edo gizonek egiten duten, eta pertsonen eta kolektiboen gaitasunak hobeto erabiliko lirateke. Beraz, horrek guztiak aukera paregabea ematen digu genero-ikuspegia politika publikoetan txertatzeko xedea duen lege bat taxutzeko.

Halaber, hamar urte baino gehiagotan ekintza positiboko planak garatu izanak eskarmentua eta aurrerakada garrantzitsuak ere ekarri dizkio administrazioari berari. Plan horiei esker, berdintasun-politikak garatu eta ezarri dira euskal administrazio publikoaren hiru mailetan; politika horiek abian jartzeko egiturak sortu dira; erakundeen barneko eta erakundearteko koordinazio- eta lankidetza-mekanismo iraunkorrak ezarri dira; pertsonak trebatu dira politika horietan aurrera egiteko; eta emakumeen eta gizonen berdintasuna jasota dago egungo agenda politikoan. Alabaina, egia da orobat lan handia geratzen dela oraindik egiteko, emakumeen eta gizonen berdintasuna helburu estrategikoa eta lehentasunezkoa izan dezaten euskal botere eta administrazio publikoek. Eta lege honek arazo hori ere nabarmendu nahi du.

Horrez gain, lege honek berdintasun-politiken garapenean planteatzen duen aurrerakada zeharo beharrezkoa da, baldin eta erantzun egokia eman nahi bazaie Europar Batasuneko araudiak planteatzen dituen eskakizunei, genero-ikuspegia eta sexuen berdintasunaren helburua administrazioen politika eta jarduketa guztietan txertatzeari dagokionez.

Ildo horri jarraikiz, lege honen bitartez oinarriak ezarri nahi dira orain arte berdintasun-politikak garatzeko egin den lanean sakontzeko, Euskal Autonomia Erkidegoa gai horretan aurreratuen dauden herrien mailan kokatze aldera. Hori guztia erdiesteko, argi eduki behar da emakumeen eta gizonen berdintasuna, giza eskubidea ez ezik, beharrizan estrategikoa ere badela, nola demokrazian sakontzeko, hala euskal gizarte zuzenago, kohesionatuago, eta sozialki eta ekonomikoki garatuago bat eraikitzeko.

## III.

Atariko tituluan ezarritakoarekin bat, legearen xede nagusia gizarte berdinzale bat lortzea da, non pertsona oro libre izango den, hala eremu publikoan nola pribatuan, bere gaitasun pertsonalak garatu eta erabakiak hartzeko, ohiko rolek sexuaren arabera ezartzen dituzten mugak izan gabe; gizarte bat, non berdin aintzat hartu, baloratu eta bultzatuko diren emakumeek eta gizonek dituzten portaera, jomuga eta beharrizanak. Horretarako, legean printzipio orokor batzuk ezartzen dira emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan botere publikoen jarduna gidatzeko, eta neurri batzuk arautzen dira, bizitzaren arlo guztietan emakumeek eta gizonek aukera eta tratu berdinak izan ditzaten sustatzeko eta bermatzeko eta, bereziki, emakumeen autonomia bultzatzeko eta emakumeek gizartean, ekonomian zein politikan duten posizioa sendotzeko.

Titulu horretan jasotzen diren printzipio orokorren ondorio gisa, lege honetan bultzatzen den berdintasuna berdintasun zabala da; izan ere, berdintasun horrek, eskubideak, agintea eta baliabide eta onura sozial eta ekonomikoak lortzeko abiapuntu diren baldintzak ez ezik, horiek guztiak gauzatu eta behar den moduan kontrolatzeko baldintzak ere ukitzen ditu. Halaber, berdintasun horrek emakumeen eta gizonen dibertsitatea errespetatzen du, eta emakumeen eta gizonen berezitasunak kontuan hartzen ditu, gaur egun eredu maskulinoa ezarri eta orokortzeko zabaldu den joera zuzentzeko. Laburbilduz, emakumeak eta gizonak, ezberdinak izaki ere, berdinak izatea da gakoa. Hori da, hain justu ere, legearen izenburuan «emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna» barik «emakumeen eta gizonen berdintasuna» jarri izanaren zioa. Horrela, itzuri egiten zaio emakumeen eta gizonen egoeren arteko konparazio hutsa egiteari, konparazio horrek berez hierarkia bat islatzen baitu askotan; izan ere, hierarkia horren arabera, gizonen egoera da xedetzat hartzen dena, eta emakumeek horretara moldatu behar dute, beren balio, gurari eta jomugei uko eginez.

Era berean, emakumeen eta gizonen berdintasuna erdiesteko gaur egun nazioartean egokientzat jotzen diren bi printzipio edo estrategia osagarriak zehazten dira atariko tituluan: ekintza positiboa eta genero-ikuspegiaren txertatzea. Hain zuzen ere, lege honen asmoa da estrategia horiek gure herrian modu eraginkorrean aplikatzeko oinarriak ezartzea, berdintasuna lortzeko bide gisa. Halaber, titulu horretan legearen aplikazio-eremua ere ezartzen da: legea Euskal Autonomia Erkidegora mugatuta dagoen arren, planteatzen du beharrezkoa dela Euskal Herriko eta Euskal Herritik kanpoko beste instituzio eta erakunde batzuekin elkarlana eta lankidetza sustatzea, gizonen eta emakumeen berdintasuna euskal herritar guztiei bermatu ahal izateko.

IV

Lehen tituluan zehazten da administrazio-maila bakoitzak zer funtzio dituen emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan, Autonomia Estatutuaren 10.39 artikuluan, Lurralde Historikoen Legeko 6. eta 7.c.2 artikuluetan, Estatutuan (9.2 artikulua) eta Erkidegoko arauetan (Europar Batasunaren Ituneko 3.2 artikulua) ezarritakoak dakartzan eskumenetan oinarrituta; izan ere, aipatutako lege eta arauek bi betebehar ezartzen dizkiete botere publikoei: bata, emakumeen eta gizonen berdintasuna benetakoa izateko baldintzak bultzatu eta oztopoak eraistea, eta, bestea, berdintasuna sustatzea botere publikoen politika eta ekintza guztietan. Halaber, oinarrizko antolamendu instituzionala eta hori koordinatzeko mekanismoak ezartzen ditu, eta legean jasotako neurriak finantzatzeko irizpideak arautzen.

V

Bigarren tituluan, genero-ikuspegia euskal botere eta administrazio publikoen jardunean txertatzeko neurriak arautzen dira: plangintza egitea, estatistikak eta azterketak hobetzea; langileak gaitzea; eta prozedura bat ezartzea berdintasun-printzipioa administrazioaren araudian eta jardunean txertatzeko. Europako

Kontseiluak, Genero Mainstreaming-a txostenean, genero-ikuspegia administrazioaren jardunean sartzeko aurretiazko beharkizuntzat edo beharrezko baldintzatzat jo ditu neurri horiek, emakumeek erabakiak hartzeko prozesuetan parte hartzeaz gainera (III. titulua) eta behar adinako baliabide ekonomikoak eta pertsona eta egitura egokiak eta koordinatuak ezartzeaz gainera (I. titulua). Esparru kontzeptuala, metodologia eta praktika egokien aurkezpena. Estrasburgo, 1998.

VI

Hirugarren tituluak, bestalde, Autonomia Estatutuak Erkidegoari hainbat gaitan esleitzen dizkion eskumenetan oinarrituta, zenbait neurri arautzen ditu, esku-hartze esparru hauetan emakumeen eta gizonen berdintasuna benetakoa izan dadin sustatzeko: parte-hartze soziopolitikoa; kultura eta komunikabideak; hezkuntza; lana; oinarrizko beste eskubide sozial batzuk; bizitza pertsonala, familia eta lana kontziliatzea; eta emakumeen kontrako indarkeria.

VII

Laugarren tituluan, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defentsa Erakundea sortzen da eta arautzen. Erakunde hori organo berria eta independentea da, eta helburu du Euskal Autonomia Erkidegoan tratu berdinaren printzipioa betetzen den zaintzea, eta herritarrak sektore pribatuan sexuagatik gerta litezkeen balizko egoera edo jardunbide diskriminatzaileetatik babestea. Horrenbestez, Arartekoa arlo honetan eta euskal sektore publikoan egiten ari den lana osatzen da, eta Europar Batasunak emakume eta gizonentzako tratu berdinaren printzipioaren defentsa sustatzen duten erakunde independenteak sortu beharrari buruz eman dituen aginduak betetzen dira; erakunde independente horien funtzioak honako hauek izango lirateke: sexu-diskriminazioagatik jartzen diren erreklamazioak tramitatzerakoan biktima bakoitzari aparteko laguntza ematea, horri buruz azterlan eta txosten independenteak egitea, eta diskriminazio horrekin loturik dagoen gai ororen gaineko gomendioak ematea.

VIII

Azkenik, bosgarren tituluak emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko arau-hausteak eta zehapenak ezartzen ditu.

## ATARIKO TITULUA

1. artikulua.- Xedea

Lege honen xedea da emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan botere publikoen jarduna gidatu behar duten printzipio orokorrak ezartzea, eta zenbait neurri arautzea bizitzaren arlo guztietan emakumeek eta gizonek aukera eta tratu berdinak izan ditzaten sustatzeko eta bermatzeko, eta, bereziki, emakumeen autonomia eta ahalduntzea bultzatzeko eta emakumeek gizartean, ekonomian zein politikan duten posizioa sendotzeko, egiturazko desberdinkeria eta sexu-diskriminazio mota oro ezabatzeko, emakumeen kontrako indarkeria matxista barne dela. Horrekin lortu nahi da gizartea berdinzalea eta indarkeria matxistarik gabea izatea, pertsona guztiak libre izan daitezen, nola eremu publikoan hala pribatuan, euren gaitasun pertsonalak garatu eta erabakiak hartzeko, rol tradizionalek sexuaren arabera ezarritako mugarik gabe, eta berdin aintzat hartu, baloratu eta bultzatu daitezen emakumeen eta gizonen portaera, jomuga eta beharrizanak.

2. artikulua. Aplikazio-eremua.

1.- Lege hau euskal administrazio publiko guztiei aplikatuko zaie, testuan zehar ezarriko diren salbuespenak salbuespen.

2.- Lege honen ondorioetarako, hau da euskal administrazio publikoa:

a) Autonomia Erkidegoko Administrazioa, haren organismo autonomoak eta haren mendean edo hari lotuta dauden erakunde publikoak.

b) Foru-administrazioa, haren organismo autonomoak eta haren mendean edo hari lotuta dauden erakunde publikoak.

c) Toki-administrazioa, haren organismo autonomoak eta haren mendean edo hari lotuta dauden erakunde publikoak.

3.- Lege honen 3. artikuluko printzipio orokorrak eta 15.6, 16., 17.1, 17.2, 17.3, 17.5, 18.1, 18.4, 21., 22., 23., 43.3 eta 48.3 artikuluak euskal botere publiko guztiei aplikatuko zaizkie. Lege honen ondorioetarako, hau da euskal botere publikoa:

a) Euskal administrazio publiko guztiak, beren administrazio instituzionalak eta haien mendeko edo haiei atxikitako gainerako ente instrumentalak.
b) Nortasun juridiko independentea duten eta atxikipen-araubiderik ez duten euskal sektore publikoko ente publikoak, eta beste ente batzuk, sortze-arauak berariaz hala ezartzen duenean.
c) Eusko Legebiltzarra.
d) Lurralde historikoetako Batzar Nagusiak.
e) Arartekoa.
f) Herri Kontuen Euskal Epaitegia.

g) Euskal Herriko Unibertsitatea.

4.- Euskal botere publikoren batekin kontratuak edo lankidetza-hitzarmenak sinatzen dituzten entitate pribatuei, euskal botere publikoen partaidetza dutenei edo botere publikoen laguntzen edo dirulaguntzen onuradun direnei, horien arteko erlazioari dagokion denboran eta gaian 3. artikuluan eta 16. eta 18.4 artikuluetan jasotzen diren printzipio orokorrak betetzeko eskatuko zaie.

5.- Euskal botere publikoek berdintasun-klausulak txertatuko dituzte kontratuetan, dirulaguntzetan, hitzarmenetan edo aurreko paragrafoan aipatutako entitate pribatuekin funtsak transferitzeko egiten diren bestelako dokumentu batzuetan; aipatutako artikuluak nola beteko diren zehaztuko da klausula horietan. Ezarritakoa bete ezean, aukera egongo da zehapenak ezartzeko, kontratuak edo hitzarmenak suntsitzeko edo jasotako diru-zenbatekoak gutxitzeko edo itzularazteko.

6.- Halaber, lege hau Euskal Unibertsitate Sisteman eta sektore pribatuan ere aplikatu behar da, testu honetan zehar ezartzen denaren arabera.

3. artikulua.– Printzipio nagusiak

Hauek dira emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan euskal botere publikoen jarduna gidatu eta bideratuko duten printzipio orokorrak: tratu berdina; aukera-berdintasuna; emakumeen kontrako indarkeria matxista prebenitzea eta desagerraraztea; dibertsitatea eta diferentzia errespetatzea; genero-ikuspegiaren integrazioa; ekintza positiboa; sexuaren araberako rolak eta estereotipoak desagerraraztea; ordezkaritza orekatua; lankidetza, koordinazioa eta nazioartekotzea; emakumeen ahalduntzea; parte-hartzea; berrikuntza, gardentasuna eta kontu ematea; eta hizkuntza-eskubideak babestea eta euskararen erabilera sustatzea.

1.- Tratu-berdintasuna.

Debekatuta dago pertsonen sexu-diskriminazio oro, zuzenekoa zein zeharkakoa, edozein dela ere horretarako baliatutako modua.

Lege honen ondorioetarako:

a) Zuzeneko diskriminazioa dago egoera berdintsuan egonik pertsona bat beste bat baino okerrago tratatzen denean, sexua dela-eta, edo zuzenean sexuarekin loturiko egoerak direla-eta –haurdun egotea edo ama izatea, adibidez. Delitu gisa izan dezakeen tipifikazioa alde batera utzi gabe, sexu-jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpena zuzeneko sexu-diskriminaziotzat jotzen dira.

“b) Zeharkako diskriminazioa dago egintza juridiko, irizpide edo praktika batek, itxuraz neutroa izanda ere, sexu bereko multzo aski handiago bati kalteak eragiten dizkionean, salbu eta egintza juridiko, irizpide edo jardunbide hori egokia eta beharrezkoa denean, eta sexuarekin loturik ez dauden irizpide objektiboak erabilita justifikatzeko modukoa denean.

c) Ez dira sexu-diskriminaziotzat hartuko justifikazio objektiboa eta zentzuzkoa duten neurriak, emakumeei eta gizonei tratamendu diferentea ematea badakarte ere. Neurri horien artean helburu hauek dituztenak sartu behar dira: emakumeentzako ekintza positiboa, sexuei arrazoi biologikoengatik babes berezia eman beharra, eta gizonek etxeko lanetan, pertsonen zaintzan eta tratu- eta aukera-berdintasunaren aldeko lanean parte har dezaten sustatzea.

Euskal botere publikoek diskriminazio anizkoitzaren aurka egingo dute, eta bermatu behar dute ezen diskriminazio-egoerak eragin ditzaketen beste inguruabar batzuk ere tartean direla-eta diskriminazioa jasaten duten emakumeek nahiz emakume taldeek benetan baliatzen dituztela beren oinarrizko eskubideak. Inguruabar horiek honako hauek izan daitezke: arraza, kolorea, jatorri etnikoa, hizkuntza, erlijioa, politikari edo bestelako gaiei buruzko iritziak, gutxiengo nazional baten kide izatea, ondarea, jaioterria, desgaitasuna, adina, sexu-orientazioa, sexu-identitatea, familia-konfigurazioa edo beste edozein baldintza edo inguruabar pertsonal edo sozial. Gainera, ikuspegi intersekzionala sustatu behar dute, eta horrek, lege honen ondorioetarako, esan nahi du kontuan hartu behar dela sexua nola erlazionatzen eta interakzionatzen den aipatutako gainerako faktoreekin hainbat mailatan eta, askotan, aldi berean, eta nola sortzen diren identitate gainjarriak eta intersekzionatuak, bai eta egoera eta botere-ardatz eta zapalkuntza desberdinak eta elkarrekin erlazionatuak ere.

2.- Aukera-berdintasuna.

Euskal botere publikoek neurri egokiak hartu behar dituzte emakumeek eta gizonek eskubide politikoak, zibilak, ekonomikoak, sozialak eta kulturalak, eta arauetan aitortu lekizkiekeen gainerako oinarrizko eskubideak, aukera berdinekin baliatzen dituztela bermatzeko, barne dela boterea eta baliabide eta etekin ekonomikoak eta sozialak eskuratu eta kontrolatzea. Lege honen ondorioetarako, honako hauetan gauzatu beharrekotzat jo behar da aukera-berdintasuna: batetik, boterea, baliabideak eta onurak eskuratzeko abiapuntu edo hasierako baldintzak, eta bestetik, horiek guztiak baliatzeko eta behar den moduan kontrolatzeko baldintzak.

Euskal botere publikoek irisgarritasun unibertsala ere bermatuko dute, oztoporik edo eragozpenik egon ez dadin lege honen bidez arauturiko eskubideak baliatzeko eta baliabideak erabiltzeko, betiere oztopo horiek ezabatu beharrekoak badira irisgarritasuna sustatzeari buruzko legediaren arabera. Horretarako, behar diren neurriak hartuko dituzte baliabideetan, zerbitzuetan eta prozeduretan

arrazoizko doikuntzak egiteko, nazioarteko tratatuetan eta gai horretan aplikatzekoa den gainerako arauetan ezarritakoarekin bat etorriz.

3.- Emakumeen kontrako indarkeria matxista prebenitzea eta desagerraraztea.

Euskal aginte publikoek emakumeen kontrako indarkeria matxista prebenitzeko eta desagerrarazteko helburua beren politiketan eta ekintzetan integratuko dute zeharka, indarkeria hori emakumeen eta gizonen arteko desberdinkeriaren adierazpen muturrekoena den aldetik.

Era berean, euskal botere publikoen lehentasuna izango da emakumeen kontrako indarkeria matxistaren biktimei arreta osoa ematea, eta biktima horiek oneratzea eta erreparatzea.

4.- Dibertsitatearen eta diferentziaren errespetua.

Botere publikoek beharrezkoak diren neurri guztiak abiaraziko dituzte sexuen berdintasunerako prozesuan errespeta daitezen, batetik, gizonen eta emakumeen artean dauden diferentziak eta dibertsitatea (biologiari, bizi-baldintzei, jomugei eta beharrizanei dagozkienez), eta bestetik, emakumeen eta gizonen kolektiboen barruan dauden diferentziak eta dibertsitatea.

5.- Genero-ikuspegiaren integrazioa.

Euskal botere publikoek genero-ikuspegia txertatu behar dute politika eta ekintza guztietan, horietan guztietan ezar dadin helburu orokorra: desberdinkeriak ezabatzea eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzea.

Lege honen ondorioetarako, hau jotzen da genero-ikuspegia txertatzea: sistematikoki kontuan izatea emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, jomuga eta beharrizan diferenteak, eta, horretarako, desberdinkeriak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko xedea duten helburu eta jarduketa espezifikoak gehitzea politika eta ekintza guztietan, maila guztietan eta horiek planifikatzeko, exekutatzeko eta ebaluatzeko fase guztietan.

6.- Ekintza positiboa.

Emakumeen eta gizonen benetako berdintasuna lortzea sustatze aldera, botere publikoek neurriak hartu behar dituzte, espezifikoak eta aldi baterako, bizitzaren eremu guztietan sexuan oinarritutako egitatezko desberdinkeriak ezabatzeko edo murrizteko.

7.- Sexuaren araberako rolen eta estereotipoen ezabapena.

Euskal botere publikoek sexuaren araberako rol sozial eta estereotipoak desagerraraztea sustatu behar dute; izan ere, rol eta estereotipo horiek emakumeen eta gizonen arteko desberdinkeriaren oinarri dira, eta horien arabera

esleitzen zaie emakumeei etxeko eremuaren ardura eta gizonei, berriz, eremu publikoarena, eta hori, gainera, balorazio eta aitorpen ekonomiko eta sozial oso ezberdinak eginez. Zehazki, etxeko lanen eta zaintza-lanaren aitorpena sustatu behar dute, politika publikoen elementu nagusi gisa.

8.- Ordezkaritza orekatua.

Euskal botere publikoek neurri egokiak hartu behar dituzte erabakiak hartzeko esparru guztietan emakumeen eta gizonen presentzia orekatua izan dadin, guztiek ere trebakuntza, eskumen eta prestakuntza egokia dutela.

Ordezkaritza orekatuaren printzipioa aplikatuko da, lehenik, epaimahaietan, hautaketa-epaimahaietan eta pertsona anitzeko bestelako administrazio-organoetan, eta bigarrenik, kargu publikoak, sozietate publikoen administrazio kontseiluetako kideak eta euskal sektore publikoa osatzen duten entitateen gobernu-organoetako kideak izendatzerakoan.

Pertsona anitzeko organoei dagokienez, eta lege honen ondorioetarako, ordezkaritza orekatua dagoela ulertuko da lau kidetik gorako organoetan sexu bakoitzeko kideek % 40ko ordezkaritza dutenean gutxienez. Gainerako kasuetan, berriz, bi sexuek ordezkaritza dutenean.

Salbuespen gisa, baldin eta dagokion instituzioan emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko eskumena duen organo edo erakundeak aldeko txostena ematen badu, justifikatuta egongo da ordezkaritza orekatuaren irizpidea ez aplikatzea pertsona anitzeko organoetan, betiere, kasu hauetan:

a) Modu objektiboan frogatzen denean organo horri dagokion erreferentziazko sektorean edo eremuan sexu jakin bateko pertsonen presentzia % 40tik beherakoa dela. Halako kasuetan, bermatu egin beharko da, edonola ere, ordezkaritza txikieneko sexuko pertsonek organo hartan izango duten ordezkaritza erreferentziazko sektore edo eremuan duten presentziaren proportzionala dela, salbu eta hurrengo ataletan azaldutako inguruabarretako bat gertatzen bada gutxienez.

b) Emakumeek organoan duten ordezkaritza % 60tik gorakoa izanik, erabakiak hartzeko eremuetan emakumeek historikoki izan duten desberdinkeria-egoera –ordezkaritza txikiegia– zuzentzeko helburuarako egokitzat jotzen denean ordezkaritza handiagoa izatea.

c) Modu objektiboan frogatzen denean sexu jakin baten barnean ez daudela organo hartan parte hartzeko gaitasun, trebakuntza eta prestakuntza egokia duten behar adina pertsona, edo, behar adina pertsona egonda ere, ezin dutela organo horretan parte hartu, behar bezala justifikatutako arrazoiren bat dutelako.

d) Dagokion organoko kideak karguaren arabera izendatzen direnean edo izendapen hori instituzio edo erakunde batek baino gehiagok egin behar duenean. Halako kasuetan, ordezkaritza orekatuaren irizpideari eutsi beharko zaio, erakunde berak izendatutako pertsonen taldeari dagokionez, aurreko ataletan bildutako kasuetako bat aplikatzekoa denean izan ezik.

9.- Lankidetza eta koordinazioa eta nazioartekotzea

Euskal botere publikoek, emakumeen eta gizonen berdintasunari dagokionez, elkarrekin lankidetzan aritzeko eta euren jarduketak koordinatzeko betebeharra dute, esku-hartze eraginkorragoak eta baliabideen erabilera arrazionalarekin bat datozenak izan daitezen.

Bestalde, elkarlana eta lankidetza sustatu behar dute Euskal Herriko eta Euskal Herritik kanpoko beste instituzio eta erakunde batzuekin, gizonen eta emakumeen berdintasuna euskal herritar guztiei bermatu ahal izateko.

Euskal botere publikoek garapenerako lankidetza-politiketan genero-ikuspegia txertatzea behar dute, eta, orobat, berdintasun-politiken nazioartekotzea sustatu, ezagutza eta baliabideak erakartzeko eta trukatzeko eta Euskadi nazioarteko ekintzan nabarmen kokatzeko, garapen jasangarriko nazioarteko agendaren helburu globala betetze aldera: sexuen arteko berdintasuna eta emakumeen ahalduntzea lortzea. Hori guztia, mundu globalizatu batean emakumeen eta gizonen arteko desberdinkeriaren arazo unibertsalari aurre egiteko funtsezko bide gisa.

10.- Emakumeen ahalduntzea.

Euskal botere publikoek baldintzak ezarri behar dituzte eta behar diren egokitzapenak egin behar dituzte emakumeak ahalduntzen laguntzeko, emakumeen dibertsitatea kontuan hartuta.

Lege honen ondorioetarako, emakumeen ahalduntzetzat jotzen da emakumeek emakume izateagatik jasaten duten desberdinkeria- eta diskriminazio-egoera estrukturalaz banaka eta taldeka jabetzeko egiten duten prozesua, bai eta beren bizitzei buruzko erabaki estrategikoak hartzeko eta bizitzaren zenbait alderditan generoagatiko desberdinkeria eta diskriminazioa sendotzen eta iraunarazten duten egiturak eta erakundeak eraldatzeko aukera emango dieten eskumenak, boterea eta kontrola eskuratzeko prozesua ere.

11.- Parte-hartzea

Euskal botere publikoek ezinbestean sustatu behar dute talde feministen eta emakume taldeen, gizarte-eragileen eta, oro har, herritar guztien partaidetza eta elkarrizketa, politika publikoak garatzerakoan; hala, beste partaidetza-eredu bat faboratuko da, demokratikoagoa, taldeen ekarpenei legezkotasun handiagoa emango diena eta haien ekarpenek benetako eragina izango dutela erraztuko

duena. Horretarako, parte hartzeko gune eta bitarteko egokiak sortuko edo egokituko dira, irisgarritasun unibertsala bermatuko dutenak.

12.- Berrikuntza, gardentasuna eta kontu ematea.

Euskal botere publikoek berdintasun-politiken berrikuntza eta etengabeko hobekuntza sustatu behar dute, eta gardentasuna eta herritarrei kontu ematea bermatu, baliabide publikoen bidez emakumeen eta gizonen berdintasunari nola laguntzen zaion azaltzeko.

13.- Hizkuntza-eskubideak babestea eta euskararen erabilera sustatzea

Euskal botere publikoen ardura da emakumeen eta gizonen berdintasunaren esparruan hizkuntza-eskubideak erabiltzea eta euskararen erabilera sustatzea. Horretarako, berdintasun-politikak garatzean ziurtatuko da, besteak beste, zerbitzuak interesdunak hautatutako hizkuntza koofizialean ematen direla, herritarrei zuzendutako prestakuntza-, partaidetza- eta sentsibilizazio-jardueretan hizkuntza-eskubideak bermatzen direla, eta langileei eta profesionalei zuzendutako jardueretan euskararen erabilera sustatzen dela.

## I. TITULUA
## ESKUMENAK, FUNTZIOAK, ANTOLAMENDUA ETA FINANTZAKETA

### I. KAPITULUA
### ESKUMENAK ETA FUNTZIOAK

#### 4 artikulua.- Xedapen orokorrak

1.- Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde komunei dagozkie legegintza-eskumena, arauak garatzeko eskumena eta zuzeneko ekintza, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan.

2.- Lege honen ondorioetarako, hau da zuzeneko ekintza: interes orokorrekoak direlako edo baldintza ekonomiko, sozial edo tekniko bereziak dituztelako, Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde osoan modu bateratuan eskaini behar diren zerbitzuak, programak edo funtzioak exekutatzeko eskumena.

3.- Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde komunek zuzeneko ekintzak abiaraz baditzakete ere, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko arauak exekutatzea lurralde historikoetako foru-organoei eta toki-administrazioari dagokie, lege honetan eta lege hau garatzeko araudian ezarritakoari jarraikiz.

#### 5. artikulua - Autonomia Erkidegoko Administrazioa.

Erakunde komunek emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan duten eskumena, Autonomia Erkidegoko Administrazioari dagokionez, funtzio hauetan gauzatuko da:

a) Azpiegiturak, programak eta prozedurak egokitzea eta sortzea, bere administrazio-jardueran genero-ikuspegia txertatzeko.

b) Plangintza eta koordinazio orokorra egitea, eta arau eta jarraibide orokorrak lantzea, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan.

c) Euskal Autonomia Erkidego osoan modu bateratuan egin behar diren programa eta zerbitzuak eta ekintza positiboko neurriak diseinatzea eta exekutatzea.

d) Euskal Autonomia Erkidegoan egiten diren berdintasun-politikak eta lege honen betetze-maila ebaluatzea.

e) Euskal administrazio publiko guztien jarduketen artean lankidetza bultzatzea, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan.

f) Gutxieneko baldintza oinarrizkoak eta komunak ezartzea, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloaren eskumena duten entitate, organo eta unitateetako langileen funtzioei eta trebakuntzari dagokienez.

g) Estatistikak berdintasun-printzipioari egokitzeko metodologia diseinatzea eta planifikatzea, baita estatistikak egokitu eta eguneratzea ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak esku hartzen duen eremu guztietan emakumeek eta gizonek zer egoera bereizgarri duten jakiteko.

h) Emakumeen eta gizonen egoerari buruzko azterlanak eta ikerketak egitea, azterlan eta ikerketa horiek Euskal Autonomia Erkidego osoan eta Euskal Herri osoan modu bateratuan egin beharrekoak direnean.

i) Sentsibilizazio-jarduerak egitea emakumeen eta gizonen desberdinkeriako egoeraz eta berdintasuna sustatzeko neurriei buruz, Euskal Autonomia Erkidego osoan eta Euskal Herri osoan modu bateratuan egin beharrekoak direnean.

j) Autonomia Erkidegoko araudia nolakoa den eta nola aplikatzen den aztertzea, emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioaren arabera.

k) Toki-entitateei, gainerako euskal botere publikoei eta ekimen pribatuari laguntza tekniko espezializatua ematea, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan.

l) Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan zerbitzuak eman nahi dituzten entitateak homologatzerakoan erabili beharko diren betekizun eta gutxieneko baldintza oinarrizkoak eta komunak ezartzea.

m) Sustapen-neurriak ezartzea, enpresek eta erakundeek bitarteko materialak, ekonomikoak eta pertsonalak izan ditzaten, emakumeen eta gizonen berdintasuna erdiesteko diseinatutako planak, programak eta jarduerak garatzeko.

n) Diskriminazio anizkoitza jasaten duten emakumeek oinarrizko eskubide sozialetarako sarbidea izango dutela bermatzeko eta emakumeen ahalduntzea bultzatzeko programak edo zerbitzuak ematea, zerbitzu horien izaera dela-eta Erkidego osorako modu bateratuan eman beharrekoak direnean.

ñ) Emakumeei eta gizonei bizitza pertsonala, familia eta lana erantzukidetasunez kontziliatzen laguntzeko baliabideak eta zerbitzuak ezartzea, duten izaera dela-eta Erkidego osorako modu bateratuan eskaini beharrekoak direnean.

o) Harremanak finkatzea eta partaidetza eta lankidetzarako bideak ezartzea Euskal Autonomia Erkidegoko eta Euskal Herriko gainerako lurraldeetako elkarte, ekimen pribatu eta erakundeekin, eta beste autonomia-erkidego batzuetako, Estatuko eta nazioarteko elkarte, ekimen pribatu eta erakundeekin.

p) Sexu-diskriminazioaren egoerak ikertu eta hautematea, eta egoera horiek desagerrarazteko neurriak hartzea.

q) Zehatzeko ahala baliatzea.

r) Lege honetan jasotako beste edozein funtzio, edo dagokion eskumen-eremuaren baitan esleitzen zaion beste edozein.

6. artikulua - Foru-administrazioak.

Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan, bakoitzak bere lurralde historikoaren eremuan diharduela, foru-administrazioei funtzio hauek dagozkie:

a) Azpiegiturak, programak eta prozedurak egokitzea eta sortzea, bere administrazio-jardueran genero-ikuspegia txertatzeko.

b) Ekintza positiboko neurriak exekutatzea bakoitzaren lurralde-eremuan.

c) Bakoitzaren lurralde-eremuan, plangintza egitea, Eusko Jaurlaritzaren plangintza orokorraren barruan, eta lege honetan eta lege hau garatzeko

arauetan xedaturikoa zehaztuko eta lurralde-errealitatera egokituko duten arauak, jarraibideak eta gidalerroak sortzea.

d) Estatistikak egokitu eta eguneratzea, foru-aldundiek esku hartzen duten eremu guztietan emakumeek eta gizonek zer egoera bereizgarri duten jakiteko.

e) Emakume eta gizonen egoerari buruzko azterlanak eta ikerketak egitea, bakoitzaren lurralde-eremuan.

f) Bakoitzaren lurralde-eremuan, sentsibilizazio-jarduerak egitea emakumeen eta gizonen desberdinkeriako egoeraz eta berdintasuna sustatzeko behar diren neurriez.

g) Foru-legeria nolakoa den eta nola aplikatzen den begiratzea, emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioaren arabera.

h) Sustapen-neurriak ezartzea, udalek eta gainerako toki-entitateek bitarteko materialak, ekonomikoak eta pertsonalak izan ditzaten, emakumeen eta gizonen berdintasuna erdiesteko diseinatutako planak, programak eta jarduerak garatzeko.

i) Diskriminazio anizkoitza jasaten duten emakumeek oinarrizko eskubide sozialetarako sarbidea izango dutela bermatzeko eta emakumeen ahalduntzea bultzatzeko programak edo zerbitzuak ematea, zerbitzu horien izaera dela-eta udalez gainetik modu bateratuan eman beharrekoak direnean.

j) Emakumeei eta gizonei bizitza pertsonala, familia eta lana kontziliatzen laguntzeko baliabideak eta zerbitzuak ezartzea, duten izaera dela-eta udalez gainetik eman beharrekoak direnean.

k) Erakunde publiko zein pribatuekin harremanak finkatzea eta partaidetza eta lankidetzarako bideak ezartzea, baldin eta erakunde horien xedeek edo funtzioek lurralde-eremuan emakumeen eta gizonen berdintasuna erdiesten laguntzen badute.

l) Bakoitzaren lurralde-eremuan sexu-diskriminazioko egoerak hautematea, eta egoera horiek desagerrarazteko neurriak hartzea.

m) Bakoitzari bere eskumen-eremuan agindu dakiokeen beste edozein funtzio.

7. artikulua - Toki-administrazioa.

1.- Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan, eta lege honen helburuetarako, Euskal Autonomia Erkidegoko udalek funtzio hauek bete

behar dituzte, bai banaka, bai partaide diren mankomunitate, kuadrilla edo elkartzeen bidez edo lege honetako xedeetarako eratzen dituztenen bidez:

a) Azpiegiturak, programak eta prozedurak egokitzea eta sortzea, euren administrazioan genero-ikuspegia txertatzeko.

b) Ekintza positiboko neurriak exekutatzea toki-eremuan.

c) Toki-eremuan plangintza egitea, Eusko Jaurlaritzaren plangintza orokorraren esparruan eta foru-aldundien lurralde-plangintzaren esparruan, eta lege honetan eta lege hau garatzeko arauetan xedaturikoa zehaztuko eta lurralde-errealitatera egokituko duten arauak, jarraibideak eta gidalerroak sortzea.

d) Estatistikak egokitzea eta eguneratzea, toki-erakundeek esku hartzen duen eremu guztietan emakumeek eta gizonek zer egoera bereizgarri duten jakiteko.

e) Emakume eta gizonen egoerari buruzko azterlanak eta ikerketak egitea toki-eremuan.

f) Toki-eremuan sentsibilizazio-jarduerak egitea, emakumeen eta gizonen desberdinkeria-egoeraz eta berdintasuna sustatzeko behar diren neurriez.

g) Toki-araudia nolakoa den eta nola aplikatzen den begiratzea, emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioaren arabera.

h) Herritarrei, eta batez ere emakumeei, informazioa eta orientazioa ematea emakumeen eta gizonen berdintasunarekin zerikusia duten baliabideei eta programei buruz eta diskriminazio anizkoitza jasaten duten emakumeen eskubideetarako sarbidea bermatzeko programa eta zerbitzuei buruz.

i) Diskriminazio anizkoitza jasaten duten emakumeek oinarrizko eskubide sozialetarako sarbidea bermatzeko eta emakumeen ahalduntzea sustatzeko programak osatzea edo zerbitzuak ematea, zerbitzu horien izaera dela-eta udal-mailan eman beharrekoak direnean.

j) Emakumeei eta gizonei bizitza pertsonala, familia eta lana erantzukidetasunez kontziliatzen laguntzeko baliabideak eta zerbitzuak ezartzea, duten izaera dela-eta udal-mailan eskaini beharrekoak direnean.

k) Erakunde publiko zein pribatuekin harremanak finkatzea eta partaidetza eta lankidetzarako bideak ezartzea, baldin eta erakunde horien xedeek

edo funtzioek toki-eremuan emakumeen eta gizonen berdintasuna erdiesten laguntzen badute.

l) Toki-eremuan sexu-diskriminazioko egoerak hautematea, eta egoera horiek desagerrarazteko neurriak hartzea.

m) Bakoitzari bere eskumen-eremuan agindu dakiokeen beste edozein funtzio.

2.- Toki-administrazioei aurreko paragrafoan aipatzen diren funtzioak benetan betetzen laguntzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak eta foru-administrazioek laguntza emango diete; bereziki, gaitasun ekonomiko eta kudeaketa-gaitasun txikien dutenei.

3. Euskal botere publikoek erraztu egingo dute gaitasun ekonomiko eta kudeaketa-gaitasun txikieneko toki-administrazioek mankomunitateak, kuadrillak edo elkartzeak sor ditzaten, artikulu honen lehenengo apartatuan aipaturiko funtzioak benetan gauzatze aldera.

8. artikulua - Entitateak homologatzea.

1.- Beharrezkoa denean euskal administrazio publikoek ekimen pribatuarekin hitzarmenak egitea emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan zerbitzuak eskaintzeko, kasuan kasuko administrazio publikoak homologatu behar ditu zerbitzu horiek eskainiko dituzten aholkularitza-enpresak eta -erakundeak, hitzarmenak izenpetu baino lehen.

2.- Eusko Jaurlaritzak erregelamendu bidez ezarriko ditu emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan zerbitzuak eman nahi dituzten entitate pribatuak homologatzerakoan aplikatu behar diren betekizun eta gutxieneko baldintza oinarrizkoak eta komunak; zerbitzuaren kalitatea eta eraginkortasuna kontuan duten irizpideak erabiliko dira beti.

## II. KAPITULUA
## ANTOLAMENDU INSTITUZIONALA ETA KOORDINAZIOA EUSKAL ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ARTEAN

### 1. atala.
### Berdintasunerako erakundeak.

9. artikulua - Autonomia Erkidegoko Administrazioa.

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen ardura da Euskal Autonomia Erkidegoan emakumeen eta gizonen berdintasunerako politikak (emakumeen

kontrako indarkeria matxistari buruzkoak barne) bultzatu, planifikatu, ebaluatu eta horiei buruz aholku ematea. Emakunde sortzeko legean ezartzen da zer araubide juridiko duen.

10. artikulua.- Foru-administrazioak, toki-administrazioak eta bestelako erakunde publikoak.

1.- Foru- eta toki-administrazioek, bakoitzak bere burua antolatzeko dituen eskumenen eremuan, beren egiturak egokitu behar dituzte, administrazio bakoitzak gutxienez entitate, organo edo administrazio-unitate bat izan dezan, bakoitzaren jardun-eremuan emakumeen eta gizonen berdintasun-politikak (emakumeen kontrako indarkeria matxistari buruzkoak barne) bultzatu, planifikatu eta ebaluatzeko eta horiei buruz aholku emateko.

2.- Erakunde, organo edo administrazio-unitate horiek, bakoitzak bere lurralde-eremuan, gutxienez funtzio hauek beteko dituzte:

a) Berdintasunaren arloko plangintza eta dagozkion jarraipen- eta ebaluazio- mekanismoak diseinatzea, eta lege honetan eta lege hau garatzeko arauetan xedaturikoa zehaztuko eta dagozkien esku-hartze esparruetara egokituko duten arauak, jarraibideak eta gidalerroak sortzea.

b) Ekintza positiboko neurri espezifikoak diseinatzea eta sustatzea.

c) Bakoitzak bere administrazioaren politika, programa eta ekintza guztietan genero-ikuspegia txertatzeko sustapen-lana bultzatzea, maila guztietan eta fase guztietan.

d) Bakoitzak bere administrazioko sailei eta beren mendean dauden gainerako erakunde eta organoei emakumeen eta gizonen berdintasunari buruz aholkularitza ematea eta lankidetzan aritzea.

e) Bakoitzari dagokion lurralde-eremuan bizi diren herritarrentzat sentsibilizazio-jarduerak egitea emakumeen eta gizonen desberdinkeria-egoeraz eta berdintasuna sustatzeko abiarazi behar diren neurriez, diskriminazio anizkoitzeko egoerak eta diskriminazio hori sortzen duten faktoreak nola gurutzatzen diren aintzat hartuta.

f) Bakoitzak bere administrazioan programa edo zerbitzu espezifikoak egokitzeko eta sortzeko proposamenak eta sustapen-lana egitea, diskriminazio anizkoitza jasaten duten emakumeek eskubideak izango dituztela bermatzeko.

g) Emakumeei eta gizonei bizitza pertsonala, familia eta lana kontziliatzen laguntzeko baliabideak eta zerbitzuak sortu eta egokitzea sustatzea eta horretarako proposamenak egitea.

h) Bakoitzaren lurralde-eremuan gertatzen diren diskriminazio-egoerak hautematea, eta egoera horiek desagerrarazteko neurriak diseinatzea eta sustatzea.

I) Erakunde publiko zein pribatuekin harremanak finkatzea eta partaidetza eta lankidetzarako bideak ezartzea, baldin eta erakunde horien xedeek edo funtzioek emakumeen eta gizonen berdintasuna erdiesten laguntzen badute.

j) Bakoitzaren administrazioari atxikitako langileek emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan dituzten prestakuntza-beharrizanak diagnostikatzea, eta kasu bakoitzean zer prestakuntza-mota behar den eta prestakuntza hori jasotzeko irizpideak eta lehentasunak proposatzea.

k) Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko eskumenak dituzten erakunde, organo eta unitateekin elkarrizketak izatea, eta, bereziki, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearekin.

l) Lege honetan jasotzen den edo bakoitzari bere eskumen-eremuan agindu dakiokeen beste edozein.

3. Aurreko paragrafoetan aipaturiko administrazio-egiturek nahikoa langile eta posizio organiko eta erlazio funtzional egokiak izan behar dituzte, bai eta beren helburuak bete ahal izateko behar adinako aurrekontu-zuzkidura ere.

4. Foru- eta toki-administrazioei dagokie beren erakundeetan berdintasunerako administrazio-unitateak eta -departamentuak sortzea eta arautzea, bakoitzaren eskumenen esparruan.

5. Gehienbat euskal erakunde publikoen partaidetza duten 25 langile baino gehiagoko enpresek zerbitzu bat izango dute, langile espezializatuekin, erakunde barruan berdintasun-politikak garatzeko.

6. Eusko Legebiltzarrak, Batzar Nagusiek, Arartekoak, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak eta Euskal Herriko Unibertsitateak, euren eskumen-eremuan eta bakoitzaren berezitasunak aintzat hartuta, egitura espezializatu bat izango dute, nahikoa langilerekin, bakoitzari dagokion erakundean berdintasun-politikak garatzeko.

2. atala.
Berdintasunerako unitateak.

11. artikulua - Emakumeen eta gizonen berdintasunerako unitateak.

1.- Autonomia Erkidegoko Administrazioak bere egiturak egokitu behar ditu, Eusko Jaurlaritzako sail bakoitzean gutxienez zuzendaritza bat edo administrazio-unitate bat egon dadin, zeinaren ardura izango baita saileko zuzendaritzekin eta arloekin eta hari atxikitako organismo autonomo, erakunde publiko eta organoekin lankidetzan aritzea, koordinatzea eta sustatzea, lege honetan eta Eusko Jaurlaritzak onartutako berdintasun-planean xedatutakoa exekutatzeko. Zuzendaritza edo unitate horiek nahikoa langile eta posizio organiko eta erlazio funtzional egokiak izan behar dituzte, bai eta beren helburuak bete ahal izateko behar adinako aurrekontu-zuzkidura ere.

2.- 2. Erregelamenduz zehaztuko dira aurreko paragrafoan aipatutako administrazio-unitateen gutxieneko eginkizunak.

3.- Autonomia Erkidegoko Administrazioari atxikitako edota lotutako organismo autonomo eta bestelako erakunde publikoek, 50 langile baino gehiago badituzte, egiturak egokitu beharko dituzte, lege honetan eta 15.1 artikuluan zehaztutako berdintasun-planean jasotzen diren neurrien exekuzioa bultzatzeko eta koordinatzeko administrazio-unitateak izate aldera. Langile gutxiago dituzten organismoek eta entitate publikoek sailetako berdintasun-unitateen aholkularitza izango dute.

## 3. atala.
## Koordinazio-organoak.

12. artikulua - Erakundearteko koordinazioa

1.- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakundearteko Batzordea sortzen da. Organo horrek koordinatuko ditu Autonomia Erkidegoko Administrazioak eta foru-eta toki-administrazioek emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan garatzen dituzten politikak eta programak. Emakunderen zuzendaria izango da batzordearen burua.

2.- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakundearteko Batzordea Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeari atxikita dago.

3. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakundearteko Batzordearen osaera, funtzioak, antolamendua eta funtzionamendu-araubidea erregelamenduz ezarriko dira. Eusko Jaurlaritzak, foru-aldundiek eta udalek ordezkari kopuru bera izan behar dute batzordean.

13. artikulua. Sailarteko koordinazioa.

1. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sailarteko Batzordea Eusko Jaurlaritzak emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan egiten dituen jarduketak koordinatzeko organoa da, eta Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeari atxikita dago.

2. Batzordearen funtzioak, osaera, antolamendua eta funtzionamendu-araubidea erregelamenduz ezarriko dira.

3. Foru- eta toki-administrazioei dagokie, bakoitzari bere eskumen-eremuan, sailarteko koordinaziorako dagozkien egiturak edo guneak ezartzea eta arautzea.

## III. KAPITULUA
## FINANTZAKETA

14. artikulua.- Xedapen orokorra.

1. Euskal administrazio publikoek genero-ikuspegia txertatu behar dute euren aurrekontu publikoetan, emakumeen eta gizonen premia diferenteak kontuan izateko eta berdintasuna sustatzen eta sexuan oinarritutako desberdinkeriak ezabatzen laguntzeko. Horretarako, gidalerroak ezarri behar dituzte, funtzio hori gauzatzeko, horri jarraipena egiteko eta ebaluatzeko, bai eta trebakuntza-prozesu egokiak ere.

2. Administrazio autonomiko, foral eta lokalek, urtero, lege honetan jasotzen diren eginkizunak betetzeko eta neurriak egikaritzeko behar dituzten ekonomia-baliabideak izendatuko eta zehaztuko dituzte bakoitzaren aurrekontuetan.

3. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoak modu aktiboan eta progresiboan sustatuko du Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren % 1, gutxienez, emakumeen eta gizonen berdintasunerako politikak garatzera bideratzea.

# II. TITULUA
# EUSKAL ADMINISTRAZIO ETA BOTERE PUBLIKOEN JARDUNEAN GENERO IKUSPEGIA TXERTATZEKO NEURRIAK.

## I. KAPITULUA.
## PLANGINTZA

15. artikulua - Emakumeen eta gizonen berdintasunerako planak.

1.- Eusko Jaurlaritzak plan orokor bat onartuko du, eta plan horretan, esku-hartze ildoak eta gidalerroak jasoko dira —koordinatuta eta oro har—, euskal botere publikoek emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan izango duten jarduera gidatzeko. Plan hori egiteko orduan, Eusko Jaurlaritzak parte hartzeko aukera eman behar die gainerako euskal administrazio publikoei, talde feministei eta emakume-taldeei, beste gizarte-eragile batzuei eta, oro har, herritar guztiei. Halaber, bultzatu behar du 3.1 artikuluaren azken tartekian aipatutako emakumeen interesak ordezkatzen dituzten kolektiboak edo antolakundeak egotea.

2.- Lehenengo paragrafoan aurreikusitako plan orokorraren esku-hartze ildo eta gidalerro horiek garatzerakoan, Eusko Jaurlaritzaren sail bakoitzak bere jarduketa-plan propioa egingo du legegintzaldi bakoitzean; plan horiek behar diren baliabide pertsonal, ekonomiko eta materialez hornituta egon behar dira, benetan ezarriko direla bermatzeko. Sail bakoitzak zehaztuko du, nork bere ezaugarrien arabera eta efikazia-irizpideak kontuan hartuta, nola koordinatu bere organismo autonomoekin eta atxikitako edo lotutako entitate publikoekin, plan horiek egiteko.

3. Foru-aldundiek eta udalek berdintasun-planak onartuko dituzte, Eusko Jaurlaritzaren plangintza orokorrean ezartzen diren esku-hartze ildo eta gidalerroei jarraikiz, eta, beharrezkoak diren baliabide material, ekonomiko eta pertsonalen bitartez, bermatu egin behar dute aipatu planetan eta lege honetan jasotzen diren neurriak benetan eta koordinatuta exekutatzen direla beren sail, organismo autonomo eta mendeko edo lotutako bestelako erakunde publiko guztietan. Udalek banaka edo kide diren edo ondorio horietarako osa ditzaketen mankomunitate, kuadrilla edo elkartzeen bidez egin ditzakete jarduketa horiek. Horretarako, Eusko Jaurlaritzak eta dagokion foru-aldundiak laguntza emango die; bereziki, gaitasun ekonomiko eta kudeaketa-gaitasun txikiagoa dutenei.

4. 2. eta 3. apartatuetan aipaturiko planek honako hauek izan behar dituzte, gutxienez:

a) Egoeraren diagnostikoa.

b) Planak egiten feminismoaren eta emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko adituek, kolektiboek, elkarteek eta gizarte-eragilek parte hartzeko bideak, batez ere herritarrei zuzendutako planetan.

c) Sailek edo inplikatutako arloek, bai maila teknikoan bai maila politikoan parte hartzeko bideak, eta, hala badagokio, langileen legezko ordezkariek parte hartzekoak.

d) Aurrekontua.

e) Egutegia.

f) Helburuak, ekintzak eta ezarpen-, jarraipen- eta ebaluazio-sistemak eta kontu ematekoak, dagozkien adierazleekin.

5. Aurreko paragrafoetan aipaturiko planen helburu, ekintza eta adierazle nagusiak eta haiei dagozkien ebaluazio-adierazleak administrazio publiko bakoitzari dagozkion plan estrategikoetan txertatu behar dira.

6. 2. eta 3. apartatuetan aipatutako planak eta programak onartu baino lehen, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak horiei buruzko txostena eman behar du, zehazteko ea plan eta programa horien edukiak egokitzen diren lege honetan aurreikusitakora eta Eusko Jaurlaritzak onartu behar duen plan orokorreko esku-hartze ildo eta gidalerroetara (betiere, 1 apartatuan xedatutakoaren arabera).

7. Eusko Legebiltzarrak, Batzar Nagusiek, Arartekoak, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak eta Euskal Herriko Unibertsitateak euren eskumen-eremuan eta bakoitzaren berezitasunak aintzat hartuta, emakumeen eta gizonen berdintasunerako plan propioak egin behar dituzte; plan horiek behar beste baliabide pertsonal, ekonomiko eta materialez hornituta egon behar dira.

## II. KAPITULUA
## ESTATISTIKAK ETA AZTERLANAK

### 16. artikulua.- Estatistikak eta azterlanak

1. Lege honetan jasotako xedapenak betetzeko eta genero-ikuspegia eguneroko jardueran benetan txertatzen dela bermatzeko, euskal botere publikoek ezinbestean txertatu behar dute «sexua» aldagaia pertsonei buruzko datuak biltzea dakarren edozein jardueratan, datu horiek helburu estatistikoekin ustia daitezen, ahal izanez gero bananduta.

2. Gainera, azterlanak zein ikerketak eta estatistikak zein datu-bilketak egitean, beharrezkoa izango da:

a) Sexuaren aldagaia sistematikoki sartzea egiten dituzten estatistika, inkesta eta datu-bilketa guztietan.

b) Eragiketa estatistikoetan adierazle berriak ezartzea eta sartzea, emakumeen eta gizonen balio, rol, egoera, baldintza, jomuga eta beharrizanetan dauden diferentziak, horien guztien adierazpena eta

aztertuko den errealitatearekin duten elkarreragina hobeto ezagutzea ahalbidetzeko.

c) Beste aldagai batzuen eragina ezagutzea ahalbidetzeko beharrezkoak diren adierazleak eta mekanismoak diseinatzea eta sartzea, aldagai horiek agertzeak diskriminazio anizkoitzeko egoerak sorrarazten baditu esku-hartze eremuetan.

d) Lagin zabalak hartzea, sartutako aldagai guztiak sexuaren aldagaia oinarri hartuta ustia eta azter daitezen ahalbidetzeko.

e) Datuak emakumeek eta gizonek esku-hartze eremuetan dituzten egoera, baldintza, jomuga eta beharrizanak ezagutzea ahalbidetzeko moduan ustiatzea eta zabaltzea.

f) Gaur egun dauden definizio estatistikoak berrikustea, eta hala badagokio, egokitzea, emakumeen lana aitortu eta baloratzen laguntzeko eta emakumeen zenbait kolektiboren estereotipatze negatiboa saihesteko.

Ohiz kanpoko kasuetan soilik justifika daiteke gorago aipatutako betebeharretako bat ez betetzea. Horretarako, txosten arrazoitu bat aurkeztu beharko da, organo eskudunak onetsia.

3. Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen baitan, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Euskal Behatokia sortzen da. Tresna horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoan emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren egoeraren eta bilakaeraren ikuspegi globala eta iraunkorra edukiko da, eta esparru horretan euskal botere publikoek abiatutako egintzen inpaktua ebaluatu ahal izango da. Erregelamenduz ezarriko dira haren funtzioak, antolamendua eta funtzionamendu-araubidea.

## III. KAPITULUA
## LANGILEEN TREBAKUNTZA

17. artikulua.- Euskal botere publikoetako langileen trebakuntza.

1. Euskal botere publikoek neurri egokiak hartu behar dituzte euren langile guztiei emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan derrigorrezko oinarrizko prestakuntza mailakatu eta iraunkorra eskaintzeko, lege honetan jasotzen diren xedapenak bete daitezen eta, horretaz gain, administrazio-jardunean genero-ikuspegia benetan txertatzea ahalbidetuko duen jakintza praktikoa berma dadin.

2. Aurreko paragrafoan ezarritakoa betetzeko, euskal botere publikoek:

a) Prestakuntza-planak egin eta gauzatuko dituzte, kontuan hartuta emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan zer gaitasun behar diren lanpostu-tipologia bakoitzean.

b) Prestakuntza- eta sentsibilizazio-jarduerak egingo dituzte beren kargu publikoentzat.

3. Euskal botere publikoek genero-ikuspegia txertatu behar dute berariaz emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzkoa ez den prestakuntzan, eta horretarako, prestakuntza-eskaintzak aztertu eta dagozkion egokitzapenak egingo dituzte.

4. Halaber, euskal botere publikoek bermatuko dute emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko programak sustatu eta diseinatzeaz eta aholkularitza teknikoa eskaintzeaz arduratzea dakarten plazak okupatzen dituen pertsonal teknikoak baduela esperientzia edota gaitasun zehatza. Xede horrekin, ezagutzei buruzko berariazko betekizunak ezarriko dituzte plaza horietara sartu ahal izateko.

5. Enplegu publikoko lanpostuak lortzeko eta mailaz igotzeko hautaketa-prozesuetan, eta, hala badagokio, betetzeko prozesuetan, euskal botere publikoek emakumeen eta gizonen berdintasunaren printzipioari buruzko gaiak eta hautatzen den eremu publikoan horien aplikazioari buruzkoak sartu behar dituzte gai-zerrendetan.

## IV. KAPITULUA
## ADMINISTRAZIOAREN ARAUDIAN ETA JARDUERAN BERDINTASUNA SUSTATZEKO NEURRIAK

### 18 artikulua.- Xedapen orokorrak

1. Euskal botere publikoek oso kontuan izan behar dute emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko helburua arauak garatu eta aplikatzerakoan, eta planak, programak eta politika publikoa formulatzeko beste tresna batzuk, kontratuak, dirulaguntza-programak eta administrazio-egintzak garatu eta aplikatzerakoan.

2. Autonomia Erkidegoko erakunde komunek emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan duten legegintza-eskumena alde batera utzi gabe, lurralde historikoen foru-organoek eta toki-administrazioek gai horren gaineko arau propioak landuko dituzte, lege honetan eta lege hau garatzeko arauetan bilduriko agindu orokorrak lurralde historiko eta udalerri bakoitzaren errealitatera egokituta eta zehaztuta. Hori guztia, emakumeen eta gizonen

berdintasunaren arloko exekuzio-eskumenak, erregelamendu-ahalak eta auto-antolatzeko ahalak baliatuz, bai eta emakumeen eta gizonen berdintasunak eragiten dien beste gai sektorial batzuetan dituzten eskumenak ere, gaia zeharkakoa izaki.

3. Generoaren araberako inpaktua aurretiaz ebaluatzerakoan, desberdinkeriak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko neurriak ezartzerakoan eta kapitulu honetan aurreikusitako bestelako jarduketak egiterakoan, kontuan hartu behar da emakumeen eta gizonen arteko diferentzietan zer nolako eragina daukaten diskriminazio anizkoitza eragiten duten faktoreek (3.1 artikuluaren azken tartekian aipatzen dira).

4. Euskal botere publikoek hizkera inklusiboa eta ez-sexista erabili behar dute irudi eta hizkera mota guztietan, zuzenean eta beste pertsona edo erakunde batzuen bitartez sortzen dituzten dokumentuetan eta euskarrietan.

19. artikulua.- Generoaren araberako inpaktuaren aurretiazko ebaluazioa eta desberdinkeriak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko neurriak.

1.- Administrazio-arau bat egiteko unean, euskal administrazio publikoek, hori sustatzen duen administrazio-organoaren bitartez, ebaluatu egin behar dute proposamen horrek nolako inpaktua izan dezakeen emakumeen eta gizonen egoeran. Horretarako, aztertu behar du administrazio-arauan proiektatu den jarduketak ondorio positiboak edo kontrakoak izan litzakeen helburu orokorrean (emakumeen eta gizonen arteko desberdinkeriak ezabatzea eta horien arteko berdintasuna sustatzea).

2. Egindako genero-inpaktuaren ebaluazioaren arabera, arau-proiektuan honelako neurriak sartu behar dira: batetik, arau edo proiektu horiek emakumeen eta gizonen egoeran sor dezaketen eragin negatiboa indargabetzeko neurriak, eta, bestetik, hautemandako desberdinkeriak ezabatzeko edo gutxitzeko eta sexuen berdintasuna sustatzeko neurriak.

3. Euskal administrazio publikoek, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan eskuduna den organo edo erakundeak proposatuta, arauak edo gidalerroak onartu behar dituzte, adierazteko, batetik, zer urrats egin behar diren generoaren araberako inpaktuaren aurretiazko ebaluazioa egiteko eta berdintasuna bultzatzeko neurriak ezartzeko, eta bestetik, zer administrazio-arau dauden salbuetsita aurretiazko ebaluazio hori eta artikulu honetan jasotzen diren gainerako tramiteak egin behar izatetik.

4. Arau-proiektuari buruzko memorian xehetasunez azaldu behar da zer tramite egin diren artikulu honi dagokionez, eta hark zer emaitza izan dituen.

5. Administrazio-araua sustatzen duen administrazio-organoak aztertu egin beharko du ea administrazio-arauan edo -egintzan jasotako neurriak –aurreko apartatuetan aipatutakoak– eraginkorrak diren helburua lortzeko, alegia, emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko eta desberdinkeriak ezabatzeko; gero, horren berri emango dio dagokion administrazioan emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko eskuduna den organo edo erakundeari.

6. Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak Autonomia Erkidegoko Administrazioaren esparruan prestatzen diren arau-proiektuei buruzko txostena eman behar du, artikulu honetan xedatzen dena egoki aplikatzen dela egiaztatzeko eta, hala badagokio, horren inguruko hobekuntzak proposatzeko. Beste administrazio publiko batzuen arauen kasuan, organo eskudunek ezarriko dute nola bermatu artikulu honetan finkatutakoa behar bezala aplikatzen dela.

7. Xedapen orokorren izaera juridikoa duten planetan –bereziki, lurralde- eta hirigintza-planei– genero-inpaktuaren aldez aurreko ebaluazioa egin behar da, eta berdintasuna sustatzeko neurriak sartu behar dira. Nolanahi ere, duen espezifikotasuna dela-eta, erregelamendu bidez zehaztuko da izapide hori nola gauzatu behar den.

8. Administrazio-egintzak ez dira artikulu honetan aurreikusitako izapideen mende egongo, enplegu-eskaintza publikoen deialdiak eta lekualdatze-lehiaketak izan ezik.

9. Eusko Legebiltzarrak eta Batzar Nagusiek dagozkien neurriak hartu behar dituzte, lege-proposamenetan eta foru-arauetarako proposamenetan (hurrenez hurren) ebalua dadin generoaren araberako zer inpaktu aurreikus daitekeen, eta halako proposamenetan emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko neurriak txerta daitezen.

20. artikulua.- Hautaketa-prozesuak eta epaimahaiak

1. Egokitzat jotako beste neurri batzuk ere har daitezkeela alde batera utzi gabe, enplegu publikoko lanpostuak lortzeko, betetzeko eta lanpostuz igotzeko hautaketa-prozesuak (praktikaldiak barne hartuta) erregulatzen dituzten administrazio-arauetan edo -egintzetan, honako hauek jaso behar dira:

a) Klausula bat, gaikuntza-berdintasuna egonda, emakumeei lehentasuna ematen diena emakumeak % 40 baino gutxiago diren Administrazioaren kidego, maila, eskala eta kategorietan. Salbuespena izango lanposturako beste hautagaiak neurri hori ez aplikatzea justifikatzen duten arrazoiak

izatea, hala nola lanpostuak lortzeko eta mailaz igotzeko zailtasun bereziak dituzten beste kolektibo batzuetako kide izatea (nolanahi ere, arrazoi horiek ez dute eragin behar sexu-diskriminaziorik).

Administrazio publikoetan funtzio publikoaren arloko eskumena duten organoek estatistika egokiak eta eguneratuak izan behar dituzte, a) letran xedaturikoa aplikatzea ahalbidetzeko, eta irizpideak ezarri behar dituzte, aurreko paragrafoan aipaturiko ehunekoa kalkulatzeko erreferentzia-esparrua finkatzeko.

b) Klausula bat, hautapen-epaimahaietan emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua izango dela bermatzeko, guztiek gaikuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia dutela.

c) Aurreikuspenak, hautagaiaren lanbide-esperientzia baloratzeko merezimendu-baremoetan honako hauek ere kontuan har daitezen: lehenik, zenbat denbora egon den hautagaia eszedentzia-egoeran, senideak zaintzeagatik edo genero-indarkeriagatik; bigarrenik, zenbat denbora eman duen hautagaiak amatasuna eta aitatasuna babesteko edota bizitza pertsonala, familia eta lana kontziliatzeko helburua zuten lanaldi-murrizketetan edo baimenetan; eta hirugarrenik, emakumezko enplegatu publikoek zenbat denbora eman zuten genero-indarkeriagatiko baimenak baliatzen.

d) Neurri horien bitartez, hautapen-prozesuak, lanpostuak betetzeko prozesuak eta lanpostuz igotzeko prozesuak garatzerakoan, amatasunari behar bezalako babesa emango zaio bai jaio aurreko aldietan bai jaiotza ondoko aldietan, sexu-diskriminazioaren egoeretan ez erortzeko. Hori horrela izanik, deialdi bakarreko sistemaren araberako ariketak edo probak edota hautagaiak bertaratzea eskatzen duten bestelako jarduketak barne hartzen dituzten prozesuetan, egoera jakin batzuek –haurduntzak, erditzeak edo edoskitzeak–, baldin eta behar bezala egiaztatuta badaude, ekitaldiaren denbora- edo leku-inguruabarrak aldatzea eragin dezakete, eta aldaketa hori justifikatuta egongo da. Aldaketa-eskabideak kontuan hartzerakoan, beharrezkotzat eta egokitzat jotako antolamendu-neurriak hartuko dira hautagai guztien lehia-berdintasunaren printzipioa bermatzeko.

2.- Egoki ikusten diren beste neurri batzuk ere hartu ahal diren arren, administrazioak sustatutako edo diruz lagundutako edozein sari-mota emateko sortzen diren epaimahaiak erregulatuko dituzten arauek, eta kultura- eta arte-funtsak eskuratzeko gaitutako antzeko organoak erregulatzen dituztenek, klausula bat izango dute, hautaketa-epaimahaietan trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua izango dela bermatzeko.

3.- Artikulu honetan adierazitakoaren ondorioetarako, ordezkaritza orekatua duela ulertuko da lau kide baino gehiago dituzten epaimahaietan edo antzeko organoetan sexu bakoitzak gutxienez % 40ko ordezkaritza baldin badu. Gainerakoetan, sexu biak ordezkatuta daudenean.

21. artikulua.- Kontratazio publikoa eta dirulaguntzak.

1. Euskal botere publikoek irizpide sozialak txertatzeko nahitaezko eta zeharkako betebeharrari buruzko printzipio orokorra aplikatuko dute emakumeen eta gizonen berdintasunaren eremu espezifikoan. Horretarako, genero-ikuspegia txertatu behar dute kontratazio publikoan, eta, beste neurri batzuen artean, emakumeen eta gizonen berdintasunerako klausulak txertatuko dituzte adjudikazio-irizpideetan eta exekuzio-baldintza berezietan, bereziki kontuan hartuta 3.1 artikuluaren azken tartekian aipatutako inguruabarrak dituzten emakumeen egoera. Hori guztia, salbu eta objektiboki justifikatzen bada kontratuaren xedeak ez duela loturarik emakumeen eta gizonen berdintasunarekin, kontratu-prestazioak ez duelako eraginik emakumeen eta gizonen egoeran, eta ezin delako horrelako klausularik sartu.

2. Genero-ikuspegiaren kontsiderazioa kontratuaren xedearen ezaugarri tekniko bat denean, espresuki txertatu ahal izango da xede horren definizioan emakumeen eta gizonen berdintasunaren aipamen espezifiko bat.

3. Euskal botere publikoek kontratazio-prozeduratik kanpo utziko dituzte Estatuko oinarrizko legerian kontratatzeko debekua ezarrita duten pertsona fisikoak eta juridikoak; horien artean, berdintasun-plan bat izateko betebeharra ez konplitzeagatik eta emakumeen eta gizonen berdintasuna bultzatzearen arloko arau-hauste oso astuna dela-eta egindako delituengatik edo zehapen irmoengatik jarritakoak.

4. Kontratuaren xederako emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko gaitasun espezifikoak eskatzen badira, gaitasun tekniko edo profesional gisa eskatuko da esperientzia zehatza, ezagutzak edo prestakuntza izatea emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan, kontratazio publikoari buruzko araudian ezarritakoaren arabera.

5. Baldin eta objektiboki justifikatzen ez bada kontratuaren xedeak ez duela loturarik emakumeen eta gizonen berdintasunarekin artikulu honen lehen paragrafoan aurreikusitako baldintzetan, kontratazio-organoek honako hauek sartuko dituzte kontratazio-pleguetan:

   a) Emakumeen eta gizonen berdintasunerako esleipen-irizpideak; horien haztapena baremoaren guztizkoaren% 5ekoa izango da gutxienez.

b) Emakumeen eta gizonen berdintasunarekin lotutako gauzatze-baldintza berezi bat gutxienez, hizkera eta irudi mota guztietan erabilera ez-sexista egiteaz gain.

6. Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko gaitasun-baldintzak egiaztatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan informazio banakatua jasotzeko aukera emango da, sexuaren arabera, gutxienez kopuru hauek zehaztuz:

   a) Pertsona juridikoen eta haien administrazio- edo zuzendaritza-organoak osatzen dituzten pertsona titularrak.

   b) Langileak eta haien batez besteko ordainsaria, lanbide-taldeen, lanbide-kategorien edo lanpostu berberen edo balio berekoen arabera banatuta.

7. Emakumeen eta gizonen berdintasunerako klausulak benetan betetzen direla egiaztatu beharko da; eta horretarako,

   a) Kontratistak nahitaez bete beharko ditu emakumeen eta gizonen berdintasunerako klausula guztiak, eta horiek behar bezala exekutatu direla egiaztatu beharko du, dagokion dokumentazioa aurkeztuta, aurretiazko errekerimendurik igorri behar izan gabe.

   b) Baldintza-agirietan klausula horiek ez betetzearen ondorioak zehaztuko dira, sektore publikoko kontratuei buruzko legerian aurreikusitakoaren arabera.

   c) Kontratuaren jarraipenaz eta gauzatzeaz arduratzen den unitateak emakumeen eta gizonen berdintasuna egiaztatzeko dokumentazioa egiaztatu beharko du. Ondorio horietarako, aholkularitza eskatu ahal izango dio dagokion administrazioan emakume eta gizonen berdintasunaren arloko eskumenak dituen erakundeari.

8. Euskal botere publikoek, oro har, genero-ikuspegia txertatu behar dute dirulaguntza publikoetan, eta berdintasuna sustatzeko eta emakumeen eta gizonen arteko desberdinkeriak ezabatzeko neurriak sartu behar dituzte oinarrietan edo arauetan, balorazio-irizpideetan eta pertsona fisiko edo juridiko onuradunen betebeharretan, salbu eta txosten arrazoitu baten bidez justifikatzen bada diru-laguntzak eragina duela generoak eragindako desberdinkeriarik ez dagoen eremu batean edo, desberdinkeriak egonda ere, dirulaguntzak ez duela eraginik emakumeen eta gizonen egoeran. Txostena helaraziko zaio dagokion administrazioan emakume eta gizonen berdintasunaren arloko eskumenak dituen organo edo organismoari, iritzia eskatzeko.

9. Euskal botere publikoek ezingo dute laguntzarik edo dirulaguntzarik eman sexuagatik diskriminatzen duten jarduerei, eta sexu-diskriminazioan erortzeagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik administrazio- edo zigor-zehapenen bat ezarri zaien pertsona fisikoei eta juridikoei, dagokion zehapenean ezarritako denbora-tarte osoan. Halaber, laguntza eta dirulaguntzetatik kanpo geratuko dira estatu-araudiaren arabera berdintasun-plan bat indarrean izan behar duten arren halakorik ez duten enpresak, eta, estatu-legeriak emakumeen eta gizonen berdintasunaren esparruan finkatzen duen bezala, sexu-jazarpena edo sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko neurriak ezarri dituztela ziurtatzen ez duten 50 langiletik gorako enpresak.

10. Euskal botere publikoek, beste gai batzuen artean, dirulaguntza publikoak emateko oinarrietan edo arauetan:

    a) Pertsona fisiko edo juridiko parte-hartzaileek bete beharreko baldintzen artean sartuko dute, betiere emakumeen eta gizonen berdintasuna diru-laguntzaren xedearen argitara alderdi garrantzitsua bada, emakumeen eta gizonen berdintasuneko ibilbide bat egiaztatzea; edo beren estatutuetako helburuen, xede sozialen edo sorrerako helburuen artean berdintasunaren sustapena izatea; edo diruz lagundutako proiektua edo jarduera exekutatuko duten pertsonek emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko prestakuntza espezifikoa izatea.

    b) Balorazio-irizpideen baremoaren guztizko % 5ekin baloratuko dituzte, gutxienez, pertsona fisiko edo juridiko parte-hartzaileen emakumeen eta gizonen berdintasunerako ekintzak eta politikak eta/edo dirulaguntzara aurkeztutako proiektuan genero-ikuspegia txertatzearekin lotutako beste alderdi batzuk. Hori guztia, salbu eta objektiboki justifikatzen bada portzentaje hori neurriz kanpokoa dela diru-laguntzak emakumeen eta gizonen egoeran duen eraginari dagokionez.

    c) Betebeharrak ezarriko dituzte emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan, hizkera eta irudi mota guztietan erabilera ez-sexista egiteaz gain.

    d) Emakumeen eta gizonen egoeran duten eragina ezagutzeko, entitate onuradunei eskatuko diete diru-laguntzak ematean ezarritako betebeharrak betetzen dituztela justifikatzen duten memorietan sexuaren arabera banakatutako informazioa eman dezatela ondorengoei buruz: emandako zerbitzuaren azken onuradunak edo erabiltzaileak, entitatearen titularrak eta langileak, eta dirulaguntza eragin duen zerbitzua emateko entitateak kontratatu dituen langileak.

11.- Dirulaguntza publikoen onuradun diren pertsona juridiko guztiek emakumeen eta gizonen berdintasunerako klausulak benetan betetzen direla egiaztatu beharko dute, hori egiaztatzeko ezarritako dokumentazio guztia aurkeztu eta justifikatu behar dute, eta irizpide sozial horiek egiaztatzeko jarduketak egiten utzi beharko dute.

12.- Estatuko araudia betetzeko, euskal administrazio publikoek, diru-laguntzen plan estrategikoak egiterakoan, modu objektiboan eta arrazoituan aztertu eta justifikatu beharko dute ea diru-laguntzen xede diren eremuetan emakumeen eta gizonen artean desberdinkeriarik badagoen. Horretarako, iritzia eskatu ahal izango diote dagokion administrazioan emakume eta gizonen berdintasunaren arloko eskumenak dituen organo edo organismoari.

13.- Diru-laguntzak eta kontratuak sustatzen dituzten organoek adierazleak ezarri beharko dituzte, aurreko paragrafoetan aipatutako neurrien betetze-maila eta eraginkortasuna ebaluatu ahal izateko.

14.- Euskal botere publikoek, bakoitzak bere jardun-eremuan, arauak edo jarraibideak onar ditzakete, artikulu honetan xedatutakoa benetan betetzeko pauta eta adibideak emateko.

22. artikulua.- Plan sektorialak eta estrategikoak.

1. Euskal botere publikoek genero-ikuspegia sartu behar dute beren plan sektorialetan eta estrategikoetan, eta neurriak sartu behar dituzte berdintasuna sustatzeko eta emakumeen eta gizonen arteko desberdinkeriak ezabatzeko, bereziki kontuan hartuta 3.1 artikuluaren azken tartekian aipatutako inguruabarrak dituzten emakumeen egoera. Salbuespen izango da txosten arrazoitu baten bidez justifikatzea planari ez dagokiola genero-ikuspegia txertatzea; txosten hori emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan eskuduna den organo edo organismoari helaraziko zaio, zer irizten dion jakiteko.

2. Emakumeen eta gizonen egoeran nolako inpaktua izan dezaketen jakiteko, euskal botere publikoek bermatu egin behar dute, plan sektorialen eta estrategikoen memoria edo ebaluazioetan, aurreikusitako ebaluazio-adierazleen eta planean garaturiko neurrien onuradunen informazioa sexuen arabera banakatuta aurkezten dela.

3. Euskal administrazio publikoek, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan eskuduna den organo edo organismoak proposatuta, arauak edo gidalerroak onar ditzakete, zeinetan adieraziko den zer egin behar den aurreko paragrafoetan aurreikusitakoa benetan aplikatzeko eta horren jarraipena egiteko.

## III. TITULUA
## ZENBAIT ESKU-HARTZE ARLOTAN BERDINTASUNA SUSTATZEKO NEURRIAK

### I. KAPITULUA
### PARTE-HARTZE SOZIOPOLITIKOA

23. artikulua.- Xedapen orokorra.

1. Euskal botere publiko guztiek, beren zuzendaritza-organoetako eta kide anitzeko organoetako kideak izendatzerakoan, emakumeen eta gizonen presentzia orekatua izatea eta kide guztiek trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia izatea sustatu behar dute. Xede horretarako, beharrezkoak diren arauzko neurriak edo bestelakoak hartuko dituzte.

2. Euskal botere publikoen ardura izango da komunikabideek kargu politikodunez egiten duten estaldura mediatikoa sexismorik eta generoaren araberako estereotiporik gabea, ekitatiboa eta orekatua izan dadin zaintzea, estaldura horrek eragin negatiborik izan ez dezan botere publikoek duten ordezkagarritasunean eta lan instituzionalean, ez eta hautesleek sexu bateko edo besteko hautagaiak hautatzeko duten konfiantzan ere.

24. artikulua - Elkarteak eta erakundeak.

1.- Euskal administrazio publikoek sustatu behar dute emakumeen eta gizonen presentzia orekatua izatea profesionalen, enpresen, gizarte-ekonomiaren, sindikatuen, politikaren, kulturaren eta bestelako arloetako elkarte eta erakundeen zuzendaritza-organoetan, bereziki kontuan hartuta 3.1 artikuluaren azken tartekian aipatutako faktoreak dituzten emakumeen egoera. Horretarako, beste jarduketa batzuen artean, dagozkien dirulaguntzak egokitu ahal izango dituzte, emakumeen ordezkaritza txikiegia duten organoetan emakumeen presentzia handitzeko neurriak hartzearen arabera.

2.- Euskal administrazio publikoek ezin izango diete inolako laguntzarik, babesik edo aitorpenik eman kideak aukeratzeko prozesuan edo lan-jardunean sexuagatik diskriminatzen duten elkarte edo erakundeei.

3.- Euskal administrazio publikoek laguntza emango diete lege honetan aurreikusitako xedeak lortzeko jarduerak egiten dituzten elkarteei eta antolakundeei, eta entitate horiekin (adibidez, emakumeen etxeekin) lankidetzan aritzeko bide publiko pribatuak bultzatuko dituzte, emakumeak ahalduntzen laguntzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistaren kasuak hautemateko eta biktimei lagun egiteko guneak errazteko.

4.- Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan lan egiten duten irabazi-asmorik gabeko erakundeak onura publikokotzat deklaratu daitezke, erakunde bakoitzaren forma juridikoari dagokion legedia espezifikoan ezarritakoari jarraikiz.

5.- Euskal administrazio publikoek mekanismoak, denborak, guneak eta gaikuntza-prozesu egokiak jarriko dituzte politika sozial, ekonomiko eta kulturalak garatzen emakumeek eta elkartegintza-mugimenduak parte har dezaten bermatzeko, bereziki kontuan hartuta 3.1 artikuluaren azken tartekian aipatutako inguruabarrak dituzten emakumeen egoera. Halaber, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan euskal administrazio publikoekin solasean aritzeko bideak antolatuko dituzte.

## II. KAPITULUA
## KULTURA ETA KOMUNIKABIDEAK

### 25. artikulua - Kultura-jarduerak.

1.- 1. Euskal herri-administrazioek, bakoitzak bere eskumen-eremuan, beharrezkoak diren neurriak hartu behar dituzte, bai sexu-diskriminazio oro saihesteko, bai sustatzeko emakumeek zein gizonek parte hartzeko aukera eta partaidetza orekatua izan dezatela Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan izaten diren kultura-jarduera guztietan. Lege honen ondorioetarako, kultura-jardueratzat hartzen dira, besteak beste, artistikoak, jai-giroan egiten direnak, oroitzapenezkoak, kirol-jarduerak eta euskararen hizkuntza-normalizazioaren arloan egindakoak.

Debekatu egiten da gune publikoetan emakumeek gizonekiko berdintasunean parte hartzea onartzen ez duten edo oztopatzen duten kultura-jarduerarik antolatzea eta egitea.

2.- Euskal administrazio publikoek ezingo dute inolako laguntzarik eman eta haien ordezkariek ezingo dute ordezkari gisa parte hartu sexu-diskriminatzaile diren kultura-jardueretan.

3. Euskal administrazio publikoek genero-ikuspegitik memoria historikoa berreskuratzea bultzatu behar dute, eta berdintasunaren aldeko kultura-politikak sustatu, ondareari eta kulturari emakumeek egin dizkieten ekarpenak ikusgarri egiteko eta estereotipo eta aurreiritzi sexistak gainditzen laguntzeko; eta emakumeen presentzia sustatu behar dute, emakumeek ordezkaritza txikiegia duten eremuetako erakusketa eta ekoizpen artistiko eta kulturaletan. Horretarako, beste neurri batzuen artean, laguntza publikoak ezarriko dituzte, edo daudenak egokituko.

4. Bereziki, euskal administrazio publikoek bultzatu egin behar dute funts publikoekin finantzatutako museo eta arte-zentroetan:

a) Genero-ikuspegia txerta dadin haietako hezkuntza-programetan, bisita-programetan eta bestelakoetan, eta, bereziki, haur eta gazteentzako programetan.

b) Genero-ikuspegia txerta dadin erosketa irizpide eta protokoloetan eta obrak eskuratzeko lehentasun-ildoetan, bai eta erakusketa-politiketan ere, horrela lortuko baita emakumezko artisten erakusketak gehitzea eta emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua lortzea.

c) Ordezkaritza orekatua susta dadin erabakiak hartzeko egitura guztietan (patronatuak, batzorde artistikoak eta epaimahaiak, besteak beste).

5.- Euskal administrazio publikoek neurri egokiak hartu behar dituzte kirol-modalitate guztietan –bai aisialdian, bai lehiaketetan– emakumeek eta gizonek tratu- eta aukera-berdintasuna izango dutela bermatzeko.

6.- Euskal administrazio publikoek kirol-jarduerak estereotipoetan oinarritu gabe hautatzea sustatuko dute, bai eta emakumeen zein gizonen kirol-jarduerak babestea ere, bietako edozein gutxiengoa den modalitateetan. Era berean, handitu egingo dituzte gehienbat emakumeek praktikatzen dituzten kirol-modalitateentzako laguntza publikoak, eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bermatuko da sariak eta aitorpenak ematerakoan.

26. artikulua.- Komunikabide sozialak, publizitatea eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak.

1.- Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumen-eremuan diharduten hedabideek ezin izango dituzte pertsonak erakutsi sexu batekoak edo bestekoak izateagatik giza duintasun txikiagoak edo handiagoak balira bezala, ez eta objektu sexual edo aberastasun-iturri soil bezala ere. Orobat, ezingo zaie zabalkundea eman emakumeen kontrako indarkeria justifikatu, hutsaldu edo horretara bultzatzen duten edukiei.

2.- Debekatu egiten da honelako publizitate-iragarkiak egitea, ematea eta erakustea: pertsonek, sexu batekoak edo bestekoak izateagatik, giza duintasun txikiagoa edo handiagoa dutela edo sexu-objektu edo aberastasun-iturri soilak direla adierazten dutenak eta emakumeen kontrako indarkeria justifikatu, hutsaldu edo horretara bultzatzen dutenak.

3.- Gizarte-komunikabideek, beren programazioak egiteko orduan, edukietan genero-ikuspegia txertatzen dela bermatu behar dute; horrez gain, ez dute hizkera eta irudi sexistarik erabili behar, eta emakumeen parte-hartze aktiboa eta bi sexuen presentzia orekatua eta irudi plurala bermatu behar dute, edertasun-kanonetatik eta sexu bakoitzak bizitzako arloetan betetzen dituen eginkizunei buruzko estereotipo sexistetatik aparte, eta bereziki zaindu behar

dituzte haur zein gazteentzako edukiak. Bestalde, emakumeek sustatutako edo emakumeek zuzendutako jarduera politiko, sozial eta kulturalen zabalkundea bermatu behar dute, gizonekiko berdintasunean, eta orobat emakumeak ahalduntzeko lagungarri diren jarduerak.

4.- Autonomia Erkidegoko titulartasun publikoko komunikabideek babestu egingo dituzte desberdinkeriak ezabatu eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko eta emakumeen kontrako indarkeria mota oro prebenitzeko kanpaina instituzionalak, eta horiei lehentasunezko tratua eskainiko diete beren publizitate-espazioetan. Horretarako, dagokionean, erakundeen arteko lankidetzarako beharrezko diren mekanismoak edo itunak ezarriko dira.

5. Euskal administrazio publikoek, organismo autonomoek eta haien mende edo haiei lotuta dauden gainerako entitate publikoek, beren eskumen-eremuan, aurreko apartatuan aipatutako kanpaina instituzionalak hedatzen lagunduko dute. Horretarako, barruan nahiz kanpoan publizitaterako dituzten gune edo lekuak lagako dituzte kanpaina instituzional horietarako.

6. Euskal administrazio publikoek, beren eskumen-eremuan, oztopoak ezabatu eta beharrezko diren neurriak hartu behar dituzte, berma dadin emakumeek eta gizonek informazio- eta komunikazio-teknologiak berdintasunez eskuratzeko eta erabiltzeko aukera dutela, eta zuzen daitezen sexu-diskriminazioak eta 3.1 artikuluan aipatutako diskriminazio anizkoitza eragiten duten beste faktore batzuk.

7. Administrazio horiek orobat sustatu behar dute, autorregulazio-arauen edo bestelako formulen bidez, eduki sexistarik edo emakumeen duintasunaren kontrakorik ez agertzea Interneten, sare sozialetan, bideo-jokoetan eta informatika-sistemetan.

27. artikulua.- Publizitatearen eta komunikabideen aholkularitza- eta kontrol-organoa.

Eusko Jaurlaritzan organo bat eratuko da, komunikabideen eta publizitate-euskarrien bitartez hedatzen diren publizitatearen eta edukien inguruan aholku emateaz eta horiek aztertzeaz arduratuko dena, pertsonen sexu-diskriminazio eta -estereotipatze mota oro desagerrarazteko. Halaber, arlo horretako prestakuntza sustatuko du, eta komunikabideek emandako edukiei buruzko kode etikoak badaudela zainduko du, besteak beste, emakumeen kontrako indarkeria matxistaren kasuen tratamendu egokia jorratzeko.

## III. KAPITULUA
## HEZKUNTZA

1. atala.
Unibertsitateaz kanpoko irakaskuntza.

28. artikulua.- Xedapen orokorra.

Hezkuntza-politika publikoek hezkidetza sustatuko dute, eta, lege honen ondorioetarako, honako hauetan oinarritutako hezkuntza-eredutzat hartuko da hezkidetza: sexuaren araberako estereotipoak eta rolak alde batera utzita, pertsonaren garapen integralean oinarritutako hezkuntza-eredua, diskriminazio-mota oro baztertzen duena eta generoak baldintzatu gabeko orientazio akademiko eta profesionala bermatzen duena. Horregatik, emakumeen eta gizonen berdintasuna bultzatuko da hezkuntza-maila eta -etapa guztietan (haur hezkuntza, lehen hezkuntza, bigarren hezkuntza, batxilergoa, lanbide-heziketa eta helduentzako irakaskuntza) eta dimentsio guztietan (curriculuma, antolamendua eta beste batzuk).

29. artikulua - Curriculuma.

1.- Hezkuntza Administrazioak hezkidetza-proiektuak egitea sustatuko du, behar diren neurrien eta baliabideen bitartez, eta jarraian aipatzen diren hezkidetza-helburuak integratuko ditu hezkuntzako maila guztietako jakintza-arloetako eta diziplinetako curriculumaren diseinuan eta garapenean:

a) Emakumeei eta gizonei esleitzen zaizkien portaera-eredu soziokulturaletan oinarrituta eraiki diren sexuaren araberako aurreiritzi, estereotipo eta rolak ezabatzea, sexu bateko zein besteko ikasleei beren buruak erabat garatzeko aukera eskaintzeko.

b) Emakumeen jakintza eta emakumeek gizadiaren garapenari egin dioten ekarpen sozial eta historikoa integratzea; horretarako, irakasten diren edukiak berrikusiko dira, eta, hala dagokionean, zuzendu.

c) Beharrezko diren ezagutzak sartzea, ikasleek, neskek zein mutilek, etxeko lanen eta pertsonak zaintzearen arloan gaur egun dituzten eta etorkizunean izan ditzaketen beharrizan eta erantzukizunen ardura har dezaten.

d) Ikasleak gaitzea eta egun dauden oztopoak kentzea, ikasleei ikasketak hautatzeko ematen zaizkien orientazio-programak hobetuz besteak beste, aukera akademikoak generoan oinarritutako baldintzapenik gabe hauta ditzaten; izan ere, emakumeek presentzia txikiegia dute lanbide heziketako sektore estrategiko jakin batzuetan eta beste eremu batzuetan —esaterako, industrian, zientzian eta teknologian—, eta,

gizonek, berriz, beste eremu batzuetan —esaterako, humanitateetan, hezkuntzan eta osasunean—, eta hori zuzendu nahi da.

e) Emakumeen kontrako indarkeria matxista prebenitzea, batetik, zalantzan jarriz genero bitarraren sozializazioa, eta, bestetik, gatazkak konpontzeko indarkeriarik gabeko metodoak erakutsiz, bai eta aniztasunean eta emakumeek eta gizonek eskubide eta aukeren aldetik duten berdintasunaren errespetuan oinarritzen diren bizikidetza-ereduak ere.

f) Sexu-dibertsitatea errespetatzea, sexu-identitate eta -orientazioarekin lotutako aurreiritziei aurre eginez, eta sexualitate aske, positibo eta osasungarria sustatuz.

2. Era berean, Hezkuntza Administrazioak oinarrizko printzipiotzat ezarriko du hezkuntza-maila guztietan indarkeriazko jokaerak prebenitzea, eta eguneroko bizitzari buruzko irakasgai eta/edo eduki eta aldi zehatzak ezarriko ditu hezkuntza-maila guztietan. Eduki eta aldi horietan gai hauekin lotutako alderdi eta edukiak sartuko dira: etxeko eremua eta pertsonen zaintza, harreman pertsonalen funtzionamenduaren ezagutza eta harreman afektibo-sexual osasungarri eta positiboak sustatzea, hizkuntzaren erabilera ez-sexista, emakumeen gorputza erakartzeko elementu edo aberastasun-iturri gisa erabiltzea zalantzan jartzea, jarrera matxisten identifikazioa eta prebentzioa (ikusgarrienak ez direnak barne), eta gatazkak konpontzeko indarkeriarik gabeko metodoak eta sexuen berdintasunaren eta dibertsitatearen errespetuan oinarritutako bizikidetza-ereduak ikastea.

3. Hezkuntza Administrazioak hezkidetza-plan orokor bat onartuko du, eta hor jasoko dira, oro har eta koordinatuta, Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeek hezkidetzari dagokionez garatu behar dituzten jarduerak gidatuko dituzten jarraibideak eta esku-hartze ildoak.

4. Hezkuntza-administrazioak zainduko du ordutegiek eta egutegiak ahalik eta gehien errazten dutela ikasleen gurasoen lana, familia eta bizitza pertsonala bateragarri egitea. Halaber, gurasoek seme-alaben zaintzan duten erantzunkidetasuna sustatuko du, bai eta ikastetxeetako hezkuntza- eta elkarte-bizitzan duten parte-hartzea ere.

30. artikulua - Material didaktikoak.

1.- Debekatu egiten da Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan egin, zabaldu eta erabiltzea pertsonek, sexu batekoak edo bestekoak izateagatik, giza duintasun txikiagoa edo handiagoa dutela edo sexu-objektu soilak direla adierazten duen testuliburu edo material didaktiko oro, bai eta emakumeen kontrako indarkeria justifikatu, hutsaldu edo horretara bultzatzen duen oro ere.

2.- Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan erabiltzen diren testuliburuek eta gainerako material didaktiko guztiek barneratuta izan behar dituzte aurreko artikuluaren 1. apartatuan adierazi diren hezkidetza-helburuak. Bestalde, ez dute hizkuntza modu sexistan erabili behar, eta irudietan emakumeen eta gizonen presentzia orekatua eta estereotiporik gabea bermatu behar dute.

31. artikulua - Pertsonak eta egiturak.

1.- Hezkuntzaren arloa ebaluatu, ikertu, berritu eta ikuskatzeaz arduratzen diren organoetan eta irakasleen laguntzarako zerbitzu guztietan, hezkidetzari buruzko trebakuntza espezializatua jaso duten langileak arituko dira, beren zereginetan genero-ikuspegia txertatzeko.

2. Hezkuntza-administrazioak ikastetxe guztietan bermatuko du ikastetxeetan hezkidetzako irakasle arduradunak izendatuko direla, eta irakasle horiei asteko ordutegian dagozkien orduak esleituko zaizkiela hezkidetzaren arloko lanerako eta prestakuntzarako. Halaber, bermatuko du emakumeen eta gizonen berdintasunaren gaiaz arduratzen diren batzordeak egongo direla; batzorde horietan hezkuntza-komunitateak parte hartuko duela, eta, hala badagokio, dagokion toki-administrazioko berdintasun-organo edo -unitateekin koordinatuko direla. Era berean, ikastetxe horietako ordezkaritza goreneko organoetan prestakuntza egokia duten berdintasun-ordezkariak egongo direla ziurtatuko du, eta eskola-kontseiluetan hala sustatuko du, bai udal-mailan, bai autonomia-erkidego mailan, hezkuntza-eremuan berdintasuna sustatzeko neurriak bultza ditzaten.

3.- Hezkuntza Administrazioak bultzatuko du emakume zein gizon irakasleek presentzia orekatua izatea jakintza-arlo eta hezkuntzako etapa guztietan eta ikastetxeetako zuzendaritza-organoetan.

4.- Irakasleek ikastetxeen zuzendaritza-organoei jakitera eman beharko diete emakumeen eta neskatila-mutikoen aurka nabaritzen duten indarkeria matxistaren zantzu oro.

32. artikulua.- Prestakuntza.

1.- Hezkuntza-administrazioak hezkidetzari buruzko prestakuntza-planak jarriko ditu abian, hezkuntzako profesionalentzat. Plan horiek unibertsitatez kanpoko ikastetxe guztiak hartuko dituzte, eta emakumeen, haurren eta nerabeen aurkako indarkeria matxista mota guztiak identifikatzen eta horiei modu egokian aurre egiten laguntzen duten edukiak jasoko dituzte.

2.- Ikastetxe bakoitzak prestakuntza-plan horiek abian jartzerakoan neurri egokiak ezar ditzan, Hezkuntza Administrazioak beharrezko diren egokitzapenak egingo ditu ordutegian eta antolamenduan. Gainera,

mekanismoak ezarriko dira plan horietan aurreikusi diren egutegi eta ordutegiek eragindako ikasleei erantzuteko.

3 Irakaskuntzako profesionalei –banaka zein ikastetxeen bidez– zuzentzen zaien etengabeko prestakuntzarako eskaintzan, edukietan hezkidetzaren filosofia zeharka barneratzeaz gainera, hezkidetzari buruzko ikastaro espezifikoak ere jaso behar dira.

4. Hezkuntzako profesionalek ez ezik Eskola Komunitatea osatzen duten langile guztiek ere hezkidetzari buruzko prestakuntza jasotzea sustatuko du Hezkuntza Administrazioak.

5. Hezkuntza Administrazioak orobat sustatuko du, gurasoen elkarteen eta federazioen bitartez, familiak hezkidetzaren gaietan sentsibilizatzea eta formatzea.

## 2. atala.
## Unibertsitate-irakaskuntza.

33 artikulua.- Xedapen orokorrak

1.- Euskal unibertsitate-sistema osatzen duten unibertsitateek emakumeek eta gizonek aukera berdinak izatea bultzatuko dute, bai irakasle-karreran, bai erabakiak hartzen diren eremuetarako sarbidean; eta, horrekin batera, sexu bietako ikasleek diziplina eta jakintza-arlo guztietan partaidetza orekatua izatea sustatuko dute.

2.- Orobat, bermatuko dute jakintza-arlo guztietako irakaskuntzan eta ikerketa-lanetan genero-ikuspegia txertatzen dela, hizkera ez-sexista erabiltzen dela, eta emakumeen jakintza eta emakumeek gizadiaren garapenari egindako garapen sozial eta historikoa jasotzen dela.

3.- Autonomia Erkidegoko Administrazioak sustatuko du Euskal Unibertsitate Sistemako unibertsitateek eman dezatela emakumeen eta gizonen berdintasunerako agente izateko prestakuntza espezializatua, eta genero-ikuspegia txerta dezatela diziplina eta jakintza arlo guztietan, eta, bereziki, txerta ditzatela hezkidetzari buruzko eduki espezifikoak unibertsitateaz kanpoko irakasleentzako prestakuntzan, eta berdintasunari eta indarkeria matxistari buruzkoa biktimak artatzen dituzten profesionalei lotutako karreretan eta komunikazio-arloko profesionalei lotutako karreretan.

4.- Prestakuntza eta ikerketaren aldeko deialdietan, Hezkuntza Administrazioak bereziki ezaugarri hauek betetzen dituzten proiektuak baloratuko ditu:

a) Proiektuen buru emakumeak izatea, emakumeen presentzia txikia duten ikerketa-eremuetan.

b) Emakumeen ordezkaritza, gutxienez, % 40 izatea ikerketa-taldeetan.

c) Emakumeen eta gizonen desberdinkeriarekin eta sexuen arteko hierarkia-harremanarekin zerikusia duten arazoak ulertzen laguntzea.

d) Desberdinkeriak ezabatzeko eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko neurriak proposatzea.

e) Emakumeen kontrako indarkeria matxista prebenitzearekin eta biktimak artatzearekin lotuta dauden gaiei heltzea, arreta hori hobetzen eta eremu horretako profesionalak formatzen laguntzeko.

5.- Hezkuntza Administrazioak dirulaguntzak ezarriko ditu, euskal unibertsitate-sistemaren eremuan emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko proiektuak egitea bultzatzeko.

## IV. KAPITULUA
## LANA

### 1. atala
### Etxeko lanak eta zaintza-lanak

34 artikulua.- Xedapen orokorrak

1. Euskal administrazio publikoek, aldika, Euskal Autonomia Erkidegoan egindako etxeko lan ez-ordainduen balio ekonomikoa zenbatetsiko dute –hartan sartuta pertsonak zaintzeak dakarren lana–, eta zenbatespen hori euskal gizarteari jakinaraziko diote, etxeko lanen garrantzi ekonomiko eta soziala ezagutzera emateko.

2. Euskal botere publikoek kontuan hartuko dute etxeko lan eta zaintza-lan ez-ordainduen balioa aurrekontuak eta politika ekonomikoak eta sozialak prestatzerakoan, beste eredu ekonomiko eta sozial bat izaten laguntzeko, zaintza eta bizitzaren iraunkortasuna erdigunean izango dituena.

3. Zaintzaile ez-profesionalek aisialdirako, astialdirako eta atsedenerako eskubidea dute. Eskubide hori gauzatzeko, Autonomiaren Aldeko eta Mendetasunari Arreta Eskaintzeko Sistemaren eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren esparruan, euskal administrazio publiko eskudunek neurri hauek hartu behar dituzte, besteak beste:

a) Prestakuntza eskaintzea familiako senide ez profesionalei, haiei hautemandako beharren arabera.

b) Atseden- eta aisialdi-programak garatzea, aldi baterako ostatuak barne hartzen dituztenak, zaintzaileei atseden hartzeko aukera emateko, bereziki kontuan hartuta guraso bakarreko familiak edo familia-kargak bakarka hartzen dituztenak.

c) Partikularren artean elkarri laguntzeko ekimenak eta formulak sustatzea, pertsonak zaintzeko.

d) Zaintzaileen beharrei erantzuteko beharrezkoak diren laguntza ekonomiko, tekniko eta psikosozialeko bestelako neurri guztiak.

35. artikulua.- Erantzukidetasuna.

Euskal botere publikoek, beste neurri batzuen artean, etxeko lan eta zaintza-lan ez ordainduen erantzukizun soziala sustatu behar dute, honako hauen bitartez:

a) Enplegu-egiturak egokitzea eta kultura eta praktika enpresariala eraldatzea, besteak beste lege honen 48. artikuluan jasotako neurriak barne hartuko dituena.

b) Zaintzen hornidura unibertsala eta publikoa, besteak beste lege honen 49. artikuluan jasotako neurriak barne hartuko dituena.

c) Euskal administrazio publikoek gizonen erantzukidetasuna sustatuko dute etxeko lanen eta zaintza-lanen arloan, eta bultzatu egingo dute haien artean zaintzaren etika eta jarduna orokortzea, norberaren eta besteen garapen eta ongizaterako bide gisa, eta desberdinkeriak eta indarkeria matxistak eta pertsonentzat kaltegarri diren arrisku-jokabideak prebenitzeko bide gisa. Halaber, euskal botere publikoek neurri egokiak hartuko dituzte gizonen erantzukidetasuna sustatzeko neurriak sar daitezen bizitza pertsonalaren, familiaren eta lanaren kontziliazioa sustatzeko neurrietan eta jarduketetan.

2. atala.
Enplegua

36 artikulua.- Xedapen orokorrak

Euskal administrazio publikoek, beren eskumen-eremuan, emakumeen eta gizonen aukera- eta tratu-berdintasuna erreala eta benetakoa izateko behar diren baldintzak sustatu behar dituzte, hala norbere konturako zein besteren konturako

lana lortzerakoan, nola lan, prestakuntza, sustapen, ordainketa eta kontratuen amaierako baldintzetan.

37. artikulua.- Enplegu-zerbitzuak.

1.- Laneratzen laguntzeko prozesuko faseetan parte hartzen duten enplegu-zerbitzuek ezin dute sexu-diskriminaziorik sortzen duen lan-eskaintzarik tramitatu.

2.- Enplegu-zerbitzuak emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipiora egokitu daitezen, euskal administrazio publikoek honako hauek egin behar dituzte:

a) Beren enplegu-zerbitzuetako langileei prestakuntza emango diete, eta bermatu egingo dute lankidetza-erakundeetako langileei prestakuntza ematea; batetik, jakin dezaten genero-ikuspegia nola txertatu laneratzen laguntzeko prozesu integraleko fase bakoitzean (informazioa eta orientazioa, prestakuntza, bitartekotza, laneratzeko laguntza eta laneratzearen jarraipena, enpresen eta autoenpleguaren sustapena), eta, bestetik, jakin dezaten emakumeen kontrako indarkeria matxistaren biktimak nola artatu.

b) Sustatuko dute enplegu-zerbitzuek neurriak har ditzatela kontratatutako emakume gehiago egon daitezen presentzia txikiegia duten lanbideetan, eta emakumeek kalitateko enpleguak izan ditzaten, bereziki kontuan hartuta 3.1 artikuluaren azken tartekian aipatutako inguruabarrak dituzten emakumeen egoera. Beste neurri batzuen artean, bermatuko dute emakumeen presentzia orekatua izatea emakume gutxiegi dauden sektoreetarako kontratuak edo laguntza ekonomikoak aurreikusten dituzten enplegu-programetan.

c) Genero-ikuspegia sartuko dute zuzenean edo zeharka kudeatzen duten lanbide heziketan.

38. artikulua.- Irisgarritasuna eta lan-baldintzak.

Emakumeek enplegua lortzeko eta haien lan-baldintzak hobetzeko, bereziki 3.1 artikuluaren azken tartekian aipatutako inguruabarrak dituzten emakumeena, arlo horretan eskumena duten euskal administrazio publikoek:

a) Genero-ikuspegia txertatuko dute enplegu-politika aktiboetan, bai eta genero-modulu espezifikoak ere beren prestakuntza-programetan.

b) Kontratazioa sustatzeko neurriak aurreikusten dituzten enpresentzako laguntzetan, ekintza positiboak ezarriko dituzte emakumeak

kontratatzeko emakume gutxiegi dauden lanbide eta sektoreetan, eta, bereziki, ekonomian estrategikoenak direla jotzen direnetan.

c) Emakumeentzako kalitateko enplegu egonkorra sustatzeko programak eta emakumeen kontratazioa bultzatzekoak garatuko dituzte, aukera ematen dutenak, alde batetik, kontratazio-modalitate desberdinetan emakumeek duten partaidetza-kuota handitzeko, eta, bestetik, enplegu prekarioa eta aldi baterako enplegua desagerrarazteko, horrelako enpleguak gehienbat emakumeek dituztela kontuan hartuta.

d) Eraketa-gastuak, aktiboen inbertsioak eta funtzionamendu-gastu orokorrak finantzatzeko laguntzak ematerakoan, sustatzaileen artean emakumeak gehiengoa diren enpresa-ekimenak lehenetsiko dituzte, bereziki emakumeen presentzia txikiegia duten lanbide eta sektoreetan eta ekonomiarako estrategikotzat jotzen direnetan.

e) Laguntza publikoak hartzen dituzten elkarren bermerako sozietateek sustatzaileen artean emakumeak gehiengoa diren enpresa-ekimenak eratzen edota finkatzen laguntzeko funts bereziak izatea sustatuko dute.

f) Beren eskumenen esparruan, zaintza-zerbitzuak (bereziki, etxeko zerbitzuak) ematearekin lotutako sektore profesionaletako lan-baldintzak hobetzea sustatuko dute, sektore horretan Lanaren Nazioarteko Erakundearen hitzarmenetan enpleguari buruz jasotako aurreikuspenak betetzeko.

39. artikulua.- Prestakuntza eta kudeaketa aurreratuko planak.

1.- Enpresen prestakuntza-planei laguntzak emateko deialdi publikoetan, erakundearen barruan emakumeen eta gizonen berdintasuna helburu duten prestakuntza-ekintzak lehenetsiko dira, bai eta emakumeen sustapen profesionala errazten dutenak ere.

2. Halaber, behar diren laguntza-zerbitzu eta -mekanismoak ezarri behar dira emakumeek —eta batez ere 3.1 artikuluaren azken tartekian aipatutako faktoreak dituzten emakumeek— prestakuntza-ekintzetan parte har dezaten bermatzeko, bai autoenpleguaren eta enpresak sortzearen eremuan, bai inoren konturako lanaren eremuan. Batez ere, emakume gutxiegi dagoen lanpostu eta mailetara –eta, bereziki, zuzendaritza-postuetara eta kalitatezko enpleguak dauden sektoreetara– iristeko gaikuntza ematen dien prestakuntza-ekintzetan.

3. Autonomia Erkidegoko Administrazioak kalitatearen eta kudeaketa aurreratuaren eremuan genero-ikuspegia txertatzea sustatuko du.

40. artikulua - Emakumeen eta gizonen berdintasunerako planak eta politikak.

1.- Gehienbat euskal erakunde publikoen partaidetza duten partzuergoek, fundazioek eta enpresek, kasu guztietan, eta 50 langiletik gorako enpresa pribatuek, Estatuaren araudiak ezarritako terminoetan, planak landuko dituzte, eta horietan neurri zehatz eta eraginkorrak jasoko dituzte, beren barne- funtzionamenduan eta kanpora begirako jardueran emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko, bai eta jarraipena eta ebaluazioa egiteko behar diren mekanismoak ere.

2. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak, erregelamenduz ezarritako moduan, laguntzak ezarri behar ditu emakumeen eta gizonen berdintasunerako diagnostikoak eta planak egiteko, gizarte-eragileak eta plan horiek egiten eta ezartzen parte hartzen duten beste pertsona batzuk formatzeko, eta adituak kontratatzeko, planak egiterakoan aholku eman dezaten. Enpresen artean lankidetza-sareak egotea ere sustatuko du, enpresek berdintasun- politiken garapena susta dezaten.

3. Sustapen ekonomikoaren eta enpleguaren arloko politiken esparruan, euskal administrazio publikoek laguntzak ezarri behar dituzte zeinahi sektore produktibotako enpresentzat, emakumeen eta gizonen berdintasunerako planetan jasotako neurriak gauzatu ditzaten, eta, bereziki, 41. artikuluaren arabera lankidetza-erakunde gisa aitortu diren enpresentzat.

4. Autonomia Erkidegoko Administrazioak, bere eskumen-eremuan eta Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskaritzarekin eta inplikatutako beste erakunde batzuekin elkarlanean, sustatu behar du planak eta beste neurri batzuk gara daitezela, lan-eremuan sexu-diskriminazioa prebenitu eta eragozteko eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko.

5. Bereziki, ordainsari-diskriminazioari dagokionez, neurri hauek garatuko dira:

a) Autonomia Erkidegoko Administrazioak, Laneko Ikuskaritzaren bidez, zerbitzu espezializatu bat sortuko du, eta plan eta kanpaina espezifikoak egingo ditu ordainsari-diskriminazioaren kontra, horretarako beharrezko diren giza baliabideak eta baliabide ekonomiko eta materialak gaituz.

b) Autonomia Erkidegoko Administrazioak erakunde publikoei, enpresei, sindikatuei eta, oro har, herritarrei baliabideak jarriko dizkie, ordainsari-diskriminazioaren kontra egiteko eta balio bereko lanari ordainsari berdina ematearen printzipioa orokortzeko; bereziki, gidalerroak, irizpideak eta metodologiak jarriko ditu, lanpostuak baloratu, sailkatu eta ebaluatzeko eta laneko sustapen ez-sexista egiteko, bai eta zerbitzu bat ere, informazio eta aholkularitza emateko eta kexak edo salaketak bideratzeko.

c) Erregelamenduz xedatzen den eran, euskal sektore publikoa osatzen duten erakundeek ordainsari-gardentasuna bermatu beharko dute, ordainsarien erregistro-liburuen edo egokitzat jotako beste formula batzuen bidez; halaber, b) letran aipatutako gidalerro, irizpide eta metodologiak aplikatu beharko dituzte, eta, behar denean, soldata edo ordainsarietan auditoretzak egin beharko dituzte.

d) Sektore pribatuari dagokionez, lege honen 2.4 eta 2.5 artikuluetan xedatutakoari kalterik egin gabe, euskal sektore publikoaren kontratuak edo dirulaguntzak eskuratzeko baldintza da emakumeen eta gizonen ordainsarien arloko gardentasun- eta berdintasun-printzipioa betetzea. Horretarako, euskal botere publikoek dagozkien berdintasun-klausulak sartuko dituzte, eta soldatak edo ordainsariak kontrolatzeko sistema egokiak ezarriko dituzte. Ordainsari-diskriminazioaren zantzuak hautematen badira, erakundeei epe bat emango zaie horiek justifikatu edo zuzentzeko, eta, egiten ez badute, zehapena edo kontratu- edo dirulaguntza-prozesuaren esparruan ebatzitako ondorioa ezarriko zaie. Ondorio hori izan liteke dirulaguntza galtzea edo kontratua suntsiaraztea eta jasotako dirua itzuli behar izatea.

e) Sektore pribatuko gainerako enpresei dagokienez, euskal administrazio publikoek ordainsari-gardentasuna sustatuko dute, eta b) letran aipatutako gidalerro, irizpide eta metodologien aplikazioa erraztuko dute, bai eta soldaten edo ordainsarien arloko autoebaluazioak eta auditoretzak egitea ere, ezertan eragotzi gabe Estatuaren legeriak gai horretan xedatzen duena.

41. artikulua.- Lankidetza-erakundeak.

Lan eta gizarte arloan aukera-berdintasunaren alde sor daitezkeen ekimenei bultzada emateko, Eusko Jaurlaritzak emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko lankidetza-erakundetzat aitor ditzake erakundean berdintasun-politikak garatzen dituzten erakundeak, betiere erregelamenduz ezarritako baldintzetan. Baldintza horien artean, gutxienez, berdintasunari buruzko diagnostiko bat eta jarduketa-plan bat egitea egongo da, bai eta plan hori exekutatzeko konpromisoa hartzea ere. Planean, lan-baldintzei eta enpleguaren kalitateari dagokienez emakumeen eta gizonen tratu-berdintasuna bermatzeko neurriak jaso beharko dira.

42. artikulua.- Negoziazio kolektiboa.

1.- Autonomia Erkidegoko Administrazioak, bere langileekin egindako negoziazio kolektiboan, enplegu publikoaren arloan emakumeen eta gizonen

berdintasuna sustatzeko neurriak planteatu behar ditu. Gizarte-eragileen arteko elkarrizketa ere sustatu behar du, sektore pribatuko negoziazio kolektiboan emakumeen eta gizonen presentzia orekatua izateko eta neurri-mota horiek ere txertatzeko, eta, bereziki, ordainsari-diskriminazioa ezabatzeko neurriak.

2.- Autonomia Erkidegoko Administrazioak, hitzarmen kolektiboen erregistroaren bitartez, zaindu behar du hitzarmenotan emakumeen eta gizonen berdintasunaren printzipioaren aurkako klausularik ez egotea, hizkera ez-sexista erabiltzea, eta sexu-jazarpena edo sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko eta horiei aurre egiteko neurri espezifikoak jasotzea. Horrekin batera, sexu-diskriminazioa kontrolatzeko eta desagerrarazteko ikuskapenak ere bultzatuko ditu.

43. artikulua.- Laneko osasuna eta segurtasuna.

1. Autonomia Erkidegoko Administrazioak laneko osasunaren eta segurtasunaren arloan genero-ikuspegia txertatzea sustatuko du. Horretarako:

   a) Sexuaren aldagaia eta beste aldagai batzuk hartuko ditu kontuan, generoaren analisia egin ahal izateko, bai datuak bildu eta tratatzeko sistemetan, bai laneko arriskuak prebenitzearen arloko azterlan eta ikerketetan.

   b) Lan-arriskuen prebentzioan diharduten gizarte-eragile eta kolektiboentzat, sentsibilizazio- eta prestakuntza-ekintzak bultzatuko ditu, laneko segurtasun eta osasunaren arloan genero-ikuspegia sartzeari buruz.

   c) Segurtasun- eta osasun-politikak, -estrategiak eta -programak diseinatzean, kontuan hartuko ditu emakumeen behar espezifikoak, ezaugarri anatomiko, fisiologiko eta psikosozialekin zerikusia dutenak, eta behar bezala lantzeko beharrezko neurriak ezarriko ditu.

2 Euskal administrazio publikoek, laneko osasuna babestu, sustatu eta hobetzerakoan, kontuan hartuko dute sexu-jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpena.

3 Ezertan eragotzi gabe delitu gisa tipifikatzea, lege honen ondorioetarako, laneko sexu-jazarpentzat hartuko da pertsona bati, berak nahi gabe eta bere sexua dela-eta, hitzez, hitzik gabe edo fisikoki edozein jokabide zuzentzea, horren helburua edo ondorioa bada pertsona horren duintasunaren kontra egitea edo beldurtzeko, apaltzeko, umiliatzeko, erasotzeko edo kontrako giro bat sortzea. Jokabide hori sexuala bada, sexu-jazarpentzat hartuko da.

4. Sexu-jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpena diziplinako falta oso astuna izango da euskal administrazio publikoetako funtzionarioentzat, lege honen 2.1 artikuluak Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 83.b artikuluarekin lotuta ezartzen duenarekin bat.

5.- Euskal botere publikoek ofizioz jardungo dute sexu-jazarpeneko edo sexuan oinarritutako jazarpeneko salaketen aurrean. Politika espezifikoak ere abiarazi behar dituzte beren langileentzat, laneko jazarpena prebenitzeko eta desagerrarazteko. Politika horietan, beste neurri batzuen artean, aurreikusita egon behar da arrisku psikosozialak ebaluatzea, prebentzio-neurriak hartzea eta jarduketa-protokoloak egin eta aplikatzea.

6.- Euskal administrazio publikoek, beren eskumen-eremuan, doako eta kalitatezko arreta integrala bermatu behar diete sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren biktimei, indarkeria-egoera horien ondorioz dituzten beharrei erantzuteko, titulu honen VII. kapituluan ezarritakoarekin bat etorriz.

## V. KAPITULUA.
## OINARRIZKO BESTE ESKUBIDE SOZIAL BATZUK

### 44. artikulua. Osasuna.

1. Euskal administrazio publikoek, beren osasun-politikak, -estrategiak eta -programak formulatu, garatu eta ebaluatzerakoan, kontuan hartuko dituzte emakumeek eta gizonek zer behar ezberdin dituzten eta zer neurri behar diren horiei ondo heltzeko, emakumeei eta gizonei osasunerako eskubide berbera bermatzeko. Horretarako, tratu- eta aukera-berdintasunaren printzipioa modu aktiboan barneratuko dute osasun-politikaren jardueretan eta helburuetan, eta emakumeen diferentzia biologikoengatik edo halakoekin zerikusia duten gizarte-estereotipoengatik haien artean diskriminazioak gertatzea saihestuko. Era berean, osasunaren arloan emakumeek eta gizonek dituzten diferentzien analisia, eztabaida eta kontzientziazioa sustatu behar ditu osasun-sisteman parte hartzen duten profesionalen, erabiltzaileen eta eragile sozialen artean, eta prestakuntza sustatu beren profesionalentzat.

2. Euskal administrazio publikoek, osasun-zerbitzuen eta kasuan kasuko organo eskudunen bidez, jarduera hauek egingo dituzte:

   a) a) Osasun-hezkuntzako ekintzetan, emakumeen osasuna espezifikoki sustatzeko eta emakumeen diskriminazioa prebenitzeko ekimenei modu sistematikoan ekitea.

   b) Ikerketa zientifikoa sustatzea. Ikerketak kontuan hartu behar ditu emakumeen eta gizonen arteko diferentziak, osasuna babesteko orduan,

bereziki, osasunbideetara jotzeari eta diagnostiko aldetik nahiz alde terapeutikotik eginbeharreko esfortzuari dagokienez, saiakuntza klinikoan nahiz sorospen-saiakuntzan.

3.- Euskal administrazio publikoek sexu- eta ugalketa-eskubideak baliatzearen ondoriozko beharrei erantzun behar diete, prebentzio- eta asistentzia-programen bidez. Programa horiek bideratuko dira, besteak beste, planifikazio sexuala erraztera eta onartuta dauden laguntza bidezko giza ugalketaren prestazioak bermatzera, diskriminaziorik egin gabe egoera zibila, sexu-orientazioa edo jatorria dela-eta, eta nahi gabeko haurdunaldiak eta sexu-transmisiozko gaixotasunak prebenitzera. Aipatutako programetan, eremu horietan gizonek duten papera kontua hartuko da, eta berariaz gizonentzat diren jarduerak jasoko dira.

4. Osasun-administrazioak, asistentzia-prozesuak diseinatzerakoan, Osasun Administrazioak neurriak hartu behar ditu osasun-arazoak dituzten pertsonak zaindu beharrak -ordaindu gabe eta gehienbat emakumeek zaindu ere-etxeetan eragiten duen karga arintzeko.

45. artikulua - Gizarteratzea.

1.- Euskal administrazio publikoek, modu integralean, behar diren neurriak hartuko dituzte pobreziak eta gizarte-bazterkeriak emakumeengan eragin handiagoa izatearen ondorioei aurre egiteko. Horretarako, alde batetik, genero-ikuspegia txertatuko dute pertsona guztiek oinarrizko eskubide sozialak baliatu ahal izatea bermatzea helburu duten sektore-programetan, eta bestetik, programa espezifikoak diseinatuko dituzte 3.1 artikuluaren azken tartekian aipatutako faktoreak dituzten emakume taldeentzat.

2. Euskal administrazio publikoek, beren politikak eta programak diseinatu eta ezartzerakoan, kontuan hartuko dituzte guraso bakarreko familiek dituzten behar espezifikoak, eta behar diren neurri juridiko eta ekonomikoak sustatuko dituzte inguruabar horiengatik prekaritate ekonomiko edo sozialean dauden pertsonen baldintzak hobetzeko. Horretarako, behar diren neurriak hartuko dituzte konpentsazio- eta mantenu-pentsioak ordaintzen ez diren egoerak saihesteko; osagarriak ezarriko dituzte alarguntza-pentsio txikienetarako; baliabide publikoak baliatzeko baremoak edo baldintzak egokituko dituzte, eta bestelako ekintza batzuk egingo dituzte, zenbait egoera prebenitu eta zuzentzeko, hala nola familia-mota horietako kideen artean pobreziak eta bazterkeriak eragin handiagoa izatea eta bizitza pertsonala, familiarra eta laborala uztartzeko zailtasun handiagoa izatea.

3. Euskal administrazio publikoek adineko emakumeen ongizatea eta gizarte-babesa zainduko dute, eta adineko emakumeek bizitza politikoan, ekonomikoan, sozialean eta kulturalean parte har dezaten sustatuko.

4.- Autonomia Erkidegoko Administrazioak plan bat prestatuko du prostituzioaren arloan jarduteko, gainerako administrazioekin eta eremu horretan lanean ari diren gizarte-taldeekin elkarlanean.

46. artikulua.- Ingurumena, lurralde antolamendua, hirigintza, etxebizitza, garraioa eta landa eremua.

1.- Euskal botere publikoek behar diren baliabideak jarriko dituzte berma dadin genero-ikuspegia txertatzen dela lurralde-antolamenduaren, hirigintzaren, garraioaren eta etxebizitzaren arloko politikak, arauak, planak eta programak diseinatzean, betearaztean eta ebaluatzean; besteak beste, gai hauek hartuko dira kontuan:

a) Mugikortasunari eta etxebizitza-, garraio- eta hirigintza-politikekin lotutako espazioak, azpiegiturak eta zerbitzuak erabiltzeari dagokionez, emakumeen eta gizonen beharrizan desberdinen ezagutza sustatzea, horretarako diagnostikoak, azterlanak eta sexuaren arabera bereizitako estatistika-datuen eta sektore horietako emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko adierazle espezifikoen eskuragarritasuna areagotuz eta hobetuz.

b) Emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabeko bizitza bat bermatzeko gune seguruak sustatzea.

c) Gizartean kohesionatuta dauden eremuak eta lurraldeak sustatzea, emakumeen eta gizonen bizi-kalitatea hobetzen laguntzeko eta zerbitzuak eta azpiegiturak berdintasun-baldintzetan eskuratzeko, bereziki kontuan hartuta 3.1. artikuluko azken tartekian aipatutako faktoreak betetzen dituzten emakumeen egoera.

d) Etxeko lanak eta pertsonak zaintzeko lanak egiten laguntzea eta bizitza pertsonala, familia eta lana erantzukidetasunez bateratzea, eta, oro har, ekoizpen- eta ugalketa-arloan sortutako beharrak kontuan hartzea, bizitzaren iraunkortasuna errazteko helburuarekin.

e) Sektoreko profesionalen berdintasun-arloko prestakuntza sustatzea.

f) Aipatutako politika eta programak diseinatzerakoan eta gauzatzerakoan gardentasuna eta emakumeen ikusgaitasun eta parte-hartze handiagoa sustatzea, bereziki 3.1 artikuluaren azken tartekian aipatutako faktoreak biltzen dituztenena.

2. Era berean, euskal botere publikoek, ingurumenaren arloan dituzten eskumenen esparruan, neurri hauek hartuko dituzte, besteak beste:

a) Ikerketa eta jakintza sustatuko dute, emakumeen eta gizonen errealitatea ezagutzeko baliabide naturalen kudeaketan, kontserbazioan zein erabileran eta paisaiaren antolamendu zein babesean, eta, ingurumena kudeatzeko politikei dagokienez, sexuaren arabera bereizitako informazio estatistikoa eta emakumeen eta gizonen berdintasunarekin lotutako adierazleak areagotu eta hobetuko dituzte.

b) Genero-ikuspegia integratuko dute ingurumen-hezkuntzan.

c) Ingurumenarekin lotuta sortzen ari diren sektoreetan emakumeen enplegua eta kalitatezko autoenplegua sustatuko dituzte.

d) Genero-ikuspegia txertatuko dute klima-aldaketa arintzeko eta horretara egokitzeko estrategiak ikertzean, aztertzean, diseinatzean eta abian jartzean, bai eta erabaki politiko eta teknikoak hartzean ere, eta fenomeno horren inpaktuak ikusaraziko dituzte.

e) Sektoreko profesionalen berdintasunaren arloan duten prestakuntza sustatuko dute.

f) Aipatutako politika eta programak diseinatzean eta gauzatzean gardentasuna eta emakumeen ikusgarritasun eta parte-hartze handiagoa sustatuko dute, bereziki 3.1 artikuluaren azken tartekian aipatutako faktoreak biltzen dituzten politikak eta programak diseinatzean eta gauzatzean.

3. Euskal administrazio publikoek, beren eskumen-eremuan, behar diren baldintzak sustatuko dituzte landa-ingurunean emakumeen eta gizonen benetako berdintasuna bermatzeko, eta emakume horiek dituzten oztopo gehigarriak kenduko dituzte, besteak beste, parte-hartzearekin, baliabideak lortzearekin eta esleitutako estereotipo eta rolekin lotutako oztopoak.

## VI. KAPITULUA.
## BIZITZA PERTSONALAREN, FAMILIAREN ETA LANAREN KONTZILIAZIO ERANTZUKIDEA.

### 47. artikulua.- Xedapen orokorra.

Lege honen ondorioetarako, kontziliazio erantzukidea pertsonen betebehar eta behar pertsonal, familiar eta profesionalei erantzuteko oreka justua bilatzera bideratutako neurrien multzoari dagokio, hain zuzen ere, gizonek, erakunde publikoek eta enpresek etxeko lanen eta ordaindu gabeko zaintzaren erantzukizun handiagoa hartzea sustatzen duten neurri guztiei, lan horren erantzukizuna batez ere emakumeei ematea saihesteko, eta egungo banaketa desorekatua zuzentzeko, emakumeek bizitzaren eremu guztietan pairatzen duten

desberdinkeria- eta diskriminazio-egoera estrukturalaren oinarria baita. Ildo horretatik, euskal administrazio publikoek bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzea erraztu behar dute. Horretarako, alderdi hauek sustatuko dituzte: etxeko lanetan eta ordaindu gabeko zaintza-lanetan gizonak erantzukide izatea; enplegu-egiturak bizitza pertsonalaren eta familiaren betebehar eta beharrizanetara egokitzea; zaintzen hornidura unibertsala eta publikoa izatea; prestazio ekonomikoak eta neurri fiskalak prestatzea; eta delako helbururako egoki iritzitako beste edozein neurri.

48. artikulua- Enpleguaren egiturak egokitzea eta kultura eta praktika enpresariala eraldatzea.

1.- Administrazio publikoetako langileen lan-baldintzak erregulatzen dituzten arauetan, lan-denbora eta lan-eremuak malgutzeko eta berrantolatzeko neurriak jaso behar dira, ezertan eragotzi gabe enpleguaren kalitatea, langileen eskubideak eta zerbitzu publikoa ematea; halaber, beste neurri-mota batzuk ere jaso behar dira, bide emango dutenak antolaketa aldatzeko eta kultura eta praktika enpresariala eraldatzeko, sustatu ahal izateko emakumeen eta gizonen berdintasuna, bizitza pertsonalaren, lanaren eta familiaren kontziliazioa, eta gizonen erantzukidetasuna etxeko lan eta zaintza-lanetarako.

2.- Euskal administrazio publikoek, beren eskumen-eremuan, bultzatuko dute enpresek lan-denbora eta lan-eremuak malgutu eta berrantolatu ditzaten, eta beste neurri batzuk har ditzaten, bide emango dutenak antolaketa aldatzeko eta kultura eta praktika enpresariala eraldatzeko, sustatu ahal izateko emakumeen eta gizonen berdintasuna, bizitza pertsonalaren, lanaren eta familiaren kontziliazioa, eta gizonen erantzukidetasuna etxeko lan eta zaintza-lanetarako.

3. Euskal botere publikoek gurasoentzako baimen berdin eta besterenezinak bermatuko dizkiete beren langileei seme-alaben jaiotza-, adopzio- edo harrera-kasuetan eta, beren eskumen-eremuan, sektore pribatuan baimen horiek aplikatzea sustatuko dute.

4. Autonomia Erkidegoko Administrazioak laguntzak emango dizkie etxeko beharrei erantzuteko eta seme-alabak edo mendekotasuna duten pertsonak zaintzeko eszedentziak, baimenak eta lanaldi-murrizketak hartzen dituzten langileei. Laguntza horiek erregulatzen dituzten arauetan, neurriak aurreikusi behar dira laguntza horiek baliatzen dituzten pertsonei lanera itzultzen laguntzeko eta kalterik ez izateko ez beren garapen profesionalean, ez lanaren ondorioz etorkizunean izango dituzten pentsioetan.

49. artikulua.- Zaintzen hornidura unibertsala eta publikoa.

1. Euskal botere publikoek zaintzen hornidura unibertsala eta publikoa sustatu behar dute, eta horretarako, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema eta zerbitzu eskuragarri, malgu, kalitatezko eta eskuraerrazak jarri behar dituzte, autonomia funtzional nahikoa ez izateagatik eguneroko jardunetarako beren kabuz baliatu ezin diren pertsonen zaintza-beharrizanei erantzuteko.

2. Autonomia Erkidegoko Administrazioak, gainerako administrazio eskudunekin lankidetzan, behar diren bitartekoak jarri behar ditu haurrentzako hezkuntza- eta asistentzia-arretarako zerbitzuak egotea bermatzeko. Zerbitzu horien bidez, eremu edo eskualde bakoitzean eskolatze-adina baino lehenagoko haurrek dituzten beharrizanei erantzun behar zaie, eta ordutegi eta egutegi zabal eta malguak eskaini behar dira.

3. Euskal administrazio publikoek, beren eskumen-eremuan, behar diren baliabideak ezarri behar dituzte Autonomia Sustatzeko eta Mendetasunaren Arretarako Sistemak bikain funtzionatzen duela bermatzeko, eta, horrela, daude arreta-premiei eta zaintza-eskariari behar bezala erantzuteko.

4. Hezkuntza Administrazioak, gainerako administrazio eskudunekin lankidetzan, jantoki-zerbitzu osoa dagoela bermatu behar du hezkuntzaren maila guztietan eta eskariaren arabera.

5. Euskal administrazio publikoek beharrezkoak diren bitartekoak jarri behar dituzte Haur eta Lehen Hezkuntzan, haurrei arreta osagarria eskain dakien curriculumetik kanpo, ezarrita dagoen eskola-ordutegia eta -egutegia zabalduta, emakumeei eta gizonei bizitza pertsonala, familia eta lana erantzukidetasunez kontziliatzen laguntzeko.

6. Euskal administrazio publikoek, haurrentzako hezkuntza- eta asistentzia-arretarako zerbitzuei, eguneko zentroei, egoitzei eta mendeko pertsonei arreta emateko gainerako zentro eta programei laguntzak emateko deialdietan, lehentasuna emango diete gainerako kalitate-irizpideak betetzeaz gainera ordutegi eta egutegi zabalak eta malguak dituztenei.

7. Euskal administrazio publikoek laguntzak ezarri behar dituzte emakumeek eta gizonek bizitza pertsonala, familia eta lana erantzukidetasunez kontziliatu ahal izateko zerbitzuak eskaintzea helburu duten enpresak sortzeko eta mantentzeko.

## VII. KAPITULUA.
## EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA MATXISTA

### 1. atala.
### Xedapen orokorrak.

50 artikulua.- Xedapen orokorrak

1. Euskal botere publikoek emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabeko bizitza bat bermatu behar dute.

2. Emakumeen kontrako indarkeria matxista giza eskubideen urraketa bat da, gizarte-arazo eta osasun publikoko arazo handi bat, botere-harreman ez-parekoen eta emakumeen kontrako diskriminazioaren erakusgarri argia, eta, horretaz gainera, generoaren arabera dauden desberdinkeria-egoera estrukturalak betikotzeko funtzio soziala du. Emakume izateagatik bakarrik emakumeen kontra –neskatilak eta nerabareak barne– eta emakume transexualen kontra baliatzen den indarkeria oro hartzen du, edo neurriz kanpo eragiten dien indarkeria, bai eremu publikoan, bai pribatuan. Indarkeria egintzaz zein omisioz egin daiteke, eta egiteko bitartekoak izan daitezke fisikoak, psikologikoak edo ekonomikoak, mehatxuak, larderia eta hertsapena barne, baldin eta horien ondorioa min, sufrimendu edo kalte fisikoa, sexuala, psikologikoa,soziala, sozioekonomikoa edo ondarearekin lotutakoa bada.

3. Emakumeen kontrako indarkeria matxista dira bikotekidearen edo bikotekide ohiaren kontrako indarkeria, familia-indarkeria, sexu-indarkeria, feminizidioa, emakumeen eta neskatilen salerosketa, sexu-esplotazioa, emakumeen genitalen mutilazioa, behartutako ezkontzak eta beste jardun tradizional kaltegarri batzuk, derrigortzea edo askatasuna arbitrarioki kentzea, tortura, jazarpena eta genero-indarkeria politikoa, eta emakumeen edo neskatilen duintasuna, segurtasuna edo askatasuna urratzen duen edo urra dezakeen beste edozein indarkeria-mota, baldin eta nazioarteko tratatuetan, Espainiako Zigor Kodean edo Estatuko edo Autonomia Erkidegoko araudietan jasota badago. Hori guztia, kontuan izan gabe alor publikoan edo pribatuan gertatzen den; horren barnean sartzen dira, besteak beste, eremu hauek: familia, lana, hezkuntza, osasuna, kirola, komunikabideak, aisialdi- edo jai-espazioak eta eremu birtuala.

4. Generoagatiko indarkeria-jarrerak zuzenean pairatzen dituzten emakume, nerabe eta neskatilez gainera, emakumearen kontrako indarkeriaren biktima dira haurrak, nerabeak eta mendeko beste pertsona batzuk, baldin eta indarkeria hori gauzatzen den ingurunean bizi badira eta, beren egoera ahula dela-eta, indarkeria horrek zuzenean eragin badiezaieke. Ildo horretan, erabaki judizial bidez eta behar diren bermeekin, eten egin ahal izango dira seme-alaben zaintza eta jagoletzarako eskubidea, bai eta haien egonaldi-, harreman- eta komunikazio-araubidea ere, baldin eta gurasoa prozedura judizial batean sartuta badago etxeko indarkeriagatik edo genero-indarkeriagatik, zigor-legerian aurreikusitako modalitateetako edozeinetan. Horretarako, aldatu egingo da familia-harremanei buruzko legeria, gurasoen banantze edo haustura kasuetan.

5. Erregelamenduz ezarriko dira eskubideak eta zerbitzuak eskuratu ahal izateko baldintzak. Zerbitzu horiez baliatzeko, ezingo da baldintza gisa jarri biktimek delitugilearen aurka lekukotza emateko edo lege-ekintzak baliatzeko borondatea izatea, ekintza judizialak gauzatzera bideratutako zerbitzuetan izan ezik.

6. Emakumeen kontrako indarkeria matxista prebenitu, konpondu eta desagerrarazi eta haren kontra egiteko xedea duten politikak berdintasun-politiken esparruan kokatu behar dira, eta euskal administrazio publikoetan emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko eskumena duten organoek, bakoitzak bere eskumen-eremuan, lidergoaz eta koordinazio orokorraz arduratu behar dute, ezertan eragotzi gabe zerikusia duten sistema eta politika sektorialetako organo arduradunei dagozkien lidergo eta koordinazio espezifikoagoak.

7. Lege honen 3. artikuluan jasotako printzipio orokorrekin batera, hauek dira emakumeen kontrako indarkeria matxistaren aurreko erantzuna arautzen duten printzipio gidariak:

   a) Giza eskubideen errespetua, babesa eta sustapena, genero-ikuspegitik eta ikuspegi feministatik abiatuta. Lege honen ondorioetarako, genero-harremanen ulermenean, emakumeen ahalduntzean eta biktimen eskubideak neurri guztien erdigunean jartzean oinarritutako esku-hartzea da hori, bigarren mailako biktimizazioa saihesteko, haren intimitatea, irudia eta bizitza pribatua babestuz, inplikatuta dauden erakunde publikoekiko harremanetan baimen aktiboa ematen dutela bermatuta, eta datu pertsonalak tratatzeko prozedura egokiak ezarrita.

   b) Ikuspegi sistemikoa, integrala eta integratua: emakumeen kontrako indarkeria matxista egiturazko arazo multidimentsionala delako oinarritik abiatu behar da, biktimen beharrak ugariak direla ulertuta eta horiek guztiak sektore ugariko esku-hartze publiko eta koordinatu baten esparruan kontuan hartuta.

   c) Prestasuna eta kontu-ematea: nazioarteko obligazioak bete behar dira zenbait gairi dagokionez (emakumeen kontrako indarkeria matxistaren arloko prebentzioa, babesa, laguntza, biktimagilearekiko jazarpena eta biktimaren erreparazioa), eta kontuak emateko mekanismoak ezarri, prestasun falta dagoenerako.

   d) Neskatila-mutikoen eta nerabeen interes gorena: haiei eragiten dieten indarkeria modu espezifikoak ikertu eta artatu behar dira, eta prebentzio-, detekzio-, babes- eta arreta-sistemak haien behar espezifikoetara egokitu.

## 2. atala.
## Ikerketa, sentsibilizazioa, prebentzioa eta prestakuntza

### 51. artikulua.- Datuen ikerketa, bilketa, erregistroa eta hedapena

1.- Euskal administrazio publikoek ikerketa sustatu behar dute, honako hauen gainean: indarkeriaren kausak, ezaugarriak, arazoa identifikatzeko zailtasunak eta ondorioak, eta osasunean eta bizitzaren eremu guztietan eskubideak baliatzerakoan duen inpaktua, emakumeen kontrako indarkeria matxistaren motak —eta batez ere neskatilen kontra baliatzen den indarkeriarenak—, eta indarkeria horiek desagerrarazteko eta horien ondorioak konpontzeko aplikatzen diren neurrien eraginkortasuna ere.

2.- Autonomia Erkidegoko Administrazioak, aldian behin, herritar guztientzako prospekzio-inkestak edo azterlanak egin edo babestu behar ditu, emakumeen kontrako indarkeria matxistaren adierazpenei buruzkoak, arazoaren neurria eta prebalentzia ezagutzeko, 3.1 artikuluaren azken tartekian aipatutako diskriminazio anizkoitzaren faktore eragileak kontuan hartuta.

3. Autonomia Erkidegoko Administrazioak bermatu egin behar du emakumeen kontrako indarkeria matxistari buruzko adierazleak sartzen direla osasun-inkestetan eta gizarte-zerbitzuen inkestetan.

4. Euskal administrazio publikoek, lege honen 62.1 artikuluan jasotako lankidetza-hitzarmenen esparruan, emakumeen kontrako indarkeria matxistaren adierazpenen kasuei buruz informazioa partekatzeko sistema elektroniko bat ezartzea sustatuko dute, osasunaren, hezkuntzaren, poliziaren, botere judizialaren edo gizartearen eremuetan dauden sistemekin koordinatuta. Guztiek bete behar dituzte datuen babesari buruzko legeriak xedatutakoa eta gai horri buruz Europako eta nazioarteko erakundeek ezarritako irizpideak.

5. Euskal Autonomia Erkidegoak, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen bidez, aldian behin, ebaluazio bat egingo du emakumeen kontrako indarkeria matxistaren arloan Euskal Autonomia Erkidegoan dauden baliabide eta programen eskuragarritasunari, irisgarritasunari eta kalitateari buruz; ebaluazio horren bidez, arreta-baliabideen mapa eguneratu bat izango da, horietara iristen ez diren edo iristeko zailtasunak dituzten emakume taldeak identifikatu ahal izateko eta, aldi berean, erabiltzaileen gogobetetasun-maila jakiteko eta estali gabeko beharrak identifikatzeko.

6. Aurreko bi puntuetan adierazitakoa betetze aldera, gainerako euskal administrazio publikoek beren mendeko baliabide eta zerbitzuei buruz eskuragarri duten informazioa jakinaraziko diote Emakunde-Emakumearen

Euskal Erakundeari, eta azken hori arduratuko da aldian behin datu estatistiko eta ebaluazio horien berri emateaz Eusko Legebiltzarrari, bai eta datu horiek ezagutzera emateaz ere.

7. Horretaz gainera, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak eskatutako informazioa helarazi behar dio organo eskudunari, Europako Kontseiluan emakumearen kontrako indarkeriaren eta etxeko indarkeriaren kontrako borrokarako dagoen aditu-taldeari igor diezaion (GREVIO, Europako Kontseilua).

52. artikulua. Sentsibilizazioa eta prebentzioa.

1. Kontuan izanik emakumeen kontrako indarkeria matxista emakumeen eta gizonen arteko desberdinkeriaren adierazpen ikusgai eta kaltegarrienetako bat dela, hura prebenitzeko, euskal administrazio publikoek lege honetan eta indarreko gainerako arauetan aurreikusitako berdintasunerako eta emakumeen ahalduntzerako neurri guztiak sustatuko eta modu eraginkorrean aplikatuko dituzte, eta, batez ere, hezkuntzaren eta hezkidetzaren sustapenaren eremukoak eta komunikabideen eremuko neurriak.

2. Ezertan eragotzi gabe lege honetan aurreikusitako gainerako prebentzio-neurriak, euskal administrazio publikoek, beren eskumen-eremuan, koordinaturik eta emakumeen kontrako indarkeria matxista ezabatzeko helburuarekin, sentsibilizazio-kanpainak egin behar dituzte emakumeen eta gizonen jokamolde soziokulturaletan aldaketak sustatzeko, eta, hartara, emakumeen gutxiagotasunaren eta mendekotasunaren ideian edo emakumeen eta gizonen rol estereotipatu batean oinarritutako aurreiritziak, ohiturak, tradizioak eta jardunak desagerrarazteko.

   Era berean, genero-desberdinkeriari aurre egiteko programak eta jarduerak egin behar dituzte, sentsibilizazio- eta prestakuntza-jarduerak barne, bereziki emakumeei zuzenduta, haien autonomia, kontzientziazio feminista eta ahalduntzea indartzeko, eta gizonei, berriz, maskulinitate matxista eta bortitzak deseraikitzeko, berdintasunaren aldeko eta indarkeria matxistaren aurkako eragile aktibo bihur daitezen.

   Bereziki sustatuko dira neskatilei eta nerabeei ahotsa ematen dieten haurtzaro eta gaztaroaren sustapen-programak eta jarduerak, eta adineko emakumeentzako programak eta zaurgarritasun bereziko faktoreak dituztenak.

3. Euskal administrazio publikoek prebentzio-neurriak hartu behar dituzte, alde batetik, emakumeen kontrako indarkeria matxistaren biktimak eta balizko biktimak dauden arrisku-egoerak hautemateko, eta, bestetik, oinarrizko informazioa herritarren eta, bereziki, emakumeen esku uzteko, arin eta erraz

lortzeko moduan, beren eskubideei buruz eta Euskal Autonomia Erkidegoan biktimei arreta integrala emateko eskuragarri dauden baliabideei buruz.

4. Era berean, euskal administrazio publikoek neurriak hartu behar dituzte emakumeen kontrako indarkeria baliatzen dutenei pertsonen arteko harremanetan indarkeriarik gabe nola jokatu erakutsiko dieten programak sortu edo babesteko; izan ere, indarkeria berriak prebenitu nahi dira, indarkeriazko jokabide-eskemak aldatu, eta delitu horien egileek delitua berriz ez egiteko berreziketa-programak sortu edo babestu, bai gazteentzat, bai helduentzat.

53. artikulua.- Prestakuntza.

1. Euskal administrazio publiko bakoitzak nahitaezko hasierako prestakuntza eta jarraitua bermatu behar die langile guztiei: politikak eta programak diseinatzen dituztenei eta emakumeen kontrako indarkeria matxistaren eremuko biktimak identifikatu, eta haiei arreta eta babesa ematen dietenei. Horretarako, euskal administrazio publikoetako langileen prestakuntzaren arloko eskumenak dituzten organoek diagnostikoak egin behar dituzte, emakumeen eta gizonen berdintasuneko organismo eta organo eskudunekin elkarlanean. Horiek aldian behin egingo dira, eta langileen prestakuntza-beharrei buruzkoak izango dira, prestakuntza profesionalen beharren araberakoa izan dadin.

2. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen bidez, sektoreetako profesionalentzako prestakuntza-tresnak eta trukerako espazioak sustatu behar ditu, emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako esku-hartzeetako baterako ikaskuntza eta ikuspegi partekatua sustatzeko, non biktimen ahalduntzea izango baita helburu eta esku-hartze ardatz nagusi.

3. Autonomia Erkidegoko Administrazioak lagundu egingo du, bere eskumen-eremuan, emakumeen kontrako indarkeria matxistaren arloko prestakuntza ematen epaileei, fiskalei, justizia-administrazioko langileei (espetxe eta adingabeen zentroetakoei ere bai) eta gainerako eragile juridikoei.

4. Euskal administrazio publikoek bermatu egin behar dute haurtzaroaren eta gaztaroaren eremuan lan egiten dutenek prestakuntza egokia izan dezaten, emakumeen kontrako indarkeria matxistaren forma espezifikoak, haur eta gazteei eragiten dietenak, hautemateko eta artatzeko; bereziki, sexu-indarkeria, familiaren eremuan edo hurbileko ingurunean.

5. Euskal administrazio publikoek halaber lagundu behar dute entitate pribatuetako langileek prestakuntza izan dezaten, betiere entitate horien lan-eremua baldin bada emakumeen kontrako indarkeria matxista prebenitu eta

ezabatzea, biktimei laguntza eta babesa ematea, eta delitu horien egileek berriz ere delitu hori egin dezaten prebenitzea.

6. Euskal herri-administrazioek baldintzatzat eskatuko dute berdintasunaren eta indarkeria matxista desagerraraztearen arloko prestakuntza, emakumeen kontrako indarkeria matxistaren biktimentzako zerbitzu espezifikoak emateko eta horri lotutako lanpostuak betetzeko.

7. Aurreko apartatuetan aipatutako prestakuntzan, giza eskubideen, generoaren eta feminismoaren ikuspegian eta ikuspegi intersekzionalean oinarrituta garatu behar dira.

## 3. atala.
## Detekzioa, arreta, koordinazioa eta erreparazioa

### 54 artikulua.- Xedapen orokorrak

1. Euskal administrazio publikoek bermatu behar dute emakumeen kontrako indarkeria matxistaren arloko detekzio-, arreta- eta erreparazio-jarduketak egiterakoan ez dela berriz biktimizatuko eta neurri guztien ardatzean biktimen eskubideak eta ahalduntzea jarriko direla, eta, bereziki, lege honen 3.1 artikuluaren azken paragrafoan aipatutako diskriminazio anizkoitzaren faktore eragileak izateagatik ahultasun-egoera handiagoan dauden pertsonenak.

2. Euskal administrazio publikoek, beren eskumen-eremuan, bermatu behar dute emakumeen kontrako indarkeria matxistaren biktima orok lehentasunezko arreta, integrala, doakoa eta kalitatekoa jasotzeko duen eskubidea, gaikuntza espezifikoa duten profesionalen eskutik eta indarkeria-egoeraren ondoriozko edo horrekin lotutako beharrei moldatua, diskriminaziorik egin gabe, edozein delarik ere beren egoera pertsonala, soziala edo administratiboa eta prozedura judizialean duten parte-hartze edo elkarlan-maila. Horretarako, espedienteen kudeaketa integrala eta koordinatua izan dadin zainduko da, erregelamenduz ezarriko diren terminoetan, eta, datu pertsonalak tratatzerakoan, biktimen baimen informatu aktiboa eta prozedura-arintasuna bermatuko da.

3. Eskubide horretan sartzen da biktima guztiek informazio eta orientazio egokia eta eskuraerraza izan dezatela, ulertzen duten hizkuntza batean eta argiro, dituzten eskubideei eta dauden baliabideei buruz; eta artatuak izan daitezela osasun fisiko eta mentalaren arloan eta beste zenbait arlotan duten beharrei dagokienez (segurtasuna, arlo ekonomikoa, aldi baterako bizileku segurua, etxebizitza, hezkuntza eta arlo soziala), lege honetan eta hori garatzeko arauetan aurreikusitako terminoetan.

4. Euskal herri-administrazioek emakumeen kontrako indarkeria matxistaren biktimak lehentasunez artatzeko kolektibotzat hartu behar dituzte, arreta-prozesuan egokitzat jotzen diren plaza eta zerbitzu publiko eta itunduetarako sarbidean.

5. Euskal administrazio publiko eskudunek, sistema edukatibo, sanitario, polizial, judizial, laboral eta sozialetako plan estrategiko guztietan sartu behar dute lehentasunezko helburua, esan nahi baita emakumeen kontrako indarkeria matxista ezabatzea eta biktimei arreta egokia ematea, dimentsio estrukturala kontuan hartuta.

6. Euskal administrazio publikoek bermatu behar dute eremu edukatibo, sanitario, polizial, judizial, laboral eta sozialeko profesionalek modu proaktibo eta koordinatuan jarduten dutela emakumeen kontrako indarkeria matxistaren kasu ez-esplizitatuak hautemateko eta behar bezala bideratzeko. Horretarako, protokoloak egotea eta aplikatzea bermatu behar dute; hain zuzen ere, inplikatutako erakundeek koordinatuta egindako protokoloak, adierazleak eta jardute-irizpideak dituztenak.

7. Euskal administrazio publikoek bermatu behar dute emakumeen kontrako indarkeria matxistaren biktimen arretan parte hartzen duten eremuetako profesionalek badituztela nahikoa denbora, behar diren prestakuntza- eta babes-baliabideak eta espazio fisiko egokiak, bai eta biktimen arrisku-egoera baloratzeko irizpideak ere, inplikatutako erakundeek modu koordinatuan eginak, ezertan eragotzi gabe eremu polizialean arriskua baloratzeko dauden sistemak.

8. Euskal administrazio publikoek talde-prozesuak sustatuko dituzte emakumeen errekuperazio, ahalduntze eta sendotzerako, eta emakumeen kontrako indarkeria matxistaren arloan komunikazioa eta elkarlana sustatuko dute berdintasunaren aldeko emakume-elkarte, talde feminista, ahalduntze-eskola eta emakumeen etxeekin batera.

55. artikulua.- Arreta sanitarioa

1. Euskadiko Osasun Sistemak emakumeen kontrako edozein indarkeria-motaren biktima guztiei bermatu behar die osasuna babesteko eta osasun-arreta izateko duten eskubidea, arauz aitortua; barnean sartzen da indarkeria-egoerak detektatzea eta biktimen egoerari jarraipena egitea, guztiz oneratzen den arte, jasandako indarkeriatik datozen ondorioei edo sintomatologiari dagokienez, edozein dela ere biktimaren administrazio-egoera.

2. Osasun-sistema publikoak arreta espezifikoa eta espezializatua bermatuko die indarkeria matxistaren biktima izan diren emakumeei, eta, batez ere, gaixotasun mentalak, nortasun-nahasmenduak eta adikzioak dituztenei.

3. Euskadiko Osasun Sistemak arreta psikologiko espezializatua bermatuko die emakumeen kontrako indarkeria matxistaren biktima izan diren guztiei, arlo soziosanitarioan eta genero-ikuspegian oinarrituta.

4. Euskadiko Osasun Sistemak bitartekoak jarriko ditu ospitaleko larrialdi-zerbitzu guztietan langile espezializatuak egongo daitezen, bortxaketen edo beste sexu-indarkeria batzuen biktimei azterketa mediko eta forentse egokia egiteko, traumatismoarekin lotutako laguntza emateko, orientatzeko eta dagozkien baliabideetara bideratzeko. Forentseak ospitale-zerbitzu horietara joan beharko dira, kontuan izan gabe biktimak delituaren egilearen aurkako legezko ekintzak abiarazteko hasierako borondatea izan duen. 55.4. artikuluan aipamen bat txertatu da, hau zehazteko: “beharrezkoa balitz, 62. artikuluan aipatutako erakunde arteko hitzarmenaren markoko protokoloak egokituko dira.

56. artikulua.- Arreta soziala

1.- Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema osatzen duten euskal administrazio publikoek, gizarte-zerbitzuei buruzko legedian aurreikusitako eskumen-araubidearen arabera, emakumeen kontrako indarkeria matxistaren biktima guztiei bermatu behar diete sistema horren katalogoan eta prestazio eta zerbitzuen zorroan jasotako zerbitzuak emango dituztela, beren beharren arabera eta berehala.

2.- Zehazki, honako hauek bermatuko dituzte: urrutiko informazio- eta arreta-zerbitzuak, telefonoz eta telematikoki, 24 orduz eta urteko egun guztietan eskuragarri; larrialdiko arreta; harrera, epe labur, ertain eta luzera; aholkularitza soziojuridikoa; arreta psikosoziala; gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzea eta gizarte-laguntza. Halaber, behar diren neurriak hartuko dituzte ziurtatzeko emakumeen kontrako indarkeria matxistaren biktimei lehentasuna emango zaiela Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazioen eta zerbitzuen zorroko gainerako zerbitzuetan.

3.- Foru-administrazioek eta Autonomia Erkidegoko Administrazioak, zorroko prestazio eta zerbitzuen bidez eta, hala badagokio, izaera esperimentaleko beste prestazio eta zerbitzu batzuen bidez, honako hauek bermatuko dituzte:

a) Arreta espezializatuko zerbitzuak, nola emakumeen kontrako indarkeria matxista zuzenean pairatzen duten neskatila eta emakumezko nerabeentzat, hala indarkeria hori gauzatu den ingurune batean bizi diren neskatila-mutikoentzat eta nerabeentzat eta emakumeen kargura dagoen

beste edonorentzat. Hildako biktimen seme-alabentzako babesa eta laguntza indartuko dira, haien egoera bereziki ahula dela-eta, eta protokoloak ezarriko dira kasu horietan.

b) Emakumeen kontrako indarkeria matxistaren biktimen senide eta lagunei segurtasuna eta babes soziala eta psikologikoa emateko neurriak, hala eskatzen badute.

4.- Euskal administrazio publiko eskudunek bermatuko dute indarkeria matxistaren biktimek jaso ditzaketen Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuek –herritar guztiei zuzendutakoak eta espezifikoak– arreta jarraitua osatzen dutela, gizarte-zerbitzuei buruzko legerian zehaztutako ikuspegi komunitarioarekin koherentea. Horretarako, arretaren izaera prebentiboa, integrala, pertsonalizatua, hurbila, parte-hartzailea eta deszentralizatua indartuko duten neurriak hartuko dituzte.

5.- Euskal administrazio publikoek, nork bere eskumen-eremuan, koordinazio-guneak sustatuko dituzte gizarte zerbitzuen eremuan eta emakumeen eta gizonen berdintasunaren eremuan eskumenak dituzten organoen artean, errazago izan dadin arreta-ereduak elkarrekin definitzea, esku-hartzean genero-ikuspegia sartzea eta lankidetza-mekanismo egonkorrak sortzea, arreta hobetze aldera.

57. artikulua.- Prestazio ekonomikoak.

1.- Lege honetako azken xedapenetatik zazpigarrenean ezarritakoarekin bat, batetik, emakumeen kontrako indarkeria matxistaren biktimak salbuetsita daude diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko legez ezarrita dagoen gutxieneko adin-mugaren aplikaziotik, eta bestetik, emakumeen kontrako indarkeria matxistaren egoera bat dela-eta ohiko etxebizitza utzi behar duten eta beste pertsona batzuenean sartzen diren pertsonek diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko eskubidea daukate, harrera egin dietenak senitartekoak izan ala ez, baldin eta errenta hori jasotzeko eskatzen diren beste betekizunak betetzen badituzte.

2.- Halaber, eta pertsona horiek ekonomikoki autonomoak izatea eta bizitza normalizatura itzultzea bultzatzearren, aldi baterako harrera-pisuetan edo -zentroetan babestuta dauden emakumeen kontrako indarkeria matxistaren biktimek oinarrizko errenta jasotzeko eskubidea izango dute, baldin eta errenta hori jasotzeko eskatzen diren beste betekizunak betetzen badituzte, nahiz eta pertsona horien oinarrizko mantenua pisu edo zentro horiek bete.

3.- Gizarte-zerbitzuek aurrekontu-partida bat izango dute urgentziako prestazio ekonomikoetarako. Prestazio horien helburua, hain zuzen ere, emakumeen kontrako indarkeria matxistaren biktimek bizirik irauteko dituzten oinarrizko

beharrizanei berehala erantzutea da, biktima horiek eskubidez jaso ditzaketen gainerako prestazio ekonomikoak ematea tramitatzen den bitartean.

4. Lor ditzaketen prestazio ekonomiko orokorrez gainera (eta lehentasunezko kolektibotzat hartuko dira prestazio horiek lortzeko), euskal administrazio publikoek emakumeen kontrako indarkeria matxistaren biktimei ondoren zehazten diren laguntza ekonomiko espezifikoetarako sarbidea bermatu behar diete; horretarako, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemari eta Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko EAEko Sistemari buruzko arauak eta prestazioak egokitu beharko dituzte, behar izanez gero.

   a) Ordainketa bakarreko laguntzak, baliabide ekonomiko nahikoa ez dutela eta enplegua lortzeko zailtasun bereziak dituztela frogatzen duten biktimentzat, aplikatzekoa den Estatuko oinarrizko legeriaren esparruan.

   b) Emakumeen kontrako indarkeria matxistaren biktimen seme-alaba umezurtzentzako laguntza ekonomikoa.

   c) Aparteko laguntzak, premia pertsonaleko egoerak arintzeko —ebaluagarriak eta egiaztagarriak badira—, betiere organo eskudunek ikusten badute laguntza arruntik ez dagoela edo laguntza horren zenbatekoa ez dela nahikoa.

### 58. artikulua.- Etxebizitza, gizarteratzea eta laneratzea eta hezkuntza

1. Euskal administrazio publikoek, funts publikoekin finantzatutako etxebizitzetarako sarbidean, bermatu egin behar dute lehentasuna emango zaiela emakumeen kontrako edonolako indarkeria matxista pairatzen duten biktimei, baldin eta indarkeriaren ondorioz prekaritate ekonomikoan badaude edo etxebizitza bat izatea beharrezkoa denean haien errekuperaziorako. Horretarako, elkarren artean koordinatuko dira, eta baldintzen salbuespenak, erreserbak, zuzeneko esleipenak edo bestelako neurri batzuk ezarriko dituzte —erregelamendu-garapen bidez zehaztuta—; horietan, kontuan hartuko dira desgaitasuna duten biktimen irisgarritasun-beharrizanak eta 65 urtetik gorako emakumeek etxebizitzak egokitzeko dituzten beharrizanak.

2. Erregelamenduz zehaztuko diren baldintzetan, emakumeen kontrako indarkeria matxistaren biktimek lehentasuna izango dute orientazio soziolaboralerako baliabide publikoetan. Lehentasunezko eskubidea izango dute, baita ere, beren profiletara egokitzen diren eta erabat edo partzialki euskal administrazio publikoetako funtsekin finantzatuta dauden enplegurako prestakuntza-ikastaroak egiteko; horretarako, kupoak edo beste neurri batzuk ezarriko dira.

3. Euskal administrazio publikoek emakumeen kontrako indarkeria matxistaren biktimak lanerako kontratatzea eta langile autonomo edo kooperatibako bazkide izatea sustatu behar dute, erregelamenduz ezarriko diren baldintzetan.

4. Erregelamenduz ezarriko diren baldintzetan, euskal administrazio publikoek emakumeen kontrako indarkeria matxistaren biktimak lehentasunezko kolektibotzat hartuko dituzte egoitza publikoetako plazetara sartzeko, baldin eta desgaitasunen bat badute edo 65 urtetik gorakoak badira eta prekaritate ekonomikoan badaude.

5. Hezkuntza Administrazioak bermatu behar du emakumeen kontrako indarkeria matxistaren biktimek lehentasunezko tratua izango dutela, aldi baterako bada ere, erabat edo partzialki euskal administrazio publikoetako funtsekin finantzatuta dauden haur-eskoletan sartzeko eta hezkuntzaren eremuan dauden beka eta bestelako laguntza eta zerbitzu batzuk lortzeko.

6. Hezkuntza Administrazioak halaber bermatu behar du trantsizioa behar bezala egiten dela eta umeak behar bezala eskolatzen direla, biktimen seme-alabak indarkeria-ingurunea utzita beste norabait eraman behar direnean eta beste ikastetxe batean eskolatu behar direnean.

7. Aurreko lau apartatuetan aipatutakoaren ondorioetarako, kontuan izan beharko dira behar espezifiko posibleak, hala nola bizitza pertsonalaren, familiaren eta lanaren kontziliazioarekin lotutakoak.

59. artikulua.- Arreta poliziala

Autonomia Erkidegoko Administrazioak eta Euskadiko udalerrietako toki-administrazioek bermatu behar dute, Euskadiko Segurtasun Sistema Publikoaren bidez, emakumeen kontrako indarkeria matxistaren arloan ematen duten arreta lehentasunezkoa, eraginkorra eta kalitatekoa dela. Horretarako, beste neurri batzuen artean, hau egin behar dute:

a) Larrialdietako zerbitzua bermatu, telefonoz eta bide telematikoz, eguneko 24 orduetan eta urteko egun guztietan, biktimei babes poliziala eta berehalako laguntza emateko. Zerbitzu hori Eusko Jaurlaritzan herritarrak babesteko eskumenak dituen sailak kudeatuko du autonomia-lurralde osorako.

b) Biktimei informazioa eman, ulertzen duten hizkuntza batean eta argiro, jakin dezaten zer eskubide dituzten, zer baliabide erabil ditzaketen eta zer ondorio dakarren salaketa aurkezteak.

c) Polizia-kidego desberdin arteko koordinazioa eta lankidetza bermatu, bai eta horien eta gainerako arreta-zerbitzuen artean ere, biktimei arreta egokia ematen zaiela bermatzen duen informazioa trukatzeko eta biktimizazioa areagotzen duten jarduerak —bereziki, esku-hartzeak bikoiztea edo errepikatzea— saihesteko.

d) Arriskua baloratzeko sistemak izan, kasu zehatz bakoitzean aukera emango dietenak parte hartzen duten gainerako zerbitzuei arrisku-maila eta ezarritako babes-neurriak ezagutzeko, eta, hala badagokio, xede horretarako erabilgarri izan daitekeen informazioa emateko.

e) Gune fisiko egokiak prestatu polizia-bulegoetan, konfidentzialtasuna eta biktimaren eta biktimagilearen arteko bereizketa osoa bermatzeko, eta biktimen edo adingabe laguntzaileen premien arabera bereziki diseinatuta egon daitezen.

f) Biktima guztientzat erabateko irisgarritasuna bermatu, egoera bakoitzeko behar espezifikoetara egokituta eta desgaitasunen bat duten biktimei eta iristeko zailak diren landa-eremuetan bizi direnei salaketa jartzea errazteko behar diren baliabideak abian jarrita, behar izanez gero polizia-bulegoetara joan beharrik gabe dauden tokian bertan salaketa jartzeko aukera ere emanez.

g) Emakumeen kontrako indarkeria matxistaren mota guztietako kasuak ikertzeko, jarduteko eta baloratzeko protokolo polizialak aldika eguneratu, kontuan hartuta genero-ikuspegia eta intersekzionalitatea, eta adituei, biktimei eta haiekin lan egiten duten emakume-taldeei kontsulta eginez.

60. artikulua. Justiziarako sarbidea

1. Autonomia Erkidegoko Administrazioak bermatu behar du Euskal Autonomia Erkidegoaren mendeko epaitegietako profesionalek lehentasunezko eta kalitatezko arreta eraginkorra ematen dietela biktimei; besteak beste, neurri hauen bidez:

   a) Biktimaren Arreta Zerbitzuak, epaitegietako lantalde psikosozialak eta Emakumearen Aurkako Indarkeriaren arloko Koordinazio Zentroak behar beste langile izatea eta gaituta egotea.

   b) Itxarote-denborak murriztea eta biktimentzako segurtasun-neurriak hartzea epaitegian eta akusatutako ikertuarekin konfrontaziorik ez izatea; horretarako, lege honetan aurreikusitako inguruarekin eta teknologiarekin

lotutako ekipamenduak ezarriko dira emakumeen kontrako indarkeriaren epaitegietan eta emakumeen kontrako indarkeria matxistaren kasuak argitzen diren beste organo jurisdikzionaletan.

c) Baliabide pertsonal eta materialak xedatzea Euskal Autonomia Erkidegoko epaitegi eta auzitegietako balorazio forentse integraleko unitateei, beren lana eraginkortasunez egin ahal izan dezaten, peritu-proba psikologikoak barne, erabilitako indarkeriaren existentzia eta larritasuna egiaztatu ahal izateko beharrezkotzat jotzen direnean.

d) Beharrezko diren bitartekoak egituratzea, bermatzeko biktimei jakinarazi egiten zaiela delitugilea espetxetik irten dela, hala aldi baterako nola behin betiko.

2. Autonomia Erkidegoko Administrazioak honako hauek bermatu behar ditu:

a) Biktimentzako lege-laguntza emateko guardia-txandak, bermatzeko eguneko 24 orduetan badagoela, gutxienez, guardiako letradu bat barruti judizial bakoitzean, emakumeen kontrako indarkeria matxistan espezializatua.

b) Berehalako lege-laguntza espezializatua, bakarra eta integrala izateko eskubidea emakumeen kontrako indarkeria matxistaren biktimentzat, hasierako eta etengabeko prestakuntza nahitaezkoa jaso duten letraduen eskutik. Horren barne sartuko da salaketa-ekintza gauzatzea zigor-arloko prozesuetan, eta behin-behineko neurriak eskatzea banaketa-, deuseztasun- edo dibortzio- demanda zibilen aurretik, edo kautela-neurriak, izatezko bikoteen kasuan.

c) Jarraipena egiteko eta kontu emateko bitarteko egokiak egotea.

d) Komunikazio-sistemak eta informazio juridikoa lotzeko bideak egokitzea edo malgutzea, desgaitasuna duten pertsonak egoera horietan zaurgarri izan ez daitezen.

61. artikulua.- Erreparaziorako eskubidea.

1. Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumenen esparruan, emakumeen kontrako indarkeria matxistaren biktimei Istanbulgo Hitzarmenean aitortutako erreparaziorako eskubidea gauzatze aldera, eta kasu horietan emandako laguntza guztia ikuspegi erreparatzaileti k egin behar dela alde batera utzi gabe, euskal botere publikoek honako ekintza hauek garatuko dituzte:

2.

a) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak biktimei laguntzeko edo laguntza ekonomikoa emateko neurriak hartuko ditu ebazpen judizial

bidez ezarritako delituaren ondoriozko kalte-ordainak ordaintzen ez diren kasuetan.

b) Egiaren aitortza, indarkeria errefusatzeko ekintza publikoen bidez aitortuz eta haiei ahotsa emanez.

c) Delitua berriz ez gertatzeko neurriak, arreta kaltegilearengan jarrita.

d) Guztiz oneratzeko neurriak, dagozkion arreta-baliabide publikoen bidez.

3. Dagozkion arau eta jarduketen bidez garatuko dira artikulu honetan aipatutako ekintzak.

62. artikulua - Erakundearteko koordinazioa

1.- Autonomia Erkidegoko Administrazioak, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen bitartez, gai honetan eskumenak dituzten gainerako euskal administrazio publikoekin erakundearteko lankidetza-akordioak eguneratzea sustatuko du; izan ere, horrela ahalbidetuko da emakumeen kontrako indarkeria matxistaren kasuak goiz detektatzea, horrelako kasuetan erantzuna koordinatua eta eraginkorra izatea, eta biktimei laguntza integrala eta kalitatezkoa bermatzea. Gai honetan eskumenak dituzten gainerako erakundeekin ere lankidetzarako bideak bilatu behar dira.

2.- Lankidetza-akordio horietan, jarduketa-irizpideak edo -protokoloak finkatuko dira, Erkidego osorako homogeneoak, horrelako kasuetan diharduten profesionalentzat. Akordioetan, mekanismo batzuk ere ezarriko dira, aldeek hartutako konpromisoak nola betetzen ari diren aztertzeko eta ebaluatzeko, barne direla erakundeek horrelako kasuetan ematen duten erantzuna hobetzeko planteatzen diren kexa eta iradokizunak bideratu eta horiei erantzun egokia emateko bideak.

3.- Foru- eta toki-administrazioek beren lurralde-eremuan lankidetza-akordioak eta jarduketa-protokoloak ezartzea sustatuko dute, aurreko bi paragrafoetan aipatutako akordio eta protokoloak garatzeko, zehazteko eta beren errealitateetara egokitzeko; horietan, proaktiboki parte hartu behar dute inplikatuta dauden arreta-sistema guztiek.

## VIII. KAPITULUA
## BERDINTASUNAREN ETA SEXU-DISKRIMINAZIO EZAREN PRINTZIPIOA DEFENDATZEA SEKTORE PRIBATUAN

### 1. atala.
### Xedapen orokorrak.

63. artikulua.- Atxikipena.

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeari dagokio Euskal Autonomia Erkidegoan sexu-diskriminazioaren egoeretan herritarrak babestea eta emakumeen eta gizonen tratu-berdintasunaren printzipioa betetzen dela sustatzea.

64. artikulua.- Funtzioak.

Aurreko artikuluan xedatutakoa betetzeko, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak funtzio hauek izango ditu:

a) Ikerketak egitea, ofizioz edo alderen batek eskaturik, sektore pribatuan ustez gertatutako sexuagatiko zuzeneko edo zeharkako diskriminazio-egoerak argitzeko.

b) Pertsona fisikoei eta juridikoei negoziazio-bideak eskaintzea eta gomendioak ematea, sektore pribatuan sexu-diskriminazioaren egoerak edo praktikak konpontzeko, eta gomendio horiek nola betetzen diren aztertzea.

c) Herritarrei aholku ematea, sektore pribatuan sexu-diskriminazioaren egoerak egon daitezkeenean.

d) Sexu-jazarpeneko eta sexuan oinarritutako jazarpeneko kasuen konponbidea errazteko tresna izatea.

e) Egiten dituen jarduerak eta ikerketak zabaltzea, eta lege honetan xedatutakoaren araberako txostenak eta irizpenak ematea.

f) Lan-arloko agintaritzarekin lankidetzan jardutea, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan diskriminazioaren aurkako lan-arauak nola betetzen diren aztertzeko.

65. artikulua - Mugak.

1.- Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak ez du bana-banako azterketarik egingo pertsonen intimitateari dagozkion kexetan, ez eta jada epai irmo bidez erabaki direnetan edo epaileak oraindik ebazteke dituenetan ere. Era berean, jarduketa bertan behera utzi beharko du, baldin eta, jarduketa hasi ondoren, interesdunak auzitegi arruntetan edo Konstituzio Auzitegian salaketa edo errekurtsoa aurkezten badu.

2.- Egindako ikerketa-lanak, betiere, ustez diskriminazioa eragin duten jarrera edo gertakariei zuzenean lotuta egongo dira, eta gertatutakoa argitzeko balio izan dezaketen lanak baino ez dira egingo.

3.- Nolanahi ere, egiten dituen ikerketak zuhurtzia zorrotzenaz egin beharko dira, egokitzat jotzen dituen oharrak bere txostenetan jaso ahal izango dituen arren.

66. artikulua. Laguntzeko betebeharra.

Ikertzen diren pertsona fisiko eta juridiko guztien betebeharra da Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen lana erraztea. Horretarako, gertatutakoa argitzeko beharrezkoak diren datu, agiri, txosten eta azalpenak eman beharko dituzte, zentzuzko epe baten barruan, eta, aldez aurreko abisua izanda, pertsona horiek beren egoitzetan sartzen ere utziko dute, bizilekua denean salbu, esanbidezko baimena lortu beharko baita haien bizilekuan sartu ahal izateko.

2. atala.
Funtzionamendua. Ikerketa-prozedura.

67. artikulua.- Hasiera.

1.- Sexu-diskriminazioa jasaten duela uste duen edozein pertsonak edo pertsona taldek, edo horiek modu legitimoan ordezkatzen dituztenek, kexa aurkez dezakete Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundean.

2.- Beren helburuen artean emakumeen eta gizonen tratu-berdintasunaren printzipioa betetzen dela zaintzea duten elkarte, erakunde eta beste pertsona juridiko batzuk legitimatuta daude prozedura hasi edo bertan parte hartzeko, bere burua diskriminatutzat hartzen duen pertsonaren izenean edo hari lagunduz, pertsona horren baimena baldin badute.

3.- Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundera jotzeko ezin da oztopo izan pertsonaren nazionalitatea, bizilekua, adina eta legezko ezgaitasuna.

4.- Kexa idatziz edo hitzez aurkez daiteke, eta arrazoiak eman behar dira, beti.

5. Prozedura hasi baino lehen, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak informazio edo aurretiazko jarduketen aldi bat has dezake kasu bakoitzaren inguruabarrak ezagutzeko eta horren onargarritasunari buruz erabakitzeko.

6.- Ez da kexarik onartuko, honako inguruabarretako bat gertatzen bada:

a) Legitimazio aktiborik ez izatea, artikulu honetako 1. apartatuan ezarritakoaren arabera.

b) Urtebeteko epea igaro izatea kexa eragin zuten jokabidea edo gertakariak amaitu zirenetik.

c) Kexa aurkeztu duenak nor den ez adieraztea.

d) Fede txarrez jokatzea edo prozedura neurri gabe erabiltzea. Kasu horietan, kriminalitate-zantzurik badago, agintaritza judizial eskudunari jakinaraziko zaio.

e) Kexa argi eta garbi funsgabea izatea, edo eskatzen diren datuak ez ematea.

f) Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak dagoeneko aztertu duen gairen bati buruzkoa izatea.

g) Kexak Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen eskumen-eremuarekin zerikusirik ez izatea. Ararteko Erakundeari edo Herriaren Defentsariaren Erakundeari igorri behar zaizkio haien eskumen-eremuekin zerikusia duten kexak.

7.- Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak ikusten badu ez dela beharrekoa kexa tramitatzea, interesdunari jakinarazi behar dio, idazki arrazoitu bidez; eta, hala badagokio, bere kasuan eskumenak dituzten erakundeen berri emango dio.

68. artikulua.- Instrukzioa.

1.- Kexa tramitatzea onartu ondoren, gertakariak argitzeko beharrezko diren ikerketa-eginbideak egiteari ekin behar zaio.

2.- Prozeduraren fase honetan, kexa kontra izan duen pertsonari entzungo zaio.

69. artikulua - Amaiera.

1.- Prozedura modu hauetako batean amaituko da:

a) Prozedurari amaiera ematen dion ebazpen batez.

b) Kexa aurkeztu duen pertsonak atzera egiteagatik edo uko egiteagatik, betiere hirugarrenei kalterik ez badakarkie.

c) Iraungitzeagatik, interesdunak eskatuta hasitako prozeduretan, pertsona horri egotz dakiokeen kausengatik prozedura eten bada. Emakunde-

Emakumearen Euskal Erakundeak ohartaraziko dio hiru hilabete igarota prozedura iraungi egingo dela. Epe hori igarota interesdunak tramitazioa berrabiarazteko beharrezko diren jarduerak egin ez baditu, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak jarduketak artxibatzea ebatziko du, eta interesdunari jakinaraziko dio.

2. Prozedura amaitzen duen ebazpenak ikerketen emaitzen berri eman beharko du. Hartan, egoki ikusten diren adiskidetze-neurriak proposa dakizkieke bi aldeei, desagerrarazteko diskriminazio-egoera edo -praktikak edo emakumeen eta gizonen aukera-berdintasuna oztopa dezaketenak. Horretarako, kexa kontra izan duen pertsonari gomendioak ere eman dakizkioke. Inola ere ezin izango ditu diskriminazio-egintzak ezeztatu, baliogabetu edo zehatu.

4. Kexa kontra izan duen pertsonak Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak emandako gomendioak betetzen ez baditu, erakunde horrek laguntza teknikoa emango dio ukitutako pertsonari, hark beste administrazio-instantzia edo instantzia judizial batzuetan tramitatu ditzan diskriminazioagatiko erreklamazioak.

4.- Ikerketek irauten duten bitartean arrazoizko kriminalitate-zantzuak agertzen badira, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak Fiskaltzari jakinarazi beharko dizkio.

### 3. atala.
### Txostenak eta irizpenak.

70. artikulua.- Urteko txostena.

1.- Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak urteko txosten bat idatziko du, eta hor jasoko da egindako ikerketen zerrenda eta interesekotzat jotzen den beste gai oro.

2.- Txostena Eusko Legebiltzarrean aurkeztu behar da.

71. artikulua - Irizpenak.

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea organo eskuduna da Lan Prozedurari buruzko Legearen 95.3 artikuluan ezarritako irizpenak egiteko.

## V. TITULUA
## ARAU-HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK

76. artikulua.- Erantzukizuna.

Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan egin diren arau-hausteengatiko administrazio-erantzukizuna kapitulu honetan tipifikatutako ekintzak eta omisioak egin dituen pertsona fisikoari edo juridikoari egozten zaio, ezertan eragotzi gabe izan ditzakeen erantzukizun zibilak, penalak edo bestelakoak.

77. artikulua.- Arau-hausteak.

1.- Arau-hausteak arinak, astunak edo oso astunak izan daitezke.

2.- Arau-hauste arina izango da Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak egin beharreko ikerlana oztopatzea edo horri partzialki uko egitea.

3.- Hauek dira arau-hauste astunak:

a) Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen bereizkeria arloko ikerketa-lana guztiz oztopatzea edo ukatzea.

b) Lege honen 26.1, 26.2 eta 30.1 artikuluetan ezarritako eginbeharrak eta debekuak ez betetzea.

c) Gutxienez bi arau-hauste arin berriro egitea.

4.- Arau-hauste oso astuna izango da gutxienez bi arau-hauste astun berriro egitea.

78. artikulua.- Arau-haustea behin baino gehiagotan egitea.

Lege honen ondorioetarako, arau-haustea berriro egin dela ulertuko da arau-hausleek bi urteko epean izaera bereko arau-hauste bat baino gehiago egin badute, eta horrela adierazi bada ebazpen irmo bidez.

79. artikulua.- Zehapenak.

Zehapenak honela aplikatuko dira:

a) Arau-hauste arinengatiko zehapena: ohartarazpena eta/edo 3.000 eurora arteko isuna.

b) Arau-hauste astunengatiko zehazpena: 18.000 eurora arteko isuna eta/edo euskal herri-administrazioen edozein laguntza publiko eskuratzeko debekua, urtebete eta hiru urte bitarteko aldian.

c) Arau-hauste oso astunengatiko zehapena: 90.000 eurora arteko isuna, eta/edo euskal administrazio publikoen edozein laguntza publiko kontratatzeko eta eskuratzeko debekua, hiru eta bost urte bitarteko aldian.

80. artikulua.- Zehapenak mailaka sailkatzea.

Isunen zenbatekoa zehazteko eta gainerako zehapenak aplikatzeko, organo eskudunak mailakatze-irizpide hauek hartu behar ditu kontuan:

a) Eragindako kalteak nolakoak izan diren.

b) Nahita egin den edo behin baino gehiagotan egin den.

c) Arau-hausleak ea instantziaren ebazpena eman baino lehen zuzendu dituen prozedura hastea ekarri zuten akatsak.

81. artikulua.- Preskripzioen araubidea.

1.- Lege honetan jasotzen diren gaietako arau-hauste administratiboak epe hauek igarotzean preskribituko dira: arau-hauste oso astunak, bi urtean; astunak, hamabi hilabetean; eta arinak, berriz, sei hilabetean. Epe horiek guztiak arau-haustea gertatzen den egunetik aurrera zenbatuko dira.

2.- Lege honen babesean ezarritako zehapenen preskripzio-epea hau izango da: oso astunen kasuan, urtebetekoa; astunen kasuan, sei hilabetekoa; eta arinen kasuan, hiru hilabetekoa. Epe horiek guztiak zehapena jartzen duen ebazpena irmo egin eta hurrengo egunetik hasiko dira zenbatzen.

82. artikulua.- Eskumena.

Agintari hauek dute lege honetan zehazten diren arau-hausteengatiko zehapenak ezartzeko eskumena:

a) Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariak, arau-hauste arinengatiko zehapenak ezartzeko.

b) Gobernu Kontseiluak, arau-hauste astun eta oso astunengatiko zehapenak ezartzeko.

### 83. artikulua.- Zehapen-prozedura.

Zehapen-prozedurak bat etorri behar du Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legean eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoen Zehatzeko Ahalari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legean ezarritako printzipioekin.

## XEHEDAPEN GEHIGARRIAK

### Lehenengoa.- Legearen ebaluazioa eta berrikuspena.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakundearteko Batzordeak, lege honen 12. artikuluan esleitzen zaizkion funtzioen arabera, lege hau nola bete, garatu eta aplikatu den aztertuko du bost urterik behin, eta hala badagokio, berrikusteko aukera aztertuko. Horri buruzko txostena Eusko Legebiltzarrari igorriko dio.

### Bigarrena.- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako defendatzailearen izendapena.

Lege hau indarrean jartzen den egunaren osteko hamabi hilabeteren barruan, lehendakariak Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako defendatzailea izendatuko du.

### Hirugarrena - Eusko Jaurlaritzak egiturak egokitzea.

1.- Eusko Jaurlaritzako organo eskudunek, urtebeteko epean, behar diren prozedura administratiboak hasiko dituzte beren sailen egitura organikoari buruzko dekretuak aldatzeko, sail bakoitzean gutxienez administrazio-unitate bat egon dadin, lege honetan eta Jaurlaritzak onartutako berdintasun-planean jasotzen diren neurriak sailean exekutatu daitezen sustatzeko eta koordinatzeko.

2.- Eusko Jaurlaritzako organo eskudunek, urtebeteko epean, behar diren prozedura administratiboak hasiko dituzte lanpostu zerrendak aldatzeko, bermatzeko teknikariek esperientzia edo/eta gaikuntza espezifikoa izan dezatela, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko programak bultzatu eta diseinatzeko eta gai horri buruzko aholkularitza teknikoa emateko (besteak beste) funtzioak dituzten lanpostuak betetzeko; horretarako, gai horren gaineko ezagutzekin lotutako baldintza espezifikoak finkatuko dira halako lanpostuak lortzeko.

3.- Eusko Jaurlaritzako organo eskudunek, urtebeteko epean, behar diren prozedura administratiboak hasiko dituzte Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen lanpostu-zerrenda aldatzeko, erakundeak lege honen bidez

esleitzen zaizkion funtzioak bete ditzan eta lege honen aplikazioaren ondoriozko beharrizanetara egokitu dadin.

4.- Eusko Jaurlaritzako organo eskudunek, urtebeteko epean, behar diren prozedura administratiboak hasiko dituzte hezkuntza ebaluatu, ikertu, berriztu eta ikuskatzeko ardura duten organoen eta irakasleei laguntzeko zerbitzuen lanpostu-zerrenda aldatzeko; horretarako, baldintza espezifikoak txertatuko dira hezkidetzaren arloko trebakuntza behar duten lanpostuetarako.

## XEDAPEN IRAGANKORRA

Zenbait arauren indarraldia.

Lege hau garatzeko arauak ematen direnean, ondoren aipatzen diren dekretuak espresuki indargabetuta geratuko dira; arauok eman bitartean, indarrean jarraituko dute, baldin eta lege honen aurkakoak ez badira:

a) 301/1988 Dekretua, abenduaren 13koa, Emakumearen Euskal Erakundearen antolaketa eta jardute-egitura ezartzen duena.

b) 78/1998 Dekretua, apirilaren 27koa, Begira/Berdintasuna Garatzeko Iragarkien Aholkularitza eratzeko dena.

c) 103/1998 Dekretua, ekainaren 9koa, Emakumearen Euskal Erakundearen Aholku Batzordea sortzen duena.

d) 424/1994 Dekretua, azaroaren 8koa, Emakumeen eta Gizonen Aukera Berdintasunerako Lankidetza Erakundea izeneko figura sortzen duena.

e) 251/1999 Dekretua, ekainaren 15ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeentzako Ekintza Positiboko Planaren exekuzioa koordinatzeko Sailarteko Batzordea arautzeko dena.

## XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetzea.

Indargabetuta geratzen dira maila bereko edo beheragoko arauak, lege honetan xedatutakoaren aurkakoak direnean.

## AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa - Emakumearen Euskal Erakundea sortzeari buruzko otsailaren 5eko 2/1998 Legea aldatzea.

1.- Aldatu egiten da Emakumearen Euskal Erakundea sortzeari buruzko otsailaren 5eko 2/1988 Legearen izenburua: gaztelaniazko bertsioan "Ley 2/1988, de 5 de febrero, sobre creación de Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer" izango da, eta euskarazko bertsioan, berriz, "2/1988 Legea, otsailaren 5ekoa, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea sortzeari buruzkoa".

2.- Aldatu egiten da Emakumearen Euskal Erakundea sortzeari buruzko otsailaren 5eko 2/1988 Legearen 3. artikulua. Honela geratuko da:

"3. artikulua. Funtzioak.

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeari dagokio funtzio hauek betetzea:

a) Arestian proposatu diren xedeak erdiesteko gidalerroak lantzea eta Autonomia Erkidegoko botere publiko guztiek aplika ditzaten bultzatzea.

b) Berdintasunerako politiken eta Autonomia Erkidegoko legeriaren jarraipena egitea, emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioarekin egokitzeari dagokionez, diskriminazioaren aurkako araudia salbuetsita.

c) Lege-erreformak proposatzea, bi sexuen arteko benetako berdintasun iraunkorra trabatzen edo galarazten duten oztopoak ezabatzeko, eta lege hau garatzeko araudia proposatzea.

d) Emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko txostenak egitea eta irizpenak ematea, Autonomia Erkidegoko Administrazioak proposatzen dituen xedapen orokorrak lantzeko prozedurak irauten duen artean.

e) Genero-ikuspegia arlo politiko guztietan txertatzeko metodoak diseinatzea.

f) Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko eskumenak dituzten entitate, organo eta unitateetako langileen funtzioei eta gaikuntzari dagokienez, gutxieneko baldintza oinarrizkoak eta komunak proposatzea euskal administrazio publikoetan horretarako eskumena duten organoei.

g) Euskal administrazio publikoei emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan prestakuntza-planak diseinatzen eta proposatutako helburuak lortzen laguntzea, eta horri buruzko aholkuak ematea.

h) Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sailarteko Batzordearen eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakundearteko Batzordearen funtzioak bultzatzea eta koordinatzea; halaber, emakumeen egoeran eta emakumeen eta gizonen berdintasunean

eragina duten programei dagokienez Autonomia Erkidegoko botere publikoen artean izan beharreko koordinazio-neurriak bultzatzea.

i) Emakumeen eta gizonen baldintza, beharrizan eta interesak aztertzea, bai eta horren guztiaren ondorioz bizitza politiko, ekonomiko, kultural eta sozialean gertatzen diren desberdinkeriak ere. Horretarako, jardun-arlo guztietan egin beharreko politikak taxutzeko azterlanak egitea bultzatuko da.

j) Aholkua ematea eta sustapen-neurriak ezartzea, enpresek eta erakundeek bitarteko materialak eta ekonomikoak eta giza baliabideak eduki ditzaten emakumeen eta gizonen berdintasuna erdiesteko diseinatzen diren programak eta jarduerak garatu ahal izateko.

k) Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan zerbitzuak eskaintzen dituzten entitateak homologatzeko aplikatuko diren betekizunak eta gutxieneko baldintza oinarrizkoak eta komunak proposatzea eskumena duen organoari.

l) Diskriminazio anizkoitza jasaten duten emakumeei oinarrizko eskubide sozialetarako sarbidea izan dezaten bermatzeko zerbitzuak eskain daitezen bultzatzea eta proposatzea.

m) Emakumeek eta gizonek bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzea erraztuko dituzten zerbitzu soziokomunitarioak eskaini eta egoki daitezela bultzatu eta proposatzea.

n) Herritarrak sentsibilizatzea. Horretarako, emakumeen eta gizonen berdintasunaren esanguraren eta garrantziaren gainean eta berdintasun hori lortzeko lan egin beharraren eta emakumeen ahalduntzearen gainean bidezkotzat jotzen diren sentsibilizazio, sustapen eta zabalkunde-jarduerak eta -kanpainak egingo dira.

ñ) Elkarte, fundazio eta beste entitate eta organismo batzuekin harremanak eta parte-hartze bideak ezartzea, baldin eta erakundeon xedeak edo funtzioak lagungarri badira Emakunderen helburuak lortzeko.

o) Beste autonomia-erkidego batzuetako, Estatuko eta nazioarteko antzeko erakunde eta oraganismoekin harremanak eta parte-hartze bideak ezartzea.

p) Beraren xedeen arloan agintzen zaion beste edozein funtzio betetzea".

3.- 2/1988 Legean Instituto Vasco de la Mujer/Emakumearen Euskal Erakundeari egindako aipamen guztietan honako hau ulertu behar da: Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer gaztelaniazko bertsioan, eta Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea euskarazko bertsioan.

Bigarrena - Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legea aldatzea.

1.- Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legean, paragrafo bat gehitzen da 27. artikuluan. Paragrafo hori 2. apartatua izango da, eta lehengo testua,1. apartatua. Honela esango du 2. apartatuak:

“2. Baldin eta trebakuntzaren ikuspegitik emakumeen eta gizonen artean gaitasun bera badago, emakumeei emango zaie lehentasuna, administrazioko dena delako kidego edo eskalan emakumeak %40 baino gutxiago direnean. Salbuespena izango da lanposturako beste hautagaiak neurri hori ez aplikatzea justifikatzen duten ezaugarriak betetzen baditu; kasurako, laneratzeko arazo bereziak dituzten beste kolektibo batzuetako kide denean”.

2.- Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legean, paragrafo bat gehitzen da 31. artikuluan. Paragrafo hori 3.a izango da, eta lehengo 3.a, 4.a. Hala esango du paragrafo horrek:

“3. Hautaketa-epaimahaien edo organo teknikoen osaeran, emakumeen eta gizonen presentzia orekatua izan behar da, guztiek gaikuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia dutela; salbuespen izango da horren desegokitasuna behar bezala justifikatzen denean. Ordezkaritza orekatua egongo da lau kide baino gehiagoko organoetan sexu bakoitzak, gutxienez, %40ko ordezkaritza duenean, eta gainerako organoetan, berriz, sexu biak ordezkatuta daudenean”.

3.- Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legean, paragrafo bat gehitzen da 46. artikuluan. Paragrafo hori 2. apartatua izango da, eta lehen 2.a eta 3.a zirenak, berriz, 3.a eta 4.a izango dira aurrerantzean, hurrenez hurren. Honela esango du 2. apartatu horrek:

“2. Lehiaketa bidez bete beharreko lanpostuen kasuan, baldin eta trebakuntzaren ikuspegitik emakumeen eta gizonen artean gaitasun bera badago, emakumeei emango zaie lehentasuna, administrazioko dena delako kidego edo eskalan emakumeak %40 baino gutxiago direnean. Salbuespena izango da lanposturako beste hautagaiak neurri hori ez aplikatzea justifikatzen duten ezaugarriak betetzen baditu; kasurako, laneratzeko arazo bereziak dituzten beste kolektibo batzuetako kide denean".

Hirugarrena - Jaurlaritzaren ekainaren 30eko 7/1981 Legea aldatzea.

1.- Jaurlaritzaren ekainaren 30eko 7/1981 Legean, paragrafo bat gehitzen da 17. artikuluan. Paragrafo hori 2.a izango da eta hala esango du:

“2. Jaurlaritzan bi sexuek % 40ko ordezkaritza izango dute, gutxienez”.

2.- Jaurlaritzaren ekainaren 30eko 7/1981 Legean, aldatu egiten da 57.1 artikulua. Hau esango du aurrerantzean:

“Eusko Legebiltzarrari aurkeztutako lege-proiektuek honako hauek jaso behar dituzte: zioen adierazpen bat eta behar diren aurrekariak, haiei buruzko iritzia eman ahal izateko; generoaren araberako inpaktuari buruzko aurretiazko ebaluazioa eta dagozkion neurri zuzentzaileak. Horrekin batera, proiektu horrek aurrekontu-kargarik dakarren edo ez adierazi beharko da ".

Laugarrena - Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeei buruzko ekainaren 15eko 5/1990 Legea aldatzea.

Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeei buruzko ekainaren 15eko 5/1990 Legearen 50. artikuluari paragrafo bat gehitzen zaio. Paragrafo hori 4. apartatua izango da, eta hau esango du:

“4. Alderdi politikoek, federazioek, koalizioek edo hautesleen elkarteek aurkezten dituzten hautagai zerrendetan, % 50, gutxienez, emakumeak izango dira. Proportzio hori hautagai-zerrenda osoan eta sei izeneko tarte bakoitzean mantenduko da. Lurralde historikoko hauteskunde batzorde eskudunek, inola ere, artikulu honetan hautagaien nahiz ordezkoen kasuan ezartzen dena betetzen duten hautagai-zerrendak baino ez dituzte onartuko”.

Bosgarrena - Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Lurralde Historikoetako Batzar Nagusietarako Hauteskundeei buruzko martxoaren 27ko 1/1987 Legea aldatzea.

Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Lurralde Historikoetako Batzar Nagusietarako Hauteskundeei buruzko 1/1987 Legean, 6 bis artikulua honela geratuko da:

“1. Alderdi politikoek, federazioek, koalizioek edo hautesleen elkarteek aurkezten dituzten hautagai zerrendetan, % 50, gutxienez, emakumeak izango dira. Proportzio hori hautagai-zerrenda osoan eta sei izeneko tarte bakoitzean mantenduko da. Eskualdeko hauteskunde-batzorde eskudunek, hain zuzen, artikulu honetan hautagaien nahiz ordezkoen kasuan ezartzen dena betetzen duten hautagai-zerrendak baino ez dituzte onartuko”.

Seigarrena - Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretua aldatzea.

1.- Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuan, apartatu bat gehitzen zaio 50. artikuluari. Hau esango du:

“5. Titulu honetan erregulatutako diru-laguntzen eta bestelako laguntzen deialdietara ezin izango dira aurkeztu, kasuan kasuko zehapenak ezarritako epean, sexu-diskriminazioa egiteagatik zigor administratibo edo penala jaso duten pertsona fisikoak edo juridikoak, ez eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea dela bide debeku horrekin zehatutakoak ere".

2.- Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuan, tarteki bat gehitzen da 51. artikuluaren 1. paragrafoaren c) idatz-zatiaren azkenean. Hau esango du:

"c) (…)
Halaber, eta legez ezarritakoaren arabera bidezkoa dela ikusten baldin bada, laguntza edo dirulaguntza esleitzeko irizpide objektiboen artean hau txertatu behar da: proiektuan genero-ikuspegia txertatu beharra, bai eta eskaera egiten duen pertsonak edo erakundeak emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko politiken edo jarduketen garapenean izan duen ibilbidea ere”.

Zazpigarrena - Gizarte Bazterkeriaren aurkako maiatzaren 22ko 12/1998 Legea aldatzea.

1.- Gizarte Bazterkeriaren aurkako maiatzaren 22ko 12/1998 Legean, paragrafo bat gehitzen zaio 3. artikuluari. Paragrafo hori 3. apartatua izango da, eta lehen 3.a zena, berriz, 4.a bihurtuko da. Hau esango du:

“3. Halaber, elkarbizitza-unitate ekonomiko independentetzat joko dira tratu txarrengatik beren ohiko bizilekua utzi eta beste pertsona batzuen bizileku batean bizitzera joan behar izan duten pertsonak, beste pertsona horiek senitarteko izan edo ez”.

2.- Gizarte bazterkeriaren aurkako maiatzaren 22ko 12/1998 Legean, aldatu egiten da 18. artikuluaren 1. apartatuko d) letra. Hau esango du:

"d) 23 urte baino gehiago izatea.

Minusbaliotasunen bat duten pertsonak edo adingabeak ekonomikoki euren kargura dituzten edota aita eta ama hil zaizkien pertsonak salbuetsita geratuko dira, betiere 23 urtetik beherakoak badira eta gainerako baldintzak betetzen badituzte. Halaber, salbuetsita egongo dira 23 urte baino gutxiago dutenak, baldin eta, gainerako baldintzak betetzen dituztela, etxeko tratu txarren biktima izan badira, eta gutxienez sei hilabete lehenagotik ezkonduta badaude edo ezkontzaren antzeko egoera egonkor batean badaude."

Zortzigarrena - Generoaren araberako inpaktua aurretiaz ebaluatzeko eta desberdinkeriak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko neurrietarako arauak eta jarraibideak

Eusko Jaurlaritzak, urtebeteko epean, generoaren araberako inpaktua aurretiaz ebaluatzeko bete behar diren arauak edo jarraibideak onetsiko ditu, bai eta tramite hori egitetik salbuetsita dauden xedapenen zerrenda ere (19. artikuluko 2. paragrafoa). Halaber, epe horretan, dirulaguntza-irizpidea edo kontratu-klausula ebaluatzeko adierazleak ezarriko ditu (20. artikuluko 3. paragrafoa).

Bederatzigarrena - Enpresetan berdintasun-planak arautzea.

40. artikuluko lehenengo bi paragrafoetan ezarritakoa garatzeko, Eusko Jaurlaritzak, urtebeteko epean, zehaztuko du zein enpresa pribatuk egin eta exekutatu behar dituzten emakumeen eta gizonen berdintasun-planak edo programak, eta plan eta programa horietan zer jaso behar den gutxienez eta zer mekanismo behar diren horien jarraipena eta ebaluazioa egiteko.

Hamargarrena.- Etxeko tratu txarren biktimentzako baliabideak arautzea

Eusko Jaurlaritzak, sei hilabeteko epean, etxeko tratu txarren biktima direnentzako harrera-baliabideek bete beharreko gutxieneko kalitate- eta funtzionamendu-irizpideen eta baldintzen araudia onartuko du (lege honetako 57. artikuluko 4. paragrafoan aipatzen da), bai eta biktima horiei laguntzeko programa bat ere, lege honen VII. kapituluko 2. atalean xedatutakoa garatzeko.

Hamaikagarrena.- Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen egiturari buruzko dekretu berria.

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen antolamendu eta jardute-egiturari buruzko arauak hainbat testutan sakabanatuta egon ez daitezen, Eusko Jaurlaritzak, urtebeteko epean, egitura-dekretu berria onetsiko du, abenduaren 13ko 301/1988 Dekretua ordezkatzeko.

Hamabigarrena.- Arau-garapena.

Eusko Jaurlaritzari ahalmena ematen zaio lege hau garatzeko behar diren beste xedapen eman ditzan.

Hamahirugarrena - Legea indarrean jartzea

Lege hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean, salbu eta 19. artikulutik 22.artikulura artekoa, artikulu horiek urtebetegarrenean jarriko baitira indarrean.